

Ikaskuntza Komunitateak EAE-n

**Guztientzako hezkuntza-erantzuna
informazioaren gizartean.**

EGILEAK:

Ondoko Ikaskuntza Komunitateetako ikasleak, irakasleak, senitartekoak eta boluntarioak:

Artatse LHI
Ramón Bajo LHI
Ruperto Medina LHI
Karmengo Ama LHI

Koordinatzailea:

ISEI/IVEI: M^a Luisa Jaussi (Gizarteratzeko Programaren teknikaria)

Ondoko pertsonak egin dute:

ARTATSE LHI: Cristina Garre, Inés González

RAMON BAJO LHI: Pilar Melguizo, Benita Mojón

RUPERTO MEDINA LHI: Presentación González, Begoña Delgado

KARMENGO AMA LHI: Begoña Gárate, Belén Zudaire

Aholkulari-taldea: Josebe Alonso/ Juan Carlos Audikana/ Inmaculada Cereceda/ M^a Luisa Jaussi/ Julian Lavado/ M^a José Morgado.

CREA: Carmen Elboj/ Ramón Flecha/ Paco Imbernon/ Ignasi Puigdellivol/ Rosa Valls/ Julio Vargas

SARRERA

I OINARRI TEORIKOAK: IKASKUNTZA DIALOGIKOA, PERTSONA

GUZTIENTZAKO INFORMAZIOAREN GIZARTEAN.

1. Praktika eta teoriaren azterketa
2. Informazioaren gizarteko berdintasunezko hezkuntza
 - 2.1. Informazioaren gizartea
 - 2.2. Industria-gizartea informazioaren gizarte bihurtzeko faseak
3. Bira dialogikoa
4. Irakaskuntza tradizionaletik ikaskuntza dialogikoa
5. Elkarrekintzak, informazioaren gizartean ikasteko oinarria
6. Ikaskuntza dialogikoaren printzipioak

II EUSKADIKO IKASKUNTZA-KOMUNITATEAK

1. Proiektuaren ezaugarriak.
2. Ikaskuntza Komunitateak: hezkuntza-arloko erronkak eta premiak
 - 2.1. Desberdintasunak gainditzea
 - 2.1.1. Gizarte-bazterketa eta hizkuntz tratamendua.
 - 2.2. Kalitatea hobetzea
 - 2.3. Bizikidetasuna hobetzea
3. Eraldaketa-prozesuaren faseak
 - 3.1. Sentsibilizazio-fasea
 - 3.2. Erabakiak hartzea
 - 3.3. Ametsaren fasea
 - 3.4. Lehentasunak aukeratzea eta antolamendua
 - 3.5. Abiaraztea

III SENTSIBILIZAZIO-FASEA ETA ERABAKIAK HARTZEKO FASEA

1. Planteamendu orokorra
 - 1.1. Sentsibilizazio-fasea
 - 1.2. Erabakiak hartzeko fasea
2. Esperientzia: Artatse LHI ikastetxeko sentsibilizazio-fasea eta erabakiak hartzeko fasea
 - 2.1. Sentsibilizazio-fasea
 - 2.2. Erabakiak hartzeko fasea

IV AMETSAREN FASEA.

1. Planteamendu orokorra
2. Esperientzia
 - 2.1. Artatse LHI ikastetxeko ametsaren fasea.
 - 2.2. Karmengo Ama LHI ikastetxeko ametsaren fasea
 - 2.3. Ramón Bajo LHI ikastetxeko ametsaren fasea.
 - 2.4. Ruperto Medina LHI ikastetxeko ametsaren fasea

V LEHENTASUNAK AUKERATZEA, ANTOLAMENDUA ETA KUDEAKETA

1. Planteamendu orokorra
 - 1.1. Lehentasunak aukeratzeko fasea
 - 1.2. Batzordeak
2. Esperientzia: Karmengo Ama LHI ikastetxeko lehentasunak aukeratzeko fasea eta antolamendua
 - 2.1. Batzordeak

VI METODOLOGIA

1. Planteamendu metodologikoa
 - 1.1. Metodologiari buruzko gogoeta: hainbat printzipio metodologiko
 - 1.2. Estrategia metodologikoak: talde elkarreragileak
2. Esperientzia: Ramón Bajo LHI ikastetxeko aldaketa metodologikorantz
 - 2.1. Irakasleak: ikasgela eta interesak partekatzen ditugu.
 - 2.2. Ikasgelako ikaskuntza-espazioak
 - 2.3. Familiekin erabiltzeko ikaskuntza-espazioak. Senitartekoak eskola barruan

VII KOMUNITATEAREN PRESTAKUNTZA ETA PARTE-HARTZEA

1. Planteamendu orokorra
 - 1.1. Komunitatearen parte-hartzearen kontzeptua
 - 1.1.1. Ikaskuntza-kontratua
 - 1.1.2. Boluntarioak
 - 1.2. Komunitatearen prestakuntza: irakasleak, familiak eta boluntarioak
 - 1.2.1. Hainbat prestakuntza-modalitate
2. Esperientzia: Ruperto Medina LHI ikastetxeko prestakuntza eta parte-hartzea
 - 2.1. Nola inplikitzen eta prestatzen da komunitatea
 - 2.2. Ikaskuntza-kontratua
 - 2.2.1. Ikaskuntza-kontratuaren egitura
 - 2.3. Boluntarioak
 - 2.3.1. Prestakuntza
 - 2.3.2. Boluntarioak aukeratzea
 - 2.3.3. Ebaluazioa
 - 2.3.4. Jatorria eta kokapena

VIII AHOLKULARIEN ZEREGINA "IKASTETXE BAT IKASKUNTZA-KOMUNITATE

BIHURTZEKO PROZESUAN"

1. Aholkularien zeregina.
2. Esperientzia

BIBLIOGRAFIA

SARRERA

Liburu honetan Ikaskuntza Komunitateen aldaketa-proiektuak abiarazteko funtsezko elementuen berri emango dugu. Ikaskuntza Komunitate bat ikastetxe bateko eta bere inguruneko gizarte-eraldaketarako eta kultur eraldaketarako proiektu bat da eta pertsona guztientzako informazioaren gizartea lortzea du helburu. Proiektu honek ikaskuntza dialogikoa edo ikaskuntza dialogikoa du oinarri eta, horretarako, komunitatearen parte-hartzea eskatzen duen hezkuntza bideratuko da.

Euskadiko eskolekin lotuta dauden pertsona askok interes handia zuen CREA taldearen planteamenduak ezagutzeko; izan ere, eskola-porrota eta gizarte-desberdintasunak eskola-aldaketaren bitartez gainditzeko CREAk egiten zituen planteamenduak interes handia piztu zuen. CREA Bartzelonako Unibertsitateko Gizarte eta Hezkuntza Ikerketako Zentroa da. Zentro hau informazioaren gizartean gertatzen diren gizarte-arloko eta hezkuntza-arloko desberdintasunen azterketan oinarritzen da, baita gizarte-arloko eta hezkuntza-arloko aldaketa-proposamenen diseinuan ere. CREA taldeak parte hartze aktiboa izan du Ikaskuntza Komunitateen garapenean.

Hasiera bateko interes hori aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta, zehazki, Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritza CREA taldearekin harremanetan jarri zen. Ikaskuntza Komunitateen esperientzia Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lau ikastetxetan egitea proposatu zion. Eskola hauetako bi Bizkaian daude, beste bat Gipuzkoan eta, laugarrena, Araban.

1997-1998 ikasturtetik 1999-2000 ikasturtera bitartean, biak barne, Ikaskuntza Komunitateak hasierako denboraldi batez abiaraztea baimentzen zuen Agindua 1997ko irailaren 8an eman zen (1997ko azaroaren 3ko EHAA).

Ikastetxeei beren eremuko laguntza-zerbitzuko aholkulari bat esleitu zitzairen proiektuan lankidetzan jarduteko. Aholkulari honek eta ikastetxeetako ordezkariak proiektuaren aholkularitza eta koordinazioaz arduratuko den taldea osatu dute. Denboraldi hori amaitu denean talde hau beharrezko aholkularitza eta koordinazioaz arduratu da, baita esperientzia ezagutarazteaz eta beste ikastetxe batzuetarako prestakuntza egiteaz ere.

Liburu honen bi lehenengo kapituluetan ikastetxea Ikaskuntza Komunitate bihurtzeko proiektuaren oinarri teorikoak jaso ditugu, baita proiektuaren deskribapena ere. Hirugarren kapitulutik aurrera, eraldaketa-prozesu horren faseetako bakoitza (sentsibilizazioa, erabakiak hartzea, ametsa, lehentasunak aukeratzea, abiaraztea) eta bidezko aholkularitza-lana deskribatu da. Deskribapen honek bi zati ditu: bata, teorikoa, kapituluaren hasierakoa; eta, bestea, praktikoa, bertan ikastetxe batek atal horren faseari dagokionez izan duen esperientzia kontatzen du. Esperientzia hasi zuten lau ikastetxeetako bakoitzak fase baten garapena deskribatzen du, “ametsaren” fasean izan ezik, fase honetan lau ikastetxeen esperientzia kontatzen baita.

Ikastetxeak ondokoak dira:

Ramón Bajo LHI, ikastetxe hau Gasteizko alde zaharrean dago. Azken urte hauetan matrikulazioak nabarmen egin du behera eta bertako ikasleen profila aldatu egin da, ikasgeletan kultur aniztasunak nabarmen egin du gora.

Artatse LHI, Bilboko Txurdinaga eta Otxarkoaga auzoen artean kokatua. Auzo hau 60ko hamarkadan sortu zen, Bilboko eta inguruko txabolismoa errotik ezabatzeko saio batean. Gaur egun gizarte-bazterketako egoerak azaltzen dituen Bilboko inguruetako bat da.

Ruperto Medina LHI, Portugaleteko (Bizkaia) Buenavistako auzoan dagoen ikastetxea. Bertako biztanleriaren gehiengoa Espainiako estatuko erkidego guztietatik etorri zen 50eko hamarkadan industrializazioaren ondorioz. Altzairugintzaren eta, oro har, industriaren krisialdiak eraginda bertako pertsona ugari langabezian dago edo aurrez erretiratu da.

Karmengo Ama LHI, Pasaiako Trintxerpe auzoan kokatzen da. Udalerri honek lau barruti ditu eta penintsulako beste leku batzuetatik etorritako pertsona asko bizi da bertan, batez ere Galizia eta Portugaldik etorritakoak. Biztanleria-dentsitate handiko ingurua da. Ikastetxe honetako ikasle gehienak elebidunak dira: gaztelania-galiziera, gaztelania-portugeses eta gaztelania-euskara.

2000-01 ikasturtean Bizkaiko beste hiru ikastetxe gaineratu ziren esperientziara: Lekeitioko LHI, Etxebarriko San Antonio LHI eta Leioako Lamiako LHI. Une honetan beste eskola batzuek hasi dute esperientzia eta beste askok ezagutu edo hasi nahi dute esperientzia.

Amaitzeko liburu hau irakurtzera gonbidatzen zaitugu, bazterketa eta gizarte-desberdintasunak gainditzeko baliagarria izango delakoan gaude-eta. Hezkuntzaren aldaketa-ahalmenaren aldeko apustua da.

I OINARRI TEORIKOAK: IKASKUNTZA DIALOGIKOA, PERTSONA GUZTIENTZAKO INFORMAZIOAREN GIZARTEAN.

1. Praktika eta teoriaren azterketa

Munduko hainbat lekutan eskola-porrota gainditzeko eta elkartasunezko bizikidetasuna lortzeko ahaleaginean emaitza positiboak lortzen ari diren hezkuntza-proiektu ugari dago. Ikuspegi desberdinez harantzago, proiektu hauek guztiek hainbat alderditan egiten dute bat: guztientzako informazioaren gizartean praktikarik onenak bereizten dituzten alderdietan hain zuzen ere. Ezaugarri hauen artean ikaskuntza dialogikoa nabarmentzen da, hau da, komunitate osoaren berdintasunezko elkarrizketa nabarmentzen da (irakasle, ikasle, senitarteko, elkarte, hezkuntzaren eta gizartearen hainbat esparrutako profesional, boluntario eta abarren berdintasunezko elkarrizketa). Elkarrizketa hau ikasle guztien hezkuntza-berdintasuna lortzeko elkartasunezko ahalegin bateratua da.

Bartzelonako Parke Zientifikoaren Hezkuntza Aldaketako I. Jardunaldietan (1999ko azaroan) Marina Subirats-ek esan zuenez, hezkuntza-arduradunek XVII. mendeko medikuntzaren moduan jardun dugu, konfiantzazkoak ziren tratamenduak aplikatu ditugu, gaixoei beste lekuren batean hobera edo okerrera egin duten jakin gabe. Izan ere, nonbait ondo funtzionatu duten ziur jakin gabe aplikatu ditugu edo aplikatzen saiatu gara askotan proposamenak.

Proposamen hauetako asko (edo oso antzekoak diren beste batzuk) beste leku batzuetan aplikatu izan dira –eta oso emaitza kaskarrekin gainera–, baina proposamen hauek egin zituztenek ez zekiten hori. Jakina, kasurik gehienetan proposamen horiek ez zuten egoera asko hobetu eta proposamen horien sustatzaileek ideia oso ona zela baina gaizki aplikatu zela esaten zuten.

Gaur egun, neska-mutilengan, hezkuntza-elkartean eta gizartean, oro har, hain kaltegarriak diren dinamika hauek gaindi ditzakegu informazioaren gizartean eta gainditu egin behar ditugu. Orain gure ikastetxeetan eta gure etxeetan munduko zenbait ingurutan egiten ari diren hezkuntza-proposamen guztiei buruzko informazioa jasotzen dugu. XXI. mendean nahikoa informazio-baliabide dugu aplikatu direneko inguru guztietan porrot egin duten jardunak ez errepikatzeko eta gure berrikuntzak ikaskuntza instrumentala eta elkartasuna praktikan hobetu duten irizpideetan oinarritzeko.

Praktika hauei buruzko informazioa aurkitzen duguneko datu-baseetan eta argitalpenetan gaur egungo gizarte-arloko eta hezkuntza-arloko teoriak ikus ditzakegu. Gizarte-zientzietan azken bi hamarkada hauetan komunikazioaren edo elkarrizketaren ikuspegia nagusitu dela ikus dezakegu. Izatez, komunikazioaren edo elkarrizketaren ikuspegi honek aurrekoak barne hartu eta/edo gainditu dituela antzeman dezakegu. Bestalde, ikus dezakegu bere ekarpenak hezkuntzan ere aplikatzen hasi direla, zertxobait atzeratuta izan bada ere. Etorkizunerako proposamenak ez ditugu zertan beste garai bateko hezkuntzan aintzat hartu ziren gizarte-teorietan oinarritu. Orain etengabe egon gaitezke harremanetan nazioarteko komunitate zientifikoarekin eta honekin batera egin dezakegu aurrera pertsona guztientzako etorkizun hobearen bila.

2. Informazioaren gizarteko berdintasunezko hezkuntza.

2.1. Informazioaren gizartea

Gure bizitzetako esparru askotan, publikoan zein pribatuan, eragina duen globalizazio-prozesu batean gaude murgilduta. Globalizazio-prozesu hau informazioaren teknologia berriei esker gertatu da, erabateko iraultza izan dira.

Informazioaren teknologia berrien inguruan sortu den gizarte berriak baztertu egin du industria-gizartea. Informazioaren edo ezagutzaren gizarte gisa ere ezagutzen den gizarte hau aurrekaririk ez duen iraultza teknologiko baten barruan sortu zen 70eko hamarkadan.

Industria-gizartean bigarren sektorea (industria) zen nagusi eta hirugarren sektoreak (zerbitzuak) gora egin zuen, lehen sektorearen kaltetan. Gaur egun beste sektore bat garatzen ari da, laugarren sektorea edo informazio-sektorea. Sektore honetan informazioa da lehengai. Informazioaren gizarteko ekonomiaren oinarria informazioa prozesatzea da, baita informazioaren tratamendurako baliabide teknologikoak ere. Informazio-ekonomia orokor batean gaude eta ekonomia honen sorrera joan den mendeko azken mende-laurdenean izandako iraultza teknologikoak erraztu zuen –inola ere eragin–.

Informazioaren teknologia funtsezkoa da iraultza honetan, industria-iraultzetan industria-iturri berriak izan ziren moduan, lurrunezko motoretik fosilen erregaietara edota energia nuklearrera; izan ere, energiaren sorrera eta banaketa industria-gizartearen ezkutuko giltzarria izan zen (Castells 1997:57).

Gaur egun, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek ekonomia-sektore guztien funtzionamendua aldatu dute eta gure eguneroko bizimoduan praktika berriak ekarri dituzte. Ekonomia honen garapenarekin batera antolakunde demokratikoagoak zabaldu dira mikro-mailan eta biztanleriaren sektore handiak merkatutik eta produktiotik baztertuta geratu dira makro-mailan.

Ekonomia osoa erabat asimetrikoa da. Mundu-mailan desagertu egin da iparraldearen eta hegoaldearen arteko muga, aurretik ezagutu dugun moduan bederen. Areagotu egin da munduko inguru desberdinen artean hainbat arlotan zegoen aldea: hazkunde ekonomikoan, ahalmen teknologikoan eta gizarte-baldintzetan. Era berean, eskualdeen artean eta hiri baten barruan gizarte-bitartze edo gizarte-polarizazio nabarmena gertatzen da. (Castells, 1997-1998/1996-1997).

Informazioa aukeratzeko eta prozesatzeko ahalmena –eta, hortaz, adimen-baliabideak– garrantzi handikoa da gizarte berri honetan. Ahalmen hauek ez dituzten pertsonak baztertuta geratzen dira.

Zehazten den gizartean hezkuntza funtsezko giltzarri bihurtzen da. Hezkuntzak informazio-baliabideetara eta produkzio-baliabideetara sartzeko aukera ematen duenez gero, aukerak ematen dituen edota bazterketa-egoerak areagotzen dituen elementu bihurtzen da. Pertsona guztiek gaitasunak ditugun arren, gaitasun guztiak ez dira berdin baloratzen. Jakintza antolatzeke, kodetzeko eta transmititzeko modua bat dator talde pribilegiatuen modurekin. Talde hauek ezartzen dituzten trebetasunak menperatzen ez dituzten pertsonak informazioaren gizarteko esparru desberdinetatik baztertuta geratzeko arriskuan izango dira. (CREA, 1995-1998).

Horrenbestez, pertsona guztiek jakintzen lorpenean oinarritzen den heziketa izan dezaten errazteaz gain, hezkuntzak beharrezko trebetasunak garatzeko aukera eman beharko du. Informazioa aukeratu eta prozesatzea, autonomia, erabakiak hartzeko gaitasuna, talde-lana, balioaniztasuna, malgutasuna eta antzeko beste trebetasun batzuk ezinbestekoak dira gizartearen hainbat testuingurutan: lan-merkatuan, kultur jardueretan eta gizarte-bizitzan oro har.

Espainiako estatuan XX. mendeko azken bi hamarkadetako hezkuntzan eraginik handiena izan duen hutsegiteetako bat hezkuntzak informazioaren gizartean duen zereginari buruz gogoeta ez egitea izan da. Nahikoa izango da garai hartako hezkuntzaren arloko liburu, aldizkari eta plangintzetan begiratzea irakaskuntza informazioaren gizarte batera egokitu nahi zela antzemateko, nahiz eta informazioaren gizarte hori aztertzen eta aipatzen ez zen. Liburu-dendetan informazioaren gizarteari buruzko produkzio oso zabala aurki zitekeen (esate baterako, Naisbitt eta Castells-en lanak) Halaber, hainbat taldek (CREAk kasu) informazioaren gizartean nagusitzen ari zen gizarte-ereduaren ondoriozko desberdintasunak aztertzen zituzten, hau da, informazioaren gizarte sartzeko modua eta hezkuntzak gizarte honetan zuen zeregina aztertzen zuten.

Eskola-porrotaren arazoa eta eskoletan gertatzen diren bizikidetasun-arazoak gainditzeko ezinbestekoa izango da neska-mutil guztiek informazioaren gizartean baztertuta ez geratzeko behar dituzten ikaskuntzak ahalbidetuko dituen hezkuntza garatzea. 2001. urtean 10 edo 16 urte bete dituzten gazteek 30 edo 36 urte izango dituzte 2021. urtean. Aurreikus daitekeenaren arabera ordurako Euskadin euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz ez dakienak gizarte-bazterketa jasateko arriskuan izango da. Familia akademikoak, hau da, unibertsitate-titulua duen pertsona bat gutxienez izango duten familiak gero eta gehiago ari dira helburu hori lortzen bere seme-alabekin. Zergatik ez dute eskubide bera izango eta aukera bera izango akademikoak ez diren familia guztiek, behartsuak edo nagusi ez diren kultur taldeetako kide badira ere?

2.2. Industria-gizarte informazioaren gizarte bihurtzeko faseak

Lehen fase batean sektorerik trebeenek gidatzeko konfiguratu zen informazioaren gizarte, gainerako sektoreei langabezia, azpiokupazioa edo gizarte-laguntzetatik bizitzea zegokien. Garai hartan sustatu ziren hezkuntza-dinamikek gizarte-bazterketa gainditzeko ezinbesteko ikaskuntzez kanpo uzten zituzten sektore asko eta, horretarako, aniztasunerako egokitzapenaren aitzakia jarri zuten. Ijitoak, arabiarak edo behartsuak baziren, “gaztelania pixka bat eta kontuak egiten” irakastearekin nahikoa egiten zela pentsatzen zen.

Gaur egun, ordea, pertsona guztientzako informazioaren gizarte bilatzen da eta horretarako hainbat arrazoi dago. Testuinguru honetan, hezkuntzak berriro indartu du berdintasunezko helburua eta neska-mutil guztiek informazioaren gizarteak eskatzen dituen ikaskuntza guztiak eskuratzeko aukera izan dezaten beharrezko aldaketa guztiak egitea aztertzen ari da. Hezkuntza-praktikarik onenek ez dute gaur egungo eskolarekin zer egin daitekeen aztertzen; aitzitik, ikasle guztiek gizarte-bazterketaren eta hezkuntza-bazterketaren langa gaindi dezaten lortzeko eskolan egin beharreko aldaketak aztertzen dituzte.

Hasierako fasean “aukeratutako” pertsonen zuzendutako informazioaren gizarte planteatzen zen, gizarte-arloko darwinismoaren hizkuntza gogoraraziz. Ez zuen axola ikasle batzuek erritmoari jarraitzea eta beste batzuk pixkanaka baztertuta geratzea. Lehenik taldearen beraren barruan atzeratuta zeudenak bereizten ziren, ondoren ikastetxe bereko beste gela batera eramaten ziren eta, azkenik, ikastetxetik kanpo zeuden unitateetan sartzen ziren. Honela, oharkabean, bazterketa-ibilbideak eraiki ziren, bizikidetasun-arazoak sortu ziren eta, azkenik, delinkuentzia. Bereizte-praktika hauek oso emaitza negatiboak izan dituzte eta kostu ekonomiko eta sozial handia eragin dute. Jakina, praktika hauek babesten zituzten eta beren alde onak aldarrikatzen zituzten pertsona guztiak ez zituzten beren seme-alabak egoera horretan ikusi nahi.

Pertsona guztientzako informazioaren gizartean aldagai independentea ondokoa litzateke: hezkuntzako profesionalok gure seme-alabentzat nahi ditugun ikaskuntza-prozesuetan ikasle guztiak barne hartzeko aukera izatea. Hezkuntza-sistema osatzen duten elementuak menpeko aldagai bihurtzen dira, guztiak alda daitezke eta aldatu behar dira, betiere familia guztiak eskolari eskatzen diogun helburua lortzeko beharrezkoa baldin bada.

Aukeratutako pertsonentzako informazioaren gizartean, familia akademikoak gure seme-alabentzako goi-mailako hezkuntzako titulazioak ziurtatzen saiatzen ginen eta, askotan, gainerakoentzat aukera horretaz baztertzen zituzten ibilbideak babesten genituen. Aukera "darwinista" hau babesteko egiten ziren diskurtsoek ez zuten datuen frogak gaintzen, baina kontzientzia asko lasaitzeko baliagarriak ziren. Hauen artean unibertsitatea langabetuen fabrikatzaletan jotzen zuen diskurtsoa nabarmen dezakegu; izan ere, informazioaren gizartean lanposturik onenak goi-mailako titulazioa (unibertsitatekoa edo goi-mailako lanbide-heziketako) duten pertsonen nagusiki bereganatu dituzte herrialde guztietan. Unibertsitateko langabezia deritzana 30 urtetik beherako adin-multzoetan metatzen da, hau da, lan-merkatutzeko epea luzatzearen ondoriozkoa da hein handi batean. Hezkuntza-arloko eta gizarte-arloko desberdintasunen beste muturrean, berriz, bigarren hezkuntza amaitzen ez duten pertsonak langabeziarako, azpiokupaziorako eta legez kanpoko ekonomiarako hautagai nagusi bihurtzen dira.

Berdintasunaren helburua indarberritu egiten da guztientzako informazioaren gizartearen planteamenduan; neska-mutil guztiak –bere gizarte-jatorria edo kultura edozein izanik ere– familia akademikoek gure seme-alabentzat nahi ditugun ikaskuntzak lortzeko aukera izango dute, horretara bideratutako hezkuntza-ibilbideak jarraitu ahal izango dituzte.

3. Bira dialogikoa

Har dezagun abiapuntutzat muturreko kasu erreal bat. Lehen hezkuntzako seigarren mailako 19 neska-mutilen ikasgela. Zazpi erregulartasunez bertaratzen dira eta ikaskuntza-erritmoari eusten diote, irakasleak erabiltzen duen arbelaren inguruan esertzen dira. Gainerako hamabiak ez dira eskolara erregulartasunez joaten eta eskolara joaten ez direnean maisuak ezartzen dizkien banakako lanak eta “hainbat ekintza” (borrokak tartean) nahasten dituzte.

Industria-gizarteak utzitako eskola-esparruan ez dago irtenbiderik. Irakasleek ikasle guztiakin ezin dutela uste dute. Normala da “ezinezkoak” diren bizpahiru horiek

ikasgelatik (edo eskolatik) ateratzea. Eskola barruan ezer egiten ez dutenez gero, “agian zerbait egingo dute beste giro batean”.

Eskola-esparru hori aldatuz gero, badago irtenbidea eta halaxe egiten ari da gero eta eskola gehiagotan. Onartu egin behar da irakasleok bakarrik ezin dugula; familien, beste profesional batzuen, erakundeen, boluntarioen eta abarren lankidetzaz estua behar dugu. Ijitoen eta arabiarren komunitateetako neska-mutilak dauden eskoletan komunitate horretako kideren batek ikasgelan goiz edo arratsalderen bat eman dezake eta, hala, bere komunitateko ikasleek eskolarekiko, bizikidetasunarekiko eta ahaleginarekiko duten balorazioa hobeto dadin lagun dezake. Beste kasu batzuetan, senitartekoak kartzelan dituzten ikasleak daudenean, ikastetxeko hezitzaile bat senitarteko hauekin harremanetan jar daiteke eta egin nahi diren aldaketak azaldu eta aldaketa hauek balioz hornitzeko laguntza eska diezaioke. Pertsona boluntarioek ikasgelan sartzeko eta haurtalde txiki bakoitzean oso arreta pertsonalizatua jartzeko eskaini ahal izango dute beren burua. Ez dago zertan prestakuntza ikasleari soilik eskaini, eskolaren barruan senitartekoen prestakuntzarako zentro bat ere sor daiteke. Neska-mutilentzako Interneti buruzko eskolak eman daitezke, senitartekoentzako ere beste ikastaro batzuk eman daitezke eta beste ikastaro batzuk batera eskaini dakizkieke neska-mutilei, ikasleei, auzokoei eta irakasleei.

Aldaketa hauei eta liburu honetako beste atal batzuetan azal daitezkeen beste batzuei esker, ikastetxe askok aurrerapauso handiak egin dituzte informazioaren gizartearen ematen diren eskola-porroteko arazoak eta bizikidetasuneko arazoak gainditzeko. Ikaskuntza ez da pertsona adituen eskumen hutsaren moduan ulertzen, ikaskuntzaren eragile guztiek, hau da, ikasleekin harremanetan dauden pertsona guztiek partekatu beharreko erantzukizuntzat hartzen da.

Gaur egungo gizarte-zientziek elkarriketaren ikuspegi hau bermatu eta funtساتzen dute. Habermas-en Komunikazio Ekintzaren Teoria (1981) gizarte-teoriaren barruan inflexio-puntua izan zen, komunikazio-ikuspegiarantz egin zuen eta aurreko beste teoriak barne hartu eta gainditu zituen. Azken hamarkada hauetan, beste ekarpen askok bat egin dute orientabide horretan (Beck, CREA, Elster, Freire, Touraine) eta gaur egungo ikaskuntza dialogikoren komunikazio-oinarria eta gogoeta-oinarria zabaldu egin dute (Flecha 1997).

Garai horretan, hezkuntzako nazioarteko komunitate zientifikoak gehien aipatzen zuen egile garaikidea Freire izan zen; izatez, 1970. urterako ekintza dialogikoaren teoria gaineratu zuen bere *Zapalduaren Pedagogian*. Haatik, hezkuntza-sistema atzeratuta ibili ohi da eta, honez gain, Hegoaldeko Europar hezkuntza-aldaketak aztergai zituzten egileek ez zuten nazioarteko komunitate zientifikoetan parte hartzen. Hori dela-eta, gizarte-zientzietan sortzen ari ziren komunikazio-garapen berriak ezagutzen ez zituzten ikaskuntzaren ikuskeretara mugatzen ginen; gainera, ezagutzen ziren ekarpenak, Freirerenak kasu, ez ziren aintzat hartzen.

4. Irakaskuntza tradizionaletik ikaskuntza dialogikora

Komunikazio-ikuskerak frogatu egiten du ikaskuntza neska-mutilaren eta gainerako pertsonen (ikasleekin, irakasleekin, senitartekoen, lagunen) arteko elkarrekintzen menpe dagoela. Horrenbestez, ikasgelan gertatzen denaren menpe ez ezik, etxean eta kalean gertatzen denaren menpe dago ikaskuntza. Familia akademikoek, irakasleek antzeko

gizarte-mailakoak izanik, ziurtatu egiten dute esparru desberdinetan gertatzen denaren arteko nolabaiteko korrelazioa –nahiz eta ikastetxera ez joan–. Akademikoak ez diren familiek korrelazio hori ziurtatzeko irakasleekin koordinatu beharko dute eta hauekin batera jardun beharko dute.

Informazioaren gizartean funtsezko gaitasuna ez da informazioa metatzea izango, informazioa aukeratzea eta prozesatzea baizik. Sendagileei eta atezainei ez zaie eskatuko inon kontsultatu gabe errezetak egitea edo arazoren bat ebaztea. Aitzitik, beren lanpostuan eta etxean mota guztietako informazioa emango zaie –eskatzen ez badute ere– eta zailena egoera jakin bakoitzerako informaziorik garrantzitsuena dena aukeratzea eta prozesatzea izango da, hau da, informazio hori aztertzen jakitea eta egoera horretan aplikatzen jakitea.

Horrenbestez, ez du zentzurik bizitza osoan behar izango duten informazioa nahitaezko eskolatze-denboran metatzea. Kontuan hartu behar da inork ezin duela jakin gaur egun 10 urte dituen ikasle batek 20 urte barru zer informazio behar izango duen. Dena den, beren bizitzako une eta egoera bakoitzean garrantzitsua izan daitekeen informazioa aukeratzeko eta prozesatzeko gaitasuna garatzeak zentzu handia du. Sendagile edo atezain batek beren tratamenduak eta zerbitzuak egin aurretik, arazo bakoitza ebazteari buruz munduan dagoen informaziorik onena aukeratu eta prozesatu beharko du. Ebaluazioetan edo azterketetan ikasleek mota guztietako liburuak, apunteak eta ordenagailuak eskura izateak eta erabili behar izateak zentzua du, denbora jakin batean informaziorik garrantzitsuena bilatzen eta prozesatzen jakitea ebaluatu beharko baita.

Aldaketa hauen ondorioz, hezkuntzaren eta gizartearen aurreko aldietan oinarritzen ziren ikaskuntzaren ikuskerak ere aldatu beharko ditugu. Gauzak oso azkar aldatzen dira eta hezkuntzan, batzuetan, oso makal goaz; berrikuntza jakin bat prestatzen dugunerako jada zaharkituta geratu da. Adin jakin bat dugun irakaskuntzaren profesional batzuek gure irakaskuntza-bizitzan ondoren planteatuko ditugun lau ikuskeretako hiru pasa ditugu. Laugarren ikuskerarekin azkar ez bagabiltza, gerta daiteke aplikatzeko prest gaudenerako komunitate zientifikoak gaur egun ezagutzen ez dugun bosgarren ikuskerako jauzia egitea.

Errealitatea gizarte-subjektuez bereizten zuen gizarte-zientzien ikuskera objetibista batean oinarritu zen nagusiki irakaskuntza tradizionala. Adibidez, lau hanka zituen zurezko pieza bat mahaia zen eta jateko erabili beharrean sua egiteko erabiltzen zuena ezjakina zen. Ikuskera honetan argi dago irakaskuntzaren funtzioa: jakintza objektiboak eta “goi-mailako” balioak transmititzea. Hori lortzeko ez da nahikoa matematiketako irakasleak matematika jakitea, ikasleek matematika uler dezaten errazteko eta matematikarekin motibatzeak aukera emango duen metodologia ere menperatu beharko du. Hortaz, 1971ko maisutza-planean finkatu zenaren arabera, UBIn heldu ziren ikasleek, hau da, OHOk eskolak emateko nahikoa ezagutza zientifikoak zituzten ikasleek, eskola horiek eman nahi izanez gero, didaktika berezietakoren batean espezializatu behar ziren.

Esanahi-ikaskuntzak, berriz, gizarte-zientzien ikuskera konstruktibistaren ekarpena jasotzen zuen; izatez, ikuskera konstruktibistak eragin handia izan zuen 60ko hamarkadan, ikuskera estrukturalistarekin batera. Ikuskera honetan errealitatea sozialki eraikitzen da eta, horrela, lau hanka dituen zurezko pieza bat mahaia izan daiteke pertsona batentzat –jateko egokia dela ikusten badu– eta sutarako egurra beste batentzat

–sua egiteko egokitzen jotzen badu–. Gerta daiteke lehenak inoiz ez egitea sua eta bigarrenak beste lekuren batean jatea. Honek ez du esanahi bata bestea baino argiagoa edo kultuagoa denik, sozializazio desberdinak dituztela, hau da, aurretiazko kontzeptu edo ezagutza desberdinak dituztela baizik.

Esanahi-ikaskuntzak irakaskuntza tradizionala barne hartu eta gainditu nahi zuen eta, horretarako, jakintza zientifikoei eta metodologiei esanahien banakako eraikuntza-prozesuen ikerketa gaineratu zitzaizkien, baita ikaskuntza-prozesu horiek ikasgelaren barruan optimiza zezakeen curriculum-arloko esku-hartzea ere. Irakasleen prestakuntza areagotu egin zen eta prestakuntza honek orientazio berri bat hartu zuen; jada ez dira nahikoa batxilergotik ekarritako ezagutza zientifikoak eta trebetasun metodologikoak; behar-beharrezkoa da ikuskeren konstruktibistako aplikazioetan eta curriculum-garapenean aditu bihurtzea.

Aldi berean, lankidetzak-ikaskuntza garatzen ari zen. Lankidetzak-ikaskuntzak gizarte-zientzien ikuskerari arauzko orientazioa gaineratzen zion. Arauzko orientazio honen bitartez batzuetan aurrez aurre dauden bi helburu osatzen ziren: batetik, balioen garapena eta, bestetik, ikaskuntza instrumentala. Lankidetzak ikaskuntza instrumentala areago dadin eta, aldi berean, elkartasunaren eta lankidetzaren balioak gara daitezkeen dakar. Dena den, lankidetzak-ikaskuntza industria-gizartetik informazioaren gizarterako eraldaketaren aurretik landu zen, baita gizarte-zientzien komunikazio-ikuskeraren aurretik ere, –irakaskuntza tradizionalaren eta esanahi-ikaskuntzaren moduan–. Hortaz, hiruetako bakar batek ere ez du irakasle batez eta ikasleez osatutako ikasgela tradizionala gainditzea planteatzen.

Ikaskuntza dialogikoa gizarte-zientzien komunikazio-ikuskeran oinarritzen da, hau da, gizarte-errealitatea pertsonen arteko elkarrekintzek eraikitzen dutela aintzat hartzen duen ikuskeran oinarritzen da. Adibidez, neska-mutil batekin elkarrekintzan jarduten duten pertsonen –eta bereziki gurasoen– lau hanka dituen zurezko pieza bat jateko eta idazteko erabiltzen badute, neska-mutil horrek objektu hori mahai gisa “eraikiko” du; haatik, zura sua egiteko erabili, beste leku batzuetan jan eta, agian, idazten ez duen jendearekin soilik erlazionatzen den neska-mutil batek objektu hori zuhaitz zati baten moduan interpretatuko du. Eraikuntza honek, ordea, sozializazio berriak izango ditu; hala, bere inguruko jendeak bizimodua aldatu, esertzen hasi eta objektu hori jateko erabiltzen hasten bada, ez du egur zati baten moduan ikusiko eta mahai baten moduan ikusten hasiko da.

Ikaskuntza dialogikoan jakintza zientifikoak, metodologiak eta esanahiak eraikitzekeo prozesuak hartzen dira aintzat; alabaina, ikaskuntzak bizkor ditzaketan elkarrekintzen aldaketei eta ikaskuntza horiek lortzeko motibazioei jartzen zaie nagusiki arreta. Ikuspegi honetatik ez du inolako zentzurik irakasleak soilik prestatzea, ezinbestekoa da neska-mutilekin elkarrekintzan jarduten duten pertsona guztien prestakuntza.

Aurreko hiru ikuskeren ekarpenak jasotzen dituen arren, ikuspegi berri batean kokatzen ditu hiruak; izatez, ikaskuntza dialogikoa da gaur egungo gizarte-zientzietan oinarritzen den ikaskuntza bakarra, baita berdintasunezko hezkuntzaren bitartez informazioaren gizarterari aurre egiten dion ikaskuntza bakarra ere. Ikaskuntza ikasleen elkarrekintza guztien ondoriozkoa da eta ez ikasgela tradizionalan soilik gertatzen diren elkarrekintzen ondoriozkoa. Ikasgela tradizionala gainditzea eta beste hezkuntza-eragile

batzuei zabaltzea eta ikasgelaz kanpo gertatzen den guztiarekin koordinatzea funtsezkoa izango da eskola-porrotari eta bizikidetasun-arazoei aurre egiteko.

IRAKASKUNTZA TRADIZIONALA	ESANAHI- IKASKUNTZA	LANKIDETZA- IKASKUNTZA	IKASKUNTZA DIALOGIKOA
IKUSKERA OBJEKTIBISTA: ERREALITATEA GIZARTE-SUBJEKTUEZ INDEPENDENTEA DA	IKUSKERA KONSTRUKTIBISTA: ERREALITATEA SOZIALKI ERAIKITZEN DA		KOMUNIKAZIO- IKUSKERA: GIZARTE-ERREALITATEA PERTSONEN ARTEKO ELKARREKINTZEN BIDEZ ERAIKITZEN DA
ADIMENA ETA MOTIBAZIOA	AURRETIAZKO EZAGUTZAK	LANKIDETZA	ELKARREKINTZAK
JAKINTZA ZIENTIFIKOAK ETA TREBETASUN METODOLOGIKOA	IKERKETA ETA ESKU-HARTZE OPTIMIZATZAILEA IKASLE BAKOITZAREN ESANAHIAK ERAIKITZEKO PROZESUETAN	ESKU-HARTZE OPTIMIZATZAILEA LANKIDETZA-PROZESUETAN	ELKARREKINTZAK ALDATZEKO LANKIDETZA
IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA ZIENTIFIKOA ETA METODOLOGIKOA	IRAKASLEEN IKERKETA-PRESTAKUNTZA ETA CURRICULUM-PRESTAKUNTZA	IRAKASLEEN ARAUZKO PRESTAKUNTZA	IRAKASLEEN, SENITARTEKOEN ETA KOMUNITATEAREN DISZIPLINARTEKO PRESTAKUNTZA
IKASGELA TRADIZIONALA: IKASLEENGANA ZUZENDUTAKO IRAKASLEAK	IKASGELA TRADIZIONALA: IKASLEEN ARLOAN ADITUAK DIREN IRAKASLEAK	IKASGELA TRADIZIONALA: IKASLEEKIN LANKIDETZAN JARDUTEN DUTEN IRAKASLEAK (eta beren artean lankidetzan jarduten duten ikasleak)	ELKARRIZKETA- IKASGELA: IRAKASLE, IKASLE ETA BESTE HEZKUNTZA-ERAGILE BATZUETARA ZABALIK DAGOENA
INDUSTRIA-GIZARTEA	INDUSTRIA-GIZARTEA	INDUSTRIA-GIZARTEA	INFORMAZIOAREN GIZARTEA

5. Elkarrekintzak, informazioaren gizartean ikasteko oinarria

Informazioa aukeratzeko eta prozesatzeko gaitasunak hobe garatzen dira gogoeta sorrarazten duen elkarriketa batean. Gauza bat ikasteko modurik onena gauza hori azaldu behar izatea da. Testu bera irakurri duten beste pertsona batzuekin testu horri buruz hitz egiten dugunean, hobe gureganatzen dugu testu hori eta gehiago motibatzen gaitu testu horrek. Ikaskuntza dialogikoak gogoetazko elkarriketa hori ikasgelan ez ezik, hezkuntza-giro guztietan sustatzen du. Talde elkarreragileez baliatuta, besteak beste, zehaztu ahal izango da mota horretako elkarriketa bat.

20 neska-mutileko ikasgela bat bost ikasleko lau taldetan antola daiteke. Talde bakoitzean tutore bat egon daiteke (boluntarioa, profesionala edo senitartekoa). Irakasleak talde guztien dinamika koordinatu eta zuzenduko du eta bertan etengabeko elkarrekintzak sortuko dira, bai neska-mutilen artean, bai neska-mutilen eta tutorearen artean. “Aurreratuen” dagoen neska-mutilak okerrago ulertzen ari denari azalpenak eman diezazkioke eta, hala, bien ikaskuntza bizkortu egingo da: okerrago ulertzen ari denarena bere pareko batek laguntzen diolako eta bere pareko horrek gai hori ulertzeko dauden zailtasunak hobeto ulertzen dituela; eta “aurreratuen” dagoenarena gauza bat ulertzeko modurik onena gauza hori azaltzea delako eta, hala, gai horri buruzko metahizkuntza, komunikazio-trebetasunak eta abar garatzen ari delako. Ez da “beheranzko parekotasuna” planteatzen, berdintasuna baizik; pertsona guztien gaitasunen hobekuntza planteatzen da. Gainera, ikasgelan zenbait ordenagailu egon daitezke eta ordenagailu hauen bitartez lantzen ari den gaiari buruzko programa didaktikoekin hainbat jarduera egin ahal izango dituzte, Interneten informazioa bilatu ahal izango dute, posta elektronikoaren bidez edo foro baten bidez gai bera lantzen ari den beste eskola batekin lankidetzan jardun dezakete...

Talde elkarreragileak, komunitateko sektoreen arteko lankidetzak estua eta senitartekoen eta ikasleen prestakuntza, esate baterako, elkartasun-eskolak dira. Talde elkarreragile bateko neska-mutil bakoitzaren helburua bere talde osoak ikaskuntzan arrakasta lortzea izango da eta baldintza desberdineko jendea berari laguntzeko prest dagoela ere ikusten du. Ikasleek eta senitartekoez pixkana egiten dute bat ikaskuntzako proiektu komunitarioarekin eta, aldi berean, irtenbideak bilatzen dira eta egoera gatazkatsuak eta diziplina-arazoak murriztu egiten dira. Helburu hauek ezin dira pertsona adituek soilik gidatutako dinamiken bidez lortu, komunitate osoaren laguntza eta lankidetzak gogotsua behar da.

Ikasleekin elkarrekintzan diharduten pertsona guztiek, beren ikaskideek barne, ikaskuntzan eragina dute eta eragin hori optimizatzeko ahalmena dute. Habermas-ek (1987), bere komunikazio-ekintzaren teorian garatzen duen komunikazio-gaitasunaren ikuskeraren bidez, frogatu egiten du pertsona guztiak hizkuntzarako eta ekintzarako gauza garena. Beck-ek (1998), bere gogoetazko modernizazioaren bitartez, frogatu egiten du gure gizartean eta gure banakotasunean gero eta garrantzitsuagoa dela gogoeta. Freirek (1997) eta CREAREN ikerketek (CREA, 2000) erakusten dutenez, gogoetazko elkarriketa horrek ikaskuntza tradizionalak edo prozesuaren banakotasunak baino ikaskuntza instrumental gehiago eta elkartasun gehiago eragiten du.

Ikuskera konstruktibistak ikaskuntzarako oso garrantzitsuak diren aurretiazko ezagutzak nabarmendu zituen. Dena den, komunikazio-ikuskerak argi uzten du elkarrekintzak garrantzitsuagoak direla eta, gainera, aurretiazko ezagutzak elkarreraginez eraiki eta

aldatzen direla. Ikuskera konstruktibistan oinarritzen den esanahi-ikaskuntzak maiz ikaskuntza banakakoa dela nabarmendu izan du. Ikaskuntza dialogikoaren komunikazio-ikuskerak, berriz, ikaskuntza elkarreragilea dela argitu du, hau da, banakakoa eta, aldi berean, kolektiboa dela erakutsi du. Hori dela-eta, ikaskuntza dialogikoa oso ekintza kolektiboetan oinarritzen da, parekotik parekorako ikaskuntzan edota parekoen arteko tutoretzan.

Azokan lan egiteko edo ile-apainketan jarduteko beharrezkoa ez delako ikasi nahi ez duen talde batekin topo egiten dugunean, gure lehentasuna ez da izango ikuspegi horretara eraman dituzten aurretiazko kontzeptuak edo jakintzak zein diren aztertzea; beren iguripenak areagotu beharko ditugu eta beren elkarrekintzak aldatu behar ditugu. Adibidez, DBH ikasten duen eta pedagogoa izan nahi duen nerabe ijito batekin ordubetez hitz egitea nahikoa izango da bere iguripenak areago daitezen.

Halaber, talde elkarreragile batean neska bat beti atzean geratzen dela ikusten badugu, gure lehentasuna ez da izango egoera horretara aurretiazko zer jakintzek eraman duten jakitea, bere prozesua aldatzea baizik. Bere prozesua aldatzeko elkarrekintza berriak bultzatuko dira, hala nola, irakasleak beste neska bati gaia azal diezaion eta lagun diezaion esan ahal izango dio. Horrela gehitu egingo da neska horren ikaskuntza instrumentala, baita taldean izango duen onarpena ere. Edozein irakaslerentzat edo hezitzailerentzat zirrargarria eta motibatzailea da neska-mutil “aurreratu” batek lehen lelotzat hartzen zuen ikaskideari nola laguntzen dion eta laguntzeko zeregina eman zaionetik bere babesle nola bihurtzen den ikustea.

6. Ikaskuntza dialogikoaren printzipioak

Ikaskuntza dialogikoarako oinarritzko teoriak eta praktikak zazpi printzipiotan laburbil daitezke eta Ikaskuntza Komunitate bakoitzean zehaztaperen desberdina duten arren, zehaztaperen hauek guztietan hartu beharko dira aintzat eta aztertu beharko dira:

1. *Berdintasunezko elkarrizketa*: ekarpenak beren argudioen arabera baloratzen direnean eta egiten dituenaren botere-posizioa aintzat hartzen ez denean esan dezakegu elkarrizketa berdintasunezkoa dela. Lan-batzordeen barruan senitartekoak, ikasleak eta boluntarioak barne hartu dituzten ikastetxeetan areagotu egiten da ikasleen eta hezkuntza-eragile guztien gogoeta, motibazioa eta ikaskuntza. Ikastetxe batean ekarpenak baloratzerakoan ekarpena egiten duenaren posizioa kontuan izaten denean, gogoeta gutxiago egiten da eta gutxiago ikasten da.

Ez dugu inoiz abiapuntutzat hartu behar senitartekoek beren seme-alaben ikaskuntzagatik motibaziorik ez dutela eta horregatik ez dutela parte hartzen. Ez dugu nahastu behar eskolan parte hartzeko motibazioa eta beren seme-alabei onena emateko motibazioa. Senitartekoek parte ez hartzearen arrazoia horretarako espaziorik ez eskaintzearen ondorioa izan daitekeela pentsatu behar da. Parte hartzeko espazio horretan senitartekoek beren seme-alaben hezkuntzari dagozkion alderdi guztiei buruz gogoeta egin eta iritziak eman ahal izango dituzte. Iritzi hauek emateko behar-beharrezkoa izango da eragile guztiak maila berean kokatzea eta edozein gogoeta baliagarritzat hartzea. Hezkuntza-eragile guztien motibazioaren ikuspuntutik, pertsona bakoitzak bere parte-hartzea aintzat hartuko den iguripena edukitzea izango da funtsezkoa.

Batzar batean gurasoek “klastroak hala dela esan du eta hala izango da” esaten badute, gogoeta gutxi egiten da eta parte hartzeko motibazio gutxi dago. Batzar edo batzorde batean hezkuntza-eragileek hobe argudiatzen dena soilik onartuko dela baldin badakite, jende guztiak ahalegin berezia egingo du proposamen burutsuak egiteko. Senitartekoek, klastroak aurretik erabaki duena berrestez gain, beren erabakiak lantzea ere joaten direla ikusiko dute. Honek senitartekoek parte hartu nahi izatea eragingo du.

2. *Kultur Adimena*: XX. mendearen erdialdera arte adimena gaur egun adimen akademiko deitzen denarekin identifikatzen zen, hau da, unibertsitatean ikasi dugunen berezko adimenarekin. Aitzitik, azken hamarkadetan, pribilegiatuak ez diren gizartetaldeen berezkoak izateagatik adimentzat hartzen ez ziren beste trebetasun batzuk ere adimentzat hartzen dira; horrela adimen praktikoen kontzeptua sortu da, esate baterako. Komunikazio-arrazionaltasunean oinarritzen den adimenaren kontzeptuak mota desberdinetako giza elkarrekintzak barne hartzen ditu eta, esate baterako, familiak eskolako batzar batera deitzeko modu bakarra ez dagoela jakinarazten digu. Kultura desberdinetan komunikazio-bide desberdinak eta kode desberdinak erabiltzen dira eta ez daude kode hauek ezagutzen dituzten adituak, kultura jakin batekoak diren pertsonak baizik. Horrenbestez, ijito-familiekin batzar bat antolatu nahi badugu, adibidez, ez da nahikoa izango batzarraren egunari eta orduari buruzko informazio-papera bidaltzea, gure kulturen egingo genukeen moduan; agian, ijito baten laguntzarekin eta beti bere irizpideen arabera, familia horiek dauden lekura joan beharko genuke familiekin zuzenean hitz egitera.

3. *Aldaketak*: kultur testuingurua aldatzen badugu soilik lortuko dugu eskolaporrota gainditzea. Irakaskuntzak ez du, beraz, testuinguru honetara egokitu behar, aldatu egin behar du. Freirek (1997) dioenez pertsonak ez gara egokitzapen-izaki aldaketa-izaki baizik. Vygotsky-k (1979) ere garapen kognitiboa kultura eta gizartearen testuinguruaren aldaketarekin lotzen zuen –eta ez honekiko egokitzapenarekin–.

Neska-mutil bati ikastetxeak eskaintzen dizkion materialak bere errealitatearekin loturarik ez dutelako gustatzen ez zaizkionean, ez dugu pentsatu behar ikasle horrek ezin izango duela inoiz material horietan ematen den ikaskuntza lortu; materialak berriro egin beharko dira eta material hauetan eskuratu behar diren ikaskuntzak ez ezik, ikasle horien berezko testuinguruak (gaiak, egoerak...) ere jaso beharko dira. Hala, beren errealitatea ere eskolaren parte dela eta beren errealitateetik ere unibertsitatara heltzeko behar den guztia ikas daitekeela antzemango dute.

4. *Dimentsio Instrumentala*: askotan gaizki interpretatu den arren, ikaskuntza dialogikoa eta ikaskuntza instrumentala bateragarriak dira; are gehiago, ikaskuntza instrumentala ezinbesteko duen dimentsioetako bat da. Familiak, komunitateak eta ikasleek elkarrizketan oinarritzen den eskolarekin bat egingo badute, elkarrizketa hori baliagarria izan beharko zaie gizarte-bazterketa gainditzea ahalbidetuko dieten ikaskuntzak egiteko, besteak beste.

Ez da harrizkoa familia askok beren seme-alabei eskolara joateko gogor ez egitea, marrazten edota zurezko maketak egiten ikasten dutela besterik ez baitute ikusten. Beren seme-alabek ondo irakurtzen jakin dezaten, ingelesa ikas dezaten eta beren kabuz moldatzeko beharrezko guztia ikas dezaten nahi dute. Izatez, zenbait klastroren helburua askotan neska-mutilak “pertsonak” izatea da, nahiz eta biderkatzen ez jakin. Ikaskuntza dialogikoa ez du onartuko ikasleak “pertsonak” izatea eta biderkatzen ez

jakitea, edota biderkatzen jakitea eta “pertsona” ez izatea. Ikaskuntza Komunitateetan neska-mutilek hobeto ikasten dute matematika elkartasunezko elkarrekintzen bitartez. Talde elkarreragileetan, esate baterako, dinamika berean bi garapen gertatzen dira: batetik, ikaskuntza instrumentala eta, bestetik, elkartasunez ikastea eta taldeen heterogenotasunaren ondoriozko aniztasuna errespetatzea. Neska-mutil batek bere ikaskideari batuketa luze bat nola egiten den azaltzen dionean, biek –azalpenak ematen dituenak eta entzuten duenak– hobeto ikasten dute matematika eta, horrez gain, elkartasunez partekatzen dute ikaskuntza hori.

5. *Zentzua sortzea*: gure gizartearen burokratizazioa gure bizi-esparru guztietara hedatu da; biztanleria gero eta urrunago dago bere errealitatea osatzen duen horretatik eta horrek zentzua galtzea dakar. Informazioaren gizartean krisialdi hau gainditzeko sinetsi egin beharko da amets egiteko aukera dagoela eta jakin egin beharko da gure existentziari zentzua eman diezaiokegula. Horretarako, hezkuntzak berdintasunezko elkarriketa bultzatu eta sustatu behar du; neska-mutilek benetan bizi behar dute zentzua, mezuak eta esanahiak adostasunaren bitartez sortzeko aukera dagoela eta horretarako ekarpen guztiak berdin baloratuko direla. Pertsonen arteko elkarrekintza pertsonak beraiek zuzentzen dutenean berriro sortzen da zentzua.

Iguripen handien ondorioz, ikasteari eta eskolara joateari zentzua aurkitzen ez zioten neska-mutilek –“maletak betetzeko ez da libururik behar”– orain ikasi egin nahi dute; jakin badakite beraiek ere beren errealitatea alda dezaketela baldin eta ondo baloratutako sendagile, pedagogo, edo ile-apaintzaile bihurtzen badira; horretarako, ordea, ikasi egin behar da. Hau gertatzeko garrantzi handikoa da beharrezko erreferenteak bilduko dituen testuingurua sortzea. Neska-mutil bati handia izaterakoan zer izan nahi duen galdetzen diozunean, segur aski, hurbilen duen lanbidea aipatuko du, bere amarena, anaia nagusiarena edo aitonaarena esate baterako. Gizarte eta kulturaren arloko testuingurua aldatu nahi badugu erreferente horiek aldatu beharko dira: ama etxeoandrea bada, neskak etxeoandre izan nahi izango du; aitzitik, pedagogo bada, bere alabak ere iguripen hori izango du (amak ere horixe bera nahi izango du).

Auzo marjinal batean dagoen ikastetxe bateko seigarren mailako gela batean batzar bat antolatu da eta bertan ikasleei zer etorkizun espero dute galdetu zaie. Hasiera batean gehiengoak saltzaile, ile-apaintzaile, igeltsero, etxeoandre eta abar izan nahi duela esan du. Inork ez du unibertsitateko ikasketarik aipatu; alabaina, ikasgela horretan bertan unibertsitatean ikasten ari diren beren kultura bereko edo auzo marjinal bateko beste pertsona batzuk sartzen baditugu, ordubete baino lehen gelako ikasle hauen iguripenak aldatu egingo dira.

6. *Elkartasuna*: berdintasunezkoa izan nahi duen eta pertsona guztiei aukera berak eskaini nahi dizkien edozein hezkuntza-praktika elkartasunean oinarritu beharko du. Elkartasun hori oinarritik bertatik eraikitzen da (talde elkarreragiletik, batzorde mistotik) eta komunitatearen eta gizateriaren osotasunera zabaltzen da.

Pertsona boluntario bat neska-mutil bati “g” letra nola egin behar duen azaltzen saiatzen ari zen, baina ez zuen neska-mutilak letra hori idatz zezan lortzen. Ondoren, zur eta lur geratu zen, bere taldeko beste neska-mutil batek “g” forma osatzen zuten puntuak marraztu zituen eta bere gelakideari puntuak lapitzaz lotu behar zituela eta, hala, letra hori ondo idazteko bere lapitza nola mugitu behar zuen ikasiko zuela azaldu zion. Neska-mutil batek irakurtzen, idazten, batuketak egiten edo zatiketak egiten ez

zekielako egiten ziren isekak desagertu egin dira talde elkarreragileetan, guztiek ahalik eta gehien ikas dezaten lortzeko elkartasun eta adiskidetasun froga bihurtu dira talde hauek.

7. *Desberdintasunen berdintasuna*: desberdintasunen berdintasunak benetako berdintasuna lortzea du helburu eta pertsona orok desberdin bizitzeko duten eskubidea eta, aldi berean, hautatzeko eta burutzeko aukera berdina izateko duten eskubidea barne hartzen du.

Neska ijito batek askotan eskolara joaten ez zela esan zigun; izan ere, bere irakasleak beti esaten omen die ijitoak alferrak direla eta neskak ez direla institutura joango, beren ama, lehenusina edo ahizpetako bakar batek ere egin ez duelako. Gisa honetako adierazpenekin neska-mutil hauen iguripenak areagotzeko beharrezko aldaketak sustatu beharrean, eskolara ez joatea justifikatzen eta sustatzen ari da. Dauden desberdintasunak legitimotzat jotzen ari dira eta jende guztiak bere etorkizuna hautatzeko eta erabakitzeo aukerarik ez duela onartzen ari da. Zer ulertzen du, ordea, irakasle horrek alfertzat? Neska honen aitak eta bere neba zaharrenak egun osoa ematen dute igeltsero-lanetan, eta bere amak eta izebek, etxeko lanez gain, obra bateko zaintzaile-lanak egiten dituzte. Gauz kalean beren senitartekoekin hitz egiten eta abesten aritzen direlako esaten al du alferrak direla?

Desberdintasunen arteko benetako berdintasunak pertsonen bizimodu desberdinak, kultura desberdinak eta abar errespetatzen ditu eta, aldi berean, pertsonen aukera berdina emango dizkien berdintasunezko hezkuntza eskatzen eta eskaintzen du.

II EUSKADIKO IKASKUNTZA-KOMUNITATEAK

Ikaskuntza Komunitateak proiektua hezkuntza-praktika aldatzeko proiektu bat da, eta aldaketa honen helburua informazioaren gizartearen ondoriozko erronka eta premiei eta gaur egun gertatzen diren gizarte-aldaketei berdintasunez erantzutea da.

Euskadi guztiz murgilduta dago aldaketa-prozesu honetan. Bertako industria tradizionaletako askok zaharkituta geratu gabe aldatzen jakin izan du eta Europako informazioaren gizartearen barruan enpresa lehiakorrek sortu dira (Mondragon, Teknologia Elkartegiak...). Ekonomiaren %55etik gora zerbitzu-sektorekoa da dagoeneko, birmoldatutako industria ere oso erritmo bizian ari da hazten (urtean %2,7 1990 eta 1997), Europaren osotasuneko erritmoaren gainetik. Zeru gorriko Bilbo gogoratzen dugunoi oso arrotza egiten zaigu turistak hiriko edozein txokotan argazkiak egiten ikustea. Izan ere, bidaiarien gehikuntza oso handia izan da eta 1998. urtean 1.393.140 bidaiari izan ziren bertan (1997. urtean baino %27 gehiago).

Aldaketa guztiek ez dute pertsona guztiengan eragin berdina izaten eta adierazitako prozesuez gain gizarte-bazterketako beste prozesu batzuk ere antzeman ditugu: lanik ez duten pertsonak –gainera, beren egoera marjinalaren ondorioz edo behar besteko prestakuntza akademiko edo profesionala ez izatearen ondorioz, lana lortzeko zailtasuna dutenak–, oinarrizko titulua lortu aurretik eskola-porrot orokorra edo eskola-uzte orokorra duten gizarte-mailak edo gizarte-taldeak, marjinazio-egoeran dauden gutxiengo etnikoak edo kulturalak... Honez gain, gizartearen zein eskolaren esparruan egoera gatazkatsuak areagotzen direla ikus dezakegu.

Europar Batasunak egoera hau gainditzeko eta kulturantzeko Europako gizarte berean pertsona eta kolektibo guztiak integra daitezen lortzeko ahaleginak areagotu egin ditu. Horretarako, pertsona eta kolektibo guztiak desberdintasuneko eta marjinazioko egoera horiek gainditzeko subjektu aktibo bihurtu daitezkeen lortu behar da (Delors, 1996).

Hezkuntza funtsezko elementua da prozesu honetan. Pertsona guztiek hainbat urte eman behar dituzte hezkuntza-sistemaren barruan eta denbora horretan gizarte berriak eskatzen dituen gaitasunak eskuratu beharko dituzte, informazioa aukeratzeko eta prozesatzeko gaitasuna eskuratu beharko dute. Hezkuntza ere sozializatorako funtsezko espazioa da, pertsona guztiek, hezkuntzaren bidez, pertsona, talde eta herrialde anitz izango dituen berdintasuneko Europar Batasun baketsua eraikitzeko funtsezko gaitasuna garatu ahal izango dute: elkarriketa.

Industria-gizarteak bere gizarterako sortu duen hezkuntza-sistema unibertsala birmoldatu egin beharko da, pertsona guztiak hornitu beharko dira informazioaren gizarteak eskatzen dituen gaitasunez. Hezkuntza-sistema honek aldaketaren aurrean hain berezkoa duen makaltasuna eta erresistentzia ahalik eta azkarren gainditu beharko du eta nazioarteko komunitate zientifikoak ziurtatzen dituen praktika eta teoriak bermatutako aldaketa-proposamenetara zabaldu beharko da. Ontziolak desagertu ziren lekuan orain Guggenheim museoa dugu; edukien transmisioan oinarritzen ziren eskola tradizionalak genituen lekuan orain elkartasuneko ikasgela adimendunak eraiki behar ditugu. Ikasgela hauetan askotariko egoeretako pertsonen informazio garrantzitsua aukeratzeko eta prozesatzeko ikasi ahal izango dute eta elkarriketa nagusi den giro batean egingo dute, arraza, klase, sexu edo adinak eragindako bazterketak gaindituta.

Orientazioa ez da egokitzapena, testuinguruaren aldaketa baizik, Vygotsky-k (1979) proposatzen zuen moduan eta gaur egun gehien aipatzen diren gizarte-teoriek (Habermas, 1987, 1998) eta hezkuntza-teoriek (Freire, 1997; Bruner 1997) proposatzen duten moduan.

Aniztasunaren aberastasuna edo alde positiboa izan beharko da kontuan, aniztasuna hartu beharko da abiapuntutzat; alabaina, desberdintasuna sortzen duen guztia aldatu beharko da, guztiok aberats gaitzeen saiatuz.

Euskal hezkuntza-sisteman XXI. mendearen premietara egokitzeko aldaketak egiten ari dira: informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea; Interneteko sarrera zabaltzea; hizkuntzen eta beste arlo instrumentalen ikaskuntzari eta tratamendu integratuari lehentasuna ematea; eskola-porrotari erantzuteko estrategiak eta programak garatzea; eta ikastetxeetan bizikidetasuna hobetzeko proiektuak bideratzea.

Esparru honen barruan, Ikaskuntza Komunitateen proiektua XXI. mendeko hezkuntzaren premia eta erronka hauei erantzuteko sortu da. Desberdintasunak gainditzearen esparruan arrakasta izan duten esperientzien azterketa du abiapuntu eta esperientzia hauek ondokoak dira:

- Stanford University-ko eskola bizkortuak (Levin, 1987)
- John Hopkins University-ko guztientzako arrakasta (Slavin, 1988)
- Yale University-ko eskola-garapenerako programa (Comer, 1980)

Hezkuntza-arloko esku-hartzeak eraginkorra izan beharko du biztanleria osoarentzat eta, batez ere, desberdintasun-egoeran bizi den biztanleriarentzat.

Horretarako, *eskolak ezin du bakarrik jardun*. Batetik, gizarte-egoerak gero eta konplexuagoak dira eta gero eta eskakizun handiagoak egiten zaizkio. Bestetik, komunikazio-ikuskerak erakusten digun moduan, ikaskuntza ez da soilik ikasgelan gertatzen denaren arabera izango, neska-mutilak bizi dituen testuinguru desberdinen arteko korrelazioak ere eragin nabarmena izango du (familia, auzoa, ikastetxea...). Hori dela-eta, ez da nahikoa izango –ezinbestekoa den arren– irakasteko eta ikasteko metodo egokiagoak edo edukien aukeraketa ona eskainiko duten aldaketa metodologikoak egitea. Gizartearen inplikazioa funtsezkoa izango da; izatez, inplikazio honek eskolako lanari balio berria emango dio ikasleen eta senitartekoen ikuspegitik eta, gainera, ikasleen ikaskuntza-prozesuak bizkor daitezen eta ingurunea alda dadin eta aberats dadin bultzatuko du.

1. Proiektuaren ezaugarriak.

Irakaskuntzaren ezinegonaz hainbeste hitz egiten den une honetan, proiektu honek ikasteko eta irakasteko ilusioa piztu nahi du ikastetxe guztietan eta, bereziki, itxaropenik sortzen ez duten ikasleak dituzten ikastetxeetan. Gizarte-maila jakin batzuetan hain porrot-maila handiak azaltzeak kezka handia eragin du. Neska-mutil guztiek eskolan arrakasta izan dezaten nahi dugu guztiok; ikastetxeek kalitatezko hezkuntza eskaini dezaten nahi dugu; irakasleak gaur egungo premiei erantzunez irakasteko gai izan daitezen eta lan honek gizartearen aintzatespena izan dezan nahi dugu; familiak eta komunitateak beren burua seme-alaben hezkuntza integralaren partaidetzat har dezaten eta guztion artean elkarrekin bizitzen ikas dezagun lortu nahi dugu.

Ikuspegi honetatik, eskolak zeregin nagusia du ingurunearen aldaketan. Laugarren sektoreko edo informazioaren sektoreko partaide gisa eskolak **guztiek beharrezko gaitasunak gara ditzaten eta tresnak eskura ditzaten** lan egin beharko du. Horretarako ezinbestekoa izango da, lehentxeago aditzera eman dugu moduan, komunitateko eragile guztien parte-hartze kritikoa eta aktiboa sustatzea.

Nahi dugun eskola diseinatzeke eta diskurtso bikoitzak saihesteko *gure seme-alabentzat nahi genukeen eskola egitea* proposatzen da. Diseinatu nahi den eskola-motari buruz irakasleek eta beste eragileek egiten duten gogoetarako erreferentzia guztiok gure seme-alabentzat nahi dugun eskola izango da. Hala, bi hezkuntza-mota azter daitezten saihestu nahi da, hau da, norberarenarentzako hezkuntza-mota –guretzat garrantzitsuena den horretan oinarritzen den hezkuntza– eta gainerakoentzako hezkuntza-mota –hainbat planteamendu ideologiko eta pedagogikoen edo errealitatearen azalpenen arabera–.

Komunitatearen inplikazioa benetakoa izan dadin, funtsezko elementuetako bat komunitateko kide guztiek **helburu berak izatea** izango da, baita ahalegin guztiak norabide berean bideratzea ere, *pertsona guztiak elkarrekin helburu bera lortzeko*.

Parte-hartzea da helburuak parteka daitezten lortzeko modurik onena; proiektu bereko irakasleen parte-hartzea ez ezik, familia, ikasle, elkarte, irakasleak ez diren langile, boluntario eta abarren parte-hartzea ere. Horrenbestez, nahi dugun eskola ez dute irakasleek soilik diseinatuko, komunitatearen gainerakoek ere parte hartuko dute. Parte-hartze honek ondokoan izango du eragina:

- * Ikastetxe, ikaskuntza eta abarrei buruzko erabakietan. Lana kudeatzeko organo berriak sortu dira, hala nola, zeregin zehatzetan oinarritzen diren batzorde mistoak.
- * Ikasgela edo ikastetxe barruko lankidetzan, bertan irakasleez gain beste heldu batzuk ere jardungo dute.
- * Familiekin eta eragileekin lankidetzan jardutean. Lankidetzak hau familia eta eragile hauen inguruetik edo ingurunean (etxean, kalean...) bideratu ahal izango da, betiere irakasleen koordinaziopean.

Konpromiso eta negoziatorako maila handia duten hainbat kulturatako pertsonen parte-hartzea berdintasuneko elkarrizketaren bidez areagotzen den heinean eta desberdintasuna edukietan, metodologian eta abar berdintasun-mailan errespetatzen eta barne hartzen den neurrian, arituko gara benetako **kulturarteko hezkuntza** sustatzen.

Ikaskuntza Komunitateetan ikasleei, irakasleei, familiei eta komunitateari dagokien **iguripen handiko** giroa sortzen da. Guztiok gara gure gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko gauza; guztiok ahalmen eta talentu ugari dugu; alabaina, komunitatean eragina izan dezaten bideratu beharko ditugu.

Ikasle guztiek normalean aplikatzen dutena baino ahalmen handiagoa dute. Konpentsaziozko planteamendu batetik pertsona guztiek komunikatorako eta ekintzarako ditugun gaitasunetan oinarritzen den planteamendu aberasgarri batera pasatzen da. Defizitean oinarritu baino gehiago, aukeretan oinarritzen da. Gutxieneko helburuak finkatu beharrean gehieneko helburuak finkatzen dira eta helburu hauek lortzeko baliabide guztiak jartzen dira eskura.

Orokorrean, irakasleak, tradizionalagoak edo aurrerakoiagoak izanik ere, bat datoz

interes komun batean: ikasleek arrakasta izan dezatela, ikas dezatela eta presta daitezela. Premisa honetan oinarrিতuta eta pertsona bakoitzaren interesak edo gaitasunak kontuan izanik, zereginik egokiena esleitzen zaio honi.

Familia guztiek, ikastetxera gutxien hurbiltzen direnek barne, onena nahi dute beren seme-alabentzat. Hauxe da, hain zuzen ere, familia hauekin izan beharreko elkarrizketaren abiapuntua. Formula berriak bilatzen dira elkarrizketa hau bideratzeko: batzordeak, kafea hartzeko garaia, solasaldia... Ez dugu pentsatu behar senitartekoak “bertara etortzen ez badira, ez daude motibatuta”, formularekin asmatu ez dugula pentsatu beharko dugu.

Ikaskuntza da garrantzitsuena. Guztien artean formula alternatiboak bilatzen dira neska-mutil guztiek beren gaitasunak ahalik eta gehien gara ahal izan ditzaten. Ikasleei ahalegina eskatzen zaie, ikaskuntza suspertuko duen ingurunea sustatzen da, ikasgelan eta ikastetxean ahalik eta lan-denborarik gehien bidera dadin bultzatzen da, baita eskola-ordutegia zabaldua ere. Horretarako, komunitatearen, senitartekoen eta boluntarioen parte-hartzea beharrezkoa da, bai ikasgelan bertan –ikasleek denbora osoan laguntza izan dezaten–, bai eskolaz kanpoko ordutegian. Askotariko jarduera aberasgarriak diseinatzen dira eta bertan ikaskuntza sendoak, garrantzitsuak eta oinarrizkoak planeatzen dira, hala nola, informazioa prozesatzea eta aukeratzea, talde-lana, proiektuak, hizkuntzak... Metodologiarik onenak, hezkuntza-praktikarik onenak, baliabiderik onenak eskaini nahi dira: talde elkarreragileak, Interneterako konexioak... Ikaskuntza-ordutegia zabaldu egiten da eta, horretarako, tutoretzapean dauden liburutegiak antolatzen dira –bertan irakasleak, senitartekoak eta boluntarioak izango dira–, eskolako jantokia hezkuntza-jantoki bihurtzen da, ikastetxeko ateak lehenago zabaltzen dira goizean, eta abar.

Gainera, ez da irakasleentzako ***prestakuntza*** soilik programatzen, senitartekoei, boluntarioei eta gainerako eragileei ere eskatzen duten prestakuntza ematen zaie eta eginbehar horretarako ikastetxeko instalazioak eta baliabideak erabil daitezke (informatikako gelak, literatur solasaldietarako aretoa, alfabetizatzeke gela...).

2. Ikaskuntza Komunitateak: hezkuntza-arloko erronkak eta premiak

Ikaskuntza Komunitateen gisako proiektu batek gaur egun planteatzen diren erronka eta premia handiei erantzun nahi die. Erronka eta premia hauek ondokoetan laburbil daitezke:

Desberdintasunak gainditzea.

Ezinbestekoa da hezkuntza-berdintasunaren aldeko apustua; pertsona askok bizi dituzten desberdintasun-egoerei eta gizarte-bazterketako prozesuei aurre egin behar zaie eta, hala, akademikoak ez diren familietako ikasleen porroterako joera alderantzikatu behar da.

Pertsona guztientzako kalitatezko hezkuntza

Eskola funtsezkoa da informazioaren gizarteko egoera berriei aurre egiteko aukera emango diguten tresnak eta gaitasunak garatzeko.

Gaitasun hauek ondokoak dira:

- Informazioa prozesatzea, aukeratzea eta aplikatzea edo sortzea.
- Malgutasuna, talde-lana, erabakiak hartzea, autonomia...

Bizikidetasuna hobetzea.

Euskadin berdintasunezko eta elkartasunezko gizarte kulturantza eraikitzearen pertsona guztiek elkarrizketa-gaitasuna eta kritika-gaitasuna garatzeko aukera izan behar dute.

Eskola elkarrizketa-gaitasun hori garatzeko funtsezko sozializazio espazio bat da. Talde desberdinen edota kultura desberdinen arteko elkarrizketarako espazio bat da eta hau komunitatea osatzen duten kideen arteko elkarrizketaren bidez garatuko da: ikasleak, irakasleak, familiak, irakasleak ez diren langileak, elkarteak, hezitzaileak...

2.1. Desberdintasunak gainditzea

Gizarte-bazterketaren arazoak hezkuntzaren esparrua gainditzen badu ere, eskola gizarte-bazterketa iraunaraz dezakeen elementua izan daiteke, ingurune kaltetuetako ikasleen eskola-porrotaren bidez; era berean, gizarte-bazterketa gainditzeko elementua ere izan daiteke. Horretarako, ez da nahikoa ikasleengan soilik oinarritzea –orain arteko saio guztietan egin den bezalaxe–, gainerako testuinguruetan ere eragin behar da.

Hezkuntza-sistemak dualizaziorako joera gainditu beharko du. Aniztasun horien atzean gizarte-desberdintasuna dagoela ahaztu egiten duten aniztasuna lantzeko planteamenduetarako joera edota konpentsaziozko planteamenduetarako joera ere gainditu beharko du. Ildo honetan, desberdintasun hori eusten duten ingurunerako egokitzapen-proposamenak saihestu beharko dira. Aurreko kapituluan aditzera eman dugun bezalaxe, dualizazioaren ondorioz bi motatako ikastetxerekin egin dezakegu topo: batetik, gizartean baloratzen diren gaitasunak eta ahalegina, gehiago edo gutxiago, lantzen dituzten ikastetxeekin –ikasleak goi-mailako ikasketak egitera bideratzen dituzten ikastetxeekin–; eta, bestetik, ikasleak edo ikasleen zati bat “bere ingurunera” egokitzeko beharrezko baliabideak, gutxieneko eduki batzuk eta bizikidetasuneko ohiturak ikastera bideratzen dituzten ikastetxeekin.

Ikastetxe gehienak ez daude ez mutur batean ez bestean, ikastetxe gehienetan bi joerak biltzen dira. Ikasleen zati batek orokorrean diseinatuta dagoen prozesua gauzatzen du eta beste zatiarentzat –atzeratzen ari direnentzat alegia– titulua lortzeko aukeraz urruntzen dituzten ibilbideak diseinatzen dira “naturaltasunez”, gehienetan asmorik onenaz. Baliabide hauek ondokoak dira: inolako ezintasunik ez duten ikasleentzat curriculum-egokitzapen esanguratsuak egiteko proposamenak; ikasgelatik ateratzea,

zenbait irakasgaitan laguntza ematearren; zailtasun gehien dituztenekin bereizitako taldeak osatzea, curriculumaren eduki garrantzitsuak baztertuz... Kasu hauetan pertsona hauek hezkuntza-maila jakin batzuk lortzeko aukerarik eta interesik ez dutela aintzat hartzen duen ideia hartzen da abiapuntu. Hala, ia konturatu gabe, diskurtso bikoitzak sortzen dira: gainerakoen seme-alabentzat hezkuntza jakin bat antola dezakegu eta gure seme-alabentzat beste mota bateko hezkuntza ziurta dezakegu.

Ez dugu testuingururako egokitzapena proposatzen, testuingurua aldatzea baizik, Vygotsky-k (1979) proposatzen zuen moduan eta gizarte-teoriek (Habermas, 1987, 1998) eta hezkuntza-teoriek (Freire, 1997) proposatzen duten moduan. Aniztasunaren aberastasuna edo alde positiboa izan beharko da kontuan, aniztasuna hartu beharko da abiapuntutzat; alabaina, desberdintasuna sortzen duen guztia aldatu beharko da, guztiok aberats gaitezten saiatuz.

Proiektu honetatik, ingurune kaltetuetako ikasleekin esku hartzerakoan ez da hezkuntza-eredu desberdina planteatzen, konpentsaziozko hezkuntzan gertatzen den moduan; ikasle guztiei hezkuntzan ezagutzen diren elementurik onenak eskaini nahi zaizkie eta baliabideak ahalik eta gehien optimizatuko dira. Horrenbestez, berrikuntza bat planteatzerakoan, Interneti dagokion berrikuntza bat esate baterako, ikasgelan eta ikastetxean gertatzen dena kontuan hartzeaz gain, ikasleek ikasgelaz kanpo dituzten baliabideak ere hartu beharko dira aintzat. Izan ere, gerta daiteke ikasle batzuek jada gai horri buruz proposatzen duguna edo gehiago jakitea; beste batzuek ikasgelan planteatzen dena indartzeko baliabideak izan ditzakete familian (etxean ordenagailua eduki dezakete, lagun diezaiokeen eta eskolan lantzen dena indartu diezaiokeen pertsona bat egon daiteke); eta, azkenik, beste batzuek ez dute laguntzarako baliabide materialik, ez eta pertsonalik ere.

Funtsezkoa izango da errealitate hauek guztiak kontuan hartzea, bai ikasgelako jarduera diseinatzeko eta elkarrekintzak sustatzeko, bai desberdintasun-egoeran dauden ikasleek gainerakoek eskola-orduez kanpo dituzten baliabide berdinak edukitzeko modua izan dezaten bilatzeko.

Ikaskuntza Komunitateetan errealitate hau aintzat hartu da eta ikastetxeak denbora gehiagoz zabaltzen dira. Hizkuntzekin eta teknologia berriekin lotzen diren edukiek dute lehentasuna; eskola-denbora osoa ikaskuntza-denbora izan dadin bultzatzen da eta, horretarako, beharrezkoa bada ikasgelan heldu bat baino gehiago egon daiteke. Eskola-jantokiko orduetan eta eskolaz kanpoko jardueretan printzipio berei jarraituko zaie eta denbora-tarte hauek ikasteko denbora bihurtzen dira. Familiekin egiten da lan, baliabide materialak eta hezkuntza-baliabideak ematen zaizkie, beren laguntza hartzen da aintzat eta senitartekoei informatika-gela, besteak beste, zabaldu egiten zaie, baita eskola-orduez kanpo ikasleentzako edo senitartekoentzako laguntza bidera dezaketen beste profesional batzuei edo boluntarioei ere...

Gogoetak, elkarrizketak eta eragile guztien parte-hartzeak elkarri aberasten gaitu, prestatu egiten gaitu eta, halaber, elkartasun-sareak sortzen ditu komunitatean. Irakasleak aberastu egiten dira, ezagutzen ez zituen elementuak ezagutzen ditu eta honek aurreiritziak eta iguripen negatiboak gainditzen laguntzen dio. Gainera, segurutzat ematen zituen gai buruz gogoeta egin beharko du, gai hauek azaldu eta argudiatu beharko baititu. Familiei ere aberasgarria zaie, hezkuntza-prozesuen gaineko ezagutzak areagotu egiten dira, baita hezkuntza-harremanei buruzkoak eta ikaskuntza

instrumentalaren edukiei eta curriculumeko beste edukiei buruzkoak ere. Hala, senitartekoen autoestimua gehitu egiten da eta eskolarekin lotzen den guztian inplikatzeko gaitasunarekiko konfiantza sendotu egiten da; era berean, eskola-ingurunearen balorazioa areagotu egiten da. Honen guztiaren ondorioz, familiak beren seme-alaben ikaskuntza-prozesuen aliatu bihurtzen dira. Komunitatea aberastu egiten da, parte-hartzaileen ahalmenak garatu egiten dira eta guztion ahaleginak norabide bakar batera zuzentzen dira; hau guztia komunitatean sortzen diren elkartasun-sareetan islatzen da. Guztion interesa lortzen den heinean lortzen da norberaren interesa.

Izan ere, senitartekoen maila akademikoa gehitu egin da prestakuntzaren bitartez eta informazioaren gizartearekin lotzen diren gaitasunak edo beharrezkotzat jotzen dituzten beste gaitasun batzuk gara ditzakete. Hala, senitartekoen talde batek eskola-graduatu lortzea erabaki dezake; beste batek gaztelania, euskara eta/edo ingelesa ikastea erabaki dezake; beste batzuek edo berberak informatika edo Internet ikas dezakete; literaturari edo gastronomiari buruzko solasaldiak antola ditzakete; hezkuntzari, neska-mutilen zaintzari, bizikidetasunari buruzko hitzaldiak antola ditzakete... Honen eraginez senitartekoen gizarte-egoera hobetu egingo da eta gaur egungo gizartearen erronkei aurre egiteko baliabide pertsonalak eta hezkuntza-baliabideak eskuratuko dituzte; azken finean, testuingurua aberastu egingo da. Askotan prestakuntza-prozesu hauetan esku hartu duten pertsonak beste pertsona batzuk prestatzeaz arduratuko dira edo lankidetzak aktiboagoa eskainiko diete irakasleei ikasgelaren barruan zein kanpoan.

Bestalde, estereotipoak eta iguripen txikiak hausteko baliagarria da –taldearenak berarenak zein gainerakoenak– eta honek beren autoestimua hobetzen eta beste gizartetalde batzuekiko mesfidantza murrizten laguntzen du. Normalean, ikastetxe batean gero eta inguru kaltetuetako ikasle gehiago edo bazterketa-egoeran diren gutxiengoetako ikasle gehiago sartzen badira, gizarte-maila ertaineko ikasleek ikastetxe hori uzten dute, bai gatazkak sortzearen beldurrez, bai ikastetxe horretako ikaskuntzen kalitatea jaistearen beldurrez. Horretan, eragin nabarmena dute aurreiritziek eta elkar ez ezagutzeak. Honek betetzen den iragarpenaren ondorioa izaten du eta ghettoak sortzeko prozesua abiarazten da: kalitatea jaitsiko delakoan, maila ertaineko ikaslea beste ikastetxe batera joaten da eta ikastetxe honetan egoera kaltetuetako ikasleak soilik geratzen dira; ikasleen ikasteko gaitasunari eta interesari dagokienez irakasleek dituzten iguripenak jaitsi egiten dira eta edukiak eta eskakizunak murriztu egiten dira. Familien iguripenak ere txikiak dira, ez dute batere garbi ikusten zertarako balio izango dien beren seme-alabei eskola (ez dute ikusten beren seme-alabei eskola-mailan edota gizarte-mailan arrakasta lortzen laguntzen dienik). Horrenbestez, ikastetxe horren gizarte-balorazioa murriztu egiten da eta gatazka-giroak gora egiten du; gizarte-maila ertainekoek ez dute begi onez ikusten ikastetxe hori eta beren seme-alabak beste ikastetxe batera bidaltzen dituzte.

Gisa honetako prozesu bat ez gertatzeko irakaskuntzaren kalitatea eta elkarbizitza positiboa bermatu beharko da eta hau guztia komunitateak jakin dezan ziurtatu beharko da. Ikastetxe batean ghettoa sortzeko prozesua oso aurreratuta ez badago, Ikaskuntza Komunitateen moduko prozesu baten bidez prozesu hau eten daiteke, batik bat ondoko faktoreen eraginez:

- Familiek eskolan parte hartzen badute, familien arteko elkar ezagutza areagotu egiten da eta murriztu egiten dira aurreiritziak eta mesfidantzak.
- Familiek eskolan parte-hartzen dutenez eta eskolan benetako eragina dutenez gero, argi eta garbi ikusiko dute ikaskuntza-maila ez dela jaitsiko eta beti gehien

baloratzen diren eta beharrezkoak diren elementuak edo baliabideak bilatuko direla eta beraiek hala gerta dadin lagun dezaketela.

- Komunitate, elkarte, hainbat erakunde, enpresa eta abarren lankidetzaren bidez bermatu egingo da eskolak beharrezko baliabide eta laguntzak izango dituela aurrera egiteko, bezero berri izan daitezkeenei eskola bera ezagutarazteko eta, azken finean, guztion ahaleginez lortuko den ikastetxearen irudi hobea sustatzeko.

Ghettoak sortzeko prozesua dagoeneko oso aurreratuta badago, faktore asko hartu beharko dira kontuan eta behar-beharrezkoa izango da erakundeen arteko lankidetzaren Nolanahi ere, ezinbestekoa izango da –nahikoa ez bada ere– zirkulua haustea eta irakaskuntzaren kalitatearen hobekuntza nabarmentzea, betiere komunitateko kide guztiak inplikaturik. Halako arazoak gertatzen direnean askoz ere garrantzitsuagoa da ikastetxera joaten direnen hezkuntza bermatzea eta, aldi berean, biztanleriaren gainerakoarentzat erakargarria izan dadin saiateratzea, ikastetxea ixtea eta ikasleak beste ikastetxe batzuen artean banatzea baino. Frogatuta dago azken erabaki honek ez duela aurreiritziak gaituzten laguntzen eta egoera bera sortarazten duela beste ikastetxe batzuetan. Gainera, mota honetako erabaki batek konnotazio arrazistak izan ditzake.

2.1.1. Gizarte-bazterketa eta hizkuntz tratamendua.

Gutxiengo etnikoetako ikasleek, batez ere eskolako hezkuntza ama-hezkuntza ez duten etorkinek, eta gizarte eta kulturaren arloan kaltetuta dauden inguruneetako ikasleek ikasteko arazoak dituztela pentsatu ohi da. Irakaskuntza elebiduna beste zailtasun bat dela uste da. Ildo honetan, nahikoa jo izan da ikasle hauek gaztelaniaz hitz egiten ikastea eta euskaraz eta ingelesez zertxobait ikastea (horretarako ahalmena badute). Haatik, gizarte-teoriek eta aurreko kapituluan eta honetan azaldutako esperientziek argi eta garbi erakusten dute ikasteko zailtasunak ez daudela ikaslearengan edota bere familiarengan edo ingurunean, zailtasunak ikasleak parte hartzen dueneko testuinguru desberdinen artean ezartzen den erlazioan daude. Baldintza egokiak finkatzen badira, irakaskuntza elebidunak ikasle hauen gaitasunen garapena erraz dezake.

Askotan ezjakintasunagatik edo eskolarekiko iguripen eskasengatik hezkuntza-eskakizunik egiten ez duten familiak ditugu ingurune hauetan. Dena den, hezkuntza-eskakizunik ez egiteak ez du esanahi hezkuntza-eskakizunik ez dutenik, beren seme-alabentzat onena nahi ez dutenik edota beren seme-alabek ondoren gizartean arrakasta izateko aukera emango dien eskola-arrakasta izan dezatela nahi ez dutenik. Izatez, pixka bat sakontzen denean eta familiei informazioa ematen zaienean eta iguripenak zabaltzen zaizkienean –liburu honetan jasotzen diren esperientzietan gertatu den moduan– familia hauek gaineko familien gisako eskakizunak egin dituzte: beren seme-alabek beren testuinguruan ezinbestekoak izango diren hizkuntzak jakitea (gaztelania, euskara eta ingelesa) eta gizarteratzeko eta lan-munduratzeko beharrezko gainerako edukiak ikastea.

Bestetik, ingurune kaltetuetako ikasleei elebidun edo eleaniztun izateko erraztasunik ematen ez bazaie eskolan, gerta daiteke ikasle hauek inoiz ez izatea elebidun edo eleaniztun; izan ere, hezkuntza izan ohi da hori lortzeko izaten duten baliabide bakarra. Hau gizarte elebidun batean gizarte-bazterketako eta lan-bazterketako beste faktoreetako bat izan daiteke.

Ikaskuntza Komunitateen planteamenduetatik eta aditzera emandako printzipioetan oinarriturik (“*ez murriztu aberastu baizik*” eta “*gure seme-alabentzat nahi dugun eskola bera nahi dugu neska-mutil guztientzat*”), ikasle guztien heziketa elebiduna edota eleaniztuna planteatzen da, hezkuntza-berdintasunaren alde egitearren.

2.2. Kalitatea hobetzea

Komunitatearen eragile guztiak eta hauen laguntza-zerbitzuak inplikatzeko direneko etengabeko ikerketa-proiektu honetan neska-mutil guztiek beren gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko formulak bilatzen dira. Horretarako, gobernu-erakunde, gobernuz kanpoko erakunde eta erakunde pribatu guztien adostasuna bilatu beharko da eta hauen guztien indarrak batu behar dira baliabiderik onenak lortzeko eta baliabide hauek optimizatzeko, proiekturik arrakastatsuenak garatzeko eta ikaskuntzarik sendoenak egiteko.

Gaur egungo gizartearen premiei buruzko baterako gogoeta abiapuntu izanik, lehenetsua ematen zaie edo bermatu egiten dira arlo instrumentalak: hizkuntzak (irakurketa, idazketa, komunitateko hizkuntzak eta atzerriko hizkuntzak), matematikak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak. Era berean, pertsonaren garapen integrala bultzatzen duten gaitasunak sustatzen dira, hala nola, komunikazioa, jarrera kritikoa, talde-lana, arteen estetikaren gozamina, literatura, kultura guztietako adierazpen baliotsuak jasotzea... Lankidetzeta, autonomia, erabakiak hartzea, arazoak ebaztea eta ikasten ikastea sendotuko da. Irakasle bat eta ikastalde bat dagoen ikasgela itxiaren egitura bertan behera uzten da; ikaskuntza piztuko duen giroa sortuko duten egitura malguagoak bilatzen dira (adibidez, ikasgelan pertsona heldu gehiagok parte hartuta edo bertan parte hartzen duten pertsona guztientzat zentzua izango duten lan-proiektuak ezarrita).

Ikaskuntza hauek guztiak gutxieneko mailara murriztu beharrean areagotu egingo dira komunitateko baliabide eta pertsona guztien lankidetzeta eta ekarpenekin. Ikaskuntza hauek eta bideratzen diren irtenbideak eta alternatibak etengabe ebaluatzen dira eta ebaluazio hauetan ere komunitate osoak hartzen du parte, betiere hobetzeko aukera bermatuz eta etengabeko aurrerapenak ziurtatuta.

Horrenbestez, edozein motatako ikastetxerako eredu baliagarria dela pentsa daiteke. Hala ere, normalean gertatu ohi denaren aurka, maila kaltetueneko ikasleak dituzten ikastetxeetan garrantzitsuagoa izango da irakatsi eta ikasteko prozesu eta baliabide onak bermatzea, baliabide hauek gehienetan eskolaren bitartez soilik izango baitituzte eskura.

2.3. Bizikidetasuna hobetzea

Gure gizartearen kezketako bat bizikidetasuna da eta, bereziki, ikastetxeetako bizikidetasuna. Gero eta kolektibo eta sektore gehiagok jotzen du elkarrizketa bizikidetasun hori edo elkarbizitza hori lortzeko bidez. Elkarrizketa bakea lortzeko bide gisa; elkarrizketa bakearen, balioen eta jarrera demokratikoen kultura sortzeko bide gisa; azken finean gizartearen eraikitze bide gisa.

Esparru honetan ikasleak, hau da, etorkizuneko hiritarrak elkarrizketarako, adostasunerako eta gatazkak indarkeriarik gabe ebazteko balio eta jarrera demokratikoetan hezi ditzan eskatuko zaio eskolari. Nolanahi ere, eskakizun hauek ez dazoz bat hezkuntza-praktikekin. Irakatsi nahi dena irakasle, argitaletxe eta curriculum-

araudiaren artean erabakitze moduan egituratuta dago; ikasleek eta komunitateek neurri batean edo bestean itxita jasotzen dituzte arauak... Hau da, ez da benetako elkarrizketarako espazio handirik izaten. Erabakiak hartzerakoan, ikasgelako eta ikastetxeko bizitzan ez dago elkarrizketarako leku handirik. Orokorrean, gatazkak ebaztearekin, negoziazioarekin, balio demokratikoekin eta abar lotzen den guztian ez da ia elkarrizketa kontuan hartzen eta, hartzen bada, oso espazio zehatzetan hartzen da, hala nola, tutoretza-orduetan. Askotan teknika zehatzen ikaskuntzaren bidez edo programen bidez garatzen da elkarrizketa: gizarte-trebetasuneko programen bidez, komunikazio-programen bidez, talde-laneko tekniken bidez, gatazkak ebazteko tekniken bidez...

Ildo honetan, elkarrizketa-eza are nabarmenagoa egiten da gutxiengoko kulturetako pertsonaz eta/edo bazterketa-egoeran bizi diren pertsonaz ari garenean. Pertsona hauekin zailtasunak edo gatazkak sortzen direnean, pertsona hauen parte-hartzeaz baliatuta hezkuntza-planteamenduak sendotu beharrean, gehiago nabarmentzen dira laguntza-planteamenduak eta, gainera, kanpotik definitzen da pertsona hauek zer behar duten, hau da, profesionalek definitzen dituzte pertsona hauen premiak. Ez zaie elkarrizketaz mintzatu ahal izateko beharrezko berdintasunezko estatusa edo maila ematen. Hala ere, elkarrizketa da kultura hauek gizartean barne hartzeko bide bakarra, laguntza-planteamenduekin gizarte-bazterketari eutsiko zaio-eta.

Ikaskuntza Komunitateen esperientzia hezkuntzaren esparruan kokatzen den arren, gizartean du eragina, bere helburuen zati bat gizarte-ingurunearekin lotzen baita; izan ere, horren lekuko argia dugu parte-hartzearen eta elkarrizketaren bidez gizarte-ingurunea aldatzeko asmoa.

Esperientzia honen funtsezko elementua elkarrizketa bidezko ikaskuntza denez gero, herritarrak etorkizuneko parte-hartze demokratikorako prestatzen dira eta, honez gain, ikasleak haurtzarotik bizi du esperientzia demokratizatzailea eta elkarrizketaren bidez ikasten du. Hala, zer motatako eskola nahi duten amesteko espazioa ematen zaie; ikasgelara beren esperientzia osoa eta beren kultur jakinduria osoa eraman dezaten sustatzen da, eta hori beraien bidez ez ezik, beren komunitateko pertsonen parte-hartzearen bidez ere egin daiteke. Bestalde, beste ikaskide batzuen eta beste pertsona heldu batzuen esperientzia eta kultur jakinduria ezagutzeko aukera ematen zaie eta beren esperientzia eta kultur jakinduriarekin alderatu ahal izango dute. Ikasteko, garatzeko eta erabakiak hartzeko gaitasunari dagokionez iguripen positiboak dituzte. Zeregin jakin bat egiteko beren ikuspuntuak beste ikaskide batzuen ikuspuntuarekin koordinatzeko eta lankidetzan jarduteko premia antzematen dute; guztien artean gutxieneko arau batzuk finka ditzaten sustatzen da eta, aldi berean, desadostasunerako espazioa ere uzten da; beste batzuekin batera errealitatea irakurtzen eta kritikoki aztertzen ikas dezaten sustatzen da. Horrenbestez, demokraziarako prestatzeaz gain, demokrazia bera bizi dute.

Komunitatearekin ezartzen den elkarrizketaren funtsa ikaskuntza da: ikasleek baliabiderik onenak lortzea, beren gaitasunak ahalik eta gehien garatzea... Aztertzen den edozein gairen ikuskera (euskara, edukirik egokienak, eskolara ez bertaratzea...) aldatu egiten da ikuspegi honetatik eta gutxieneko adostasunetara heltzea errazten da. Guztiontzako helburu honen bidez eraikitzen da hezkuntza-komunitatea eta laguntzen da auzoan, herrian edo hirian komunitate zabalagoa eraikitzen, betiere beste zerbitzu eta eragile batzuekin lankidetzan.

Ikaskuntza Komunitate bat osatzen duten familia, irakaskuntza-talde, elkarte eta abarren artean gertatzen den aniztasunak kulturaren arloan, ideologiaren arloan eta beste arlo batzuetan gizartean dagoen aniztasuna islatzen du. Inor baztertuko ez duen elkarrizketa eraiki nahi da, pertsona guztien parte-hartzea eta lankidetzat bilatzen da. Iguripen eta esperientzia negatiboz betetako urte askoren ondorioz errezeloak izan ditzaketen kolektiborik kaltetuenak barne hartzeko ahalegina egin behar da. Horretarako, lankidetzat-jardueren aukera handia zabaltzen da –banakakoak, kolektiboak,...– eta bere inguruneke pertsona esanguratsuen eta elkarteen parte-hartzea edo lankidetzat bilatzen da. Parte-hartze hau, halaber, ikasleen ikaskuntza eta prestakuntza hobetzeko eta familien, irakasleen eta abarren prestakuntzarako lagungarria da.

Prozesu hau luzea da eta ikastetxe bat ez da egun batetik bestera Ikaskuntza Komunitate bihurtzen. Pertsona guztiek bete beharko dituzte ikaskuntza-prozesuak. Hasiera batean parte-hartzea erraztu behar da eta hau ez da erraza eskolako kulturaren barruan. Bertan hezkuntzaz dakiena irakaslea dela hartzen da aintzat eta parte-hartzeak irakasleen beldurra sortarazten du, norberaren lana auzitan jarriko den beldurra sortzen da. Honekin batera ezinbestekoa izango da lankidetzat-bideak eraikitzea, elkarrizketetan jarduten ikastea eta sortzen diren zailtasunak gainditzea. Gerta daiteke hasiera batean bide hauek batzorde misto bidez sortzea eta ikaskuntza-edukiak aztertu behar direnean elkarrizketa eta benetako lankidetzat eragotziko duen hizkuntza baztertzailerak erabiltzea. Era berean, gerta daiteke familia batzuk bide hauetatik baliatzea beren seme-alabek irakasleren batekin izan dituzten arazo zehatzak planteatzeko, nahiz eta irakasle hori bertan ez egon. Gerta daiteke, beste familia batzuek –gehien parte hartzen dutenek– klaustroarekin bat egitea eta beste batzuen parte-hartzea eragoztekoa... Hobekuntzak aztertu eta planteatzen dituen gogoeta eta ekintzarako prozesuaren bidez praktikatzen den heinean gauzatzen da berdintasunezko elkarrizketaren ikaskuntza.

Ikuspegi honetan aditzera ematen den elkarrizketa ez da teknika bat, demokrazia sakontzeko elementu bat baizik, zentzurik zabalenean. Izan ere, berdintasunezko planteamenduetan oinarritzen da: elkarrizketako subjektu gisa estatus bera dute pertsona eta gizarte-talde guztiak. Elkarrizketa honen bidez eskola testuinguruan kokatzen da eta testuingurua elkartasunez aldatzeko eta eraikitzeko funtsezko eragile bihurtzen da.

3. Eraldaketa-prozesuaren faseak

Ikastetxe bat Ikaskuntza Komunitate bihurtzeko prozesuak hainbat fase ditu. Orain fase hauek labur-labur azalduko ditugu, hurrengo kapituluetan sakontasunez garatuko baitira, deskribapen teorikoaren eta proiektuari hasiera eman zioten ikastetxeetako bakoitzaren esperientziaren bitartez.

3.1. Sentsibilizazio-fasea

Fase honetan familiei, irakasleei, tokiko administrazioari, ikasleei, boluntarioei eta gizarte-eragileei Ikaskuntza Komunitatearen oinarritzko printzipioen berri ematen zaie. Hainbat lan-saio egiten dira eta bertan informazioaren gizarteari buruz eta gizarte honek planteatzen dituen hezkuntza-premiei buruz egiten da gogoeta, hezkuntza-eredu arrakastatsuek eta Ikaskuntza Komunitatearen proiektua aztertzen dira eta, azkenik, ikastetxearen beraren egoerari buruzko hausnarketa egiten da.

3.2. Erabakiak hartzea

Proiektua sakontasunez ezagutu ondoren fase honetan ikastetxeak bere gain hartzen du aldatzeko prozesuari hasiera emateko edo ez emateko konpromisoa. Proiektuan sartzeko erabakia hartzeko klaustroaren gehiengo handi batek proiektua gauzatzearen aldekoa izan beharko du. Eskola Kontseilu gisa ezagutzen den ordezkari gehieneko organoak proiektuan sartzea onartu beharko du, baita senitarteko gehienek ere Guraso Elkarteak antolatutako batzarrean. Auzoko elkarteek ere bultzatu beharko dute proiektua.

3.3. Ametsaren fasea

Une honetan hasten da ikastetxearen benetako aldaketa-zeregina. Fase honetan gizarte-eragile guztiek beren gustuko ikastetxea finkatu behar dute, hau da, zein motatako ikastetxean ikasi nahi duten edo irakatsi nahi duten, zer motatako ikastetxera eraman nahi dituzten seme-alabak eta abar finkatu behar dute. Aldaketarako ekarpenak egin ondoren, komunitateak guztientzat nahi duen ikastetxea adostuko du.

Ametsa –ahaleginak gidatuko dituen utopia gisa ulertuta– elkarrizketarako motore garrantzitsua da, baita ekintza dinamizatzeko motore garrantzitsua ere.

3.4. Lehenetsunak aukeratzea eta antolamendua

Testuinguruaren azterketa egiten da eta errealitatearen eta lortu nahi den ametsaren arteko aldearen arabera aukeratzen dira lehenetsunak. Zer alderdi aldatu behar den jakiteko zehatz-mehatz ezagutu beharko dugu guztia. Ikastetxeari berari buruz hausnartuz gero, zer baztertu behar den, zer sustatu behar den edo zer aldatu behar den jakin daiteke. Une horretan ezartzen dira aldaketa-prozesuko jardun zehatzen lehenetsuna, egin beharreko aldaketak identifikatzen dira eta aldaketa hauek lortzeko landu beharreko berehalako lehenetsunak ezartzen dira.

Aldatu beharreko alderdirik garrantzitsuenen ekintza-plana lantzen da. Lan-batzordeak egingo dira irakasleekin, familiarekin, ikasleekin, langileekin, tokiko elkarteetako kideekin eta aholkulariekin lehenetsun jakin batean lan egiteko. Lan-batzorde hauek irtenbideak eta aldaketarako ekimenak landu eta gaineratuko dituzte eta zuzendaritza-taldeak, klaustroak, eskola kontseiluak eta guraso elkarteak hartuko dituzte irtenbide eta ekarpen hauei buruzko erabakiak.

3.5. Abiaraztea

Fase honetan lehenetsun bakoitzarekin planifikatutako ekintzak hasten dira abiarazten. Gogoeta-ekintza prozesuari hasiera ematen zaio. Prozesu honen bidez egin diren aldaketak esperimintatzen dira eta egindako azterketen eta gogoeten ondorioen arabera aldatzen dira prozesuak. Ikerketa honen bidez (gogoeta-ekintza prozesuaren bidez) jakintza sortzera, hedatzera eta praktikan jartzera bideratu nahi da komunitatea.

Lan-batzorde bakoitzak gai jakin bati dagokion prestakuntza eska dezake. Adibidez, kulturantzasunari, ikaskuntzaren alderdi jakin batzuei, arlo jakin bati eta abarri buruzko prestakuntza jardunaldiak egin daitezke.

Bileretan egindako faseak ebaluatzen dira. Ebaluazioa maila guztietakoa da eta proiektuan barne hartzen diren sektore guztietan lortutako datuak hartzen ditu aintzat. Prozesuaren ebaluazioa da.

III SENTSIBILIZAZIO-FASEA ETA ERABAKIAK

HARTZEKO FASEA

1. *Planteamendu orokorra*

Ondoren aurkeztuko ditugun faseak testuinguruan finkatu behar dira eta komunitate guztiak eztabaidatu eta adostu beharko ditu. Ikastetxeak Ikaskuntza Komunitate bihurtzeko prozesuaren parte dira. Izatez, bi fase hauek proiektuan sartu aurrekoak dira; alabaina, proiektua burutzea erabakitzen bada, une horretan ematen zaio hasiera Ikaskuntza Komunitateari.

1. 1 Sentsibilizazio-fasea

Ondokoak dira lehen fase honetan egin beharreko zereginak:

SENTSIBILIZAZIO-FASEA

1. Komunitateko eragile desberdinekin lanean hasteko lehen saioak:
 - 1.1 Prestakuntza-saioak
 - 1.2 Komunitateko talde desberdinen artean proiektuari buruz eztabaidatzea eta gogoeta egitea.
2. Hasierako informazio-jardunaldien ondoren emandako dokumentazioaren azterketa.
3. Komunitatearen ondorioak lantzea.

Ikaskuntza Komunitateen proiektua eusten duten printzipioen inguruko gogoeta-prozesu bati hasiera ematea erabakitzen duten ikastetxeek proiektuaren sentsibilizazio-fasean parte hartzea eska dezakete.

Sentsibilizazio-fasean Ikaskuntza Komunitateen proiektua eusten duten oinarrizko printzipioei buruzko informazioa ematen zaie familiei, irakasleei, irakasleak ez diren langileei, ikasleei, boluntarioei eta beste gizarte-eragile batzuei. Oinarrizko printzipio hauei buruzko gogoeta egin eta eztabaidatzen da guztien artean. Sentsibilizazio-fasearen lan-saioetarako 30 ordu hartuko dira eta ondoko gaiak landuko dira funtsean:

- a) Informazioaren gizartea eta bere hezkuntza-errealitatea aztertuko da; neska-mutil guztientzako gehienekoak aintzat hartu behar dituen ikaskuntza-prozesu batean eskuratu beharko diren trebetasun eta gaitasun guztiak identifikatzea nabarmenduko da.
- b) Ikastetxea Ikaskuntza Komunitate bihurtzeko prozesua aztertuko da, baita komunitateak eta eragile guztiek prozesuan izan duten inplikazioa ere.
- c) Hezkuntza-desberdintasuna aztertuko da eta eskola-porrota gainditzeko arrakastatsuak izan diren beste esperientzia batzuk ere aztertuko dira –gainerako ikastetxeek baino askoz ere emaitza hobekak izan dituztenak, Henry Levin-en eskola bizkortuak edo Comer eta Slavin-en programak esate baterako–.
- d) Hezkuntza-komunitate bakoitzaren alderdi sendoak eta ahulak aztertuko dira eta, hala, egin behar diren aldaketa zehatzak proposatzeko eztabaida-prozesuak sortuko dira.

Ondoren atal hauetako bakoitza deskribatuko da:

- a) Industria-gizartetik informazioaren gizartera pasatzearekin gertatu diren aldaketak aztertzen dira, baita aldaketa hauek gizarte-egitura dualizatu baten definizioan izan dituzten ondorioak ere –gizarte-egitura honetan gizarte eta hezkuntzaren arloko desberdintasun-forma berriak agertzen dira–. Hezkuntza eta prestakuntza funtsezko tresna dira informazioaren gizarte berrian desberdintasunak gainditzeko. Gizarte-zientzietako egile nagusien ekarpen zientifikoak eta beste hezkuntza-praktika batzuetan lortutako emaitza arrakastatsuak abiapuntu izanik, aldaketa-hezkuntza honek izan beharreko ezaugarriei buruz eztabaidatzen da.

Azterketa teoriko hau praktikan nola gauzatzen ari den frogatzen duten benetako adibideak zehazten dira; ikastetxe, auzo eta komunitate guztietako eguneroko jardunean gertatzen diren aldaketa hauek argi eta garbi azaltzen dituzten gizarte-egoerak eta hezkuntza-egoerak jasotzen dira. Errealitatea zehatz-mehatz aztertuta, prestatzen diren pertsonen kalitatezko lanpostuetan lan-munduratzeko aukera gehiago dutela antzeman daiteke, akademikoak ez diren familietako neska-mutilek beharrezko ikaskuntza-instrumentalak eskuratzeko desabantailan daudela ikus daiteke, eta desberdintasun hauetan eskolak ere erantzukizuna duela eta, hortaz, desberdintasun hauek aldatzen lagundu behar duela antzeman daiteke.

- b) Sentsibilizazio-fasean zehatz-mehatz aztertzen dira Ikaskuntza Komunitate bihurtzeko prozesuan ikastetxeek bizi dituzten aldaketa orokorrak: ikastetxearen antolamendua, eskola-ordutegia, ikasgelako metodologia, senitartekoen parte-hartzea, honek Ikaskuntza Komunitatean hartzen duen forma, boluntarioak, komunitateko eragileak, beste kulturetako kideekin sortzen diren harremanak... Garrantzi handikoa da gogoeta-saio hauetan aldakuntza honek eragiten dituen aldaketa txiki eta handien inguruan zalantzak, galderak eta beldurrak sortzea. Oso garrantzitsua da sentsibilizazio-fasean parte hartzen duten pertsonen entzule eta hiztun gisa jarrera aktiboa hartzea eta sentsibilizazio-fasean aurkezten den aldaketako hezkuntza-esperientzia ahalik eta hobe uler dadin lagundu nahi izatea; horretarako, beren esperientzia eta ezagutzak gaineratuko dituzte eta eraikuntza-asmoa duten gaiak planteatuko dituzte eztabaida daitezen, betiere guztien parte-hartzea ahalbidetuko duen hezkuntza erabiliz. Honela, eta elkarrizketaren bitartez, prozesuan barne hartzen diren pertsonak Ikaskuntza Komunitateak ikastetxe bakoitzean izan ditzakeen alde onei eta alde txarrei buruz ados jarriko dira.
- c) Fase honetan hainbat gairi buruz eztabaidatuko da, hala nola, irtenbideei buruz, hezkuntza-desberdintasuna gainditzeko proposamenei buruz, hezkuntza-desberdintasunak gizartearen eta ekonomiaren arloan dituen ondorio guztiak gainditzeko proposamenei buruz eta mota honetako aldaketa-prozesuei hasiera emateak gizartearen, hezkuntzan eta ekonomian izan ditzakeen ondorioei buruz. Abiapuntu gisa eskola-porrota, eskolara ez bertaratzea eta hezkuntza-desberdintasunaren ondorioak gainditzeko ahaleaginean emaitza positiboak lortu dituzten hezkuntza-esperientziak aztertu dira, hala nola, Henry Levin-en *eskola bizkortuak*; J. Comer-en *the School Development Program*; Slavin-en *Success for all*; eta Bartzelonako Verneda-St. Martí-ko helduen eskola. Esperientzia eta programa hauek oso erreferentzia garrantzitsuak dira hezkuntza-eredu arrakastatsua definitzeko, hau da, ondoko arloak oinarri dituen hezkuntza-eredu arrakastatsua definitzeko: iguripen handia, pertsona guztien ikaskuntzak gora egitea, ikastetxeen eta komunitatearen aldaketa orokorra, parte-hartze aktiboa, senitartekoak eta

komunitateko kideak eskolaren errealitatearen gero eta esparru gehiagotan prestatzea, ikastetxearen berrantolamendua, ikastetxearen funtzionatzeko modua...

Esperientzia hauetako bakoitzaren oinarriari buruz gogoeta egiteak, hau da, jarraitu diren prozedurei, oinarri teoriko eta metodologikoei eta emaitzen aurrerapenari buruz gogoeta egiteak ikastetxeetan Ikaskuntza Komunitateak ezartzeko elementu eta giltzarri asko ematen dizkigu.

- d) Azkenik, komunitateko kideek beren komunitateko eta beren ikastetxeko alderdi sendoez eta ahulez hitz egiten dute, alderdi hauek Ikaskuntza Komunitate bihurtzeko prozesua erraz dezakete edo, aitzitik, aldakuntza hori lortzeko gainditu beharreko oztipoak identifikatzeko lagungarri izan daitezke.

Ikastetxe batzuek beren alderdi sendoen artean senitartekoen inplikazio handia identifikatzen dute eta alderdi ahulen artean ikasleen ikaskuntza-maila definitzen dute. Beste batzuek, aldiz, alderdi ahul gisa ikastetxeak ekipamendu teknologikorik ez izatea definitzen dute eta auzoko erakundeek ikastetxean duten inplikazio handia jotzen dute alderdi sendotzat. Komunitate bakoitzaren errealitatearen analisi honen arabera finkatzen dira kasuak kasu eraldaketa-prozesuak izan beharko duen izaerari buruzko ildoak, betiere sentsibilizazio-fasearen ondoren aldakuntzari ekitea erabakitzen bada.

Sentsibilizazio-fase honi hasiera ematerakoan aldaketari eta aldaketak ikastetxean izango dituen onura eta ondorioei buruzko taldekako edo banakako gogoeta eta eztabaida lagunduko duen dokumentazioa ematen da. Sentsibilizazio-fasean parte hartzen duten pertsonak egiten diren gogoetetan gehiago sakondu ahal izango dute, baldin eta aldezturik material hau arreta handiz irakurri badute eta gaiari buruzko gogoeta egin badute. Gogoetarako aldi honen ondoren ikastetxeak sentsibilizazio-fasean lortutako ondorioei buruzko proiektu laburra egiten du.

Ikastetxeen eta komunitatearen sentsibilizazioa komunitateko gizarte-eragileetarako eta hezkuntza-eragileetarako prestakuntza-plan baten hasiera da eta prestakuntza-plan hau eraldaketa-prozesuaren barruan garatzen diren berariazko prestakuntza-ekintzetan gauzatzen da.

Haatik, fase honetako parte-hartzea oso maila desberdinekoa izaten da. Kasu batzuetan sentsibilizazioa irakasleengan eta irakasleak ez diren langileengan edo irakasleengan soilik oinarritzen da. Beste kasu batzuetan, ateak zabalik dituen saio gisa antolatzen da sentsibilizazio-fasea eta bertan komunitateko kideek, senitartekoei, tokiko eta/edo autonomia erkidegoko administrazioetako ordezkariak eta abar hartzen dute parte. Parte-hartzea ahalik eta gehien zabaltzen bada eta saioetara eskolan edo komunitatean inplikaturik dauden ahalik eta pertsona gehienen parte-hartzea erraztu eta bultzatzen bada, proiektuaren proposamena gehiago hedatu dadin eta proiektuak komunitatearen eta ikastetxearen errealitatean eragin handiagoa izan dezan ziurtatuko da.

2.1. Erabakiak hartzeko fasea

ERABAKIAK HARTZEA

1. Hezkuntza-komunitate osoak hartutako konpromisoan oinarrituta proiektuari hasiera emateko erabakia hartzea.

Une honetan ikastetxeak erabaki egin beharko du ikastetxea Ikaskuntza Komunitate bihurtzeko prozesuari hasiera emateko konpromisoa bere gain hartuko duen edo ez duen hartuko. Konpromisoa komunitateko kide guztiek batera hartu beharko dute bere gain: irakasleek, familiek, ikasleek eta komunitateko gainerako eragileek.

Horretarako ezinbestekoa izango da ondoko baldintzak betetzea:

- Klaustroaren gehiengoak proiektua garatzearen alde egon beharko du (normalean gehien inplikatzeko diren irakasleek eta ikastetxeko behin betiko irakasle gehienek egon beharko dute alde).
- Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak ados egon beharko du.
- Ordezkaritza gehieneko organoak (Eskola Kontseiluak) onartu beharko du.
- Guraso Elkarteak antolatutako batzarraren gehiengoak onartu beharko du.

Erabaki honetara eztabaida, gogoeta eta negoziazioko prozesu baten ondoren heltzen da eta prozesu honetan hasiera bateko beldurrak, prozedurak eta baldintzak planteatu ahal izango dira. Oso garrantzitsua izango da finkatzea proiektuaren zer elementu izango diren pertsona guztiek bere gain hartzen dituzten gutxieneko baldintzak eta zer elementu egongo diren pertsona batzuen borondatearen mende – pertsona guztiak hauek gauzatzearen aldekoak bagara ere–. Adibidez, hasiera batean talde elkarreragileak kasu jakin batzuetan soilik planteatu daitezke, hau da, beren borondatez beren ikasgeletan gauzatzeko prest dauden pertsonen kasuan soilik abiaraztea planteatu daiteke.

2. Esperientzia: Artatse LHI ikastetxeko sentsibilizazio-fasea eta erabakiak hartzeko fasea.

2.1. Sentsibilizazio-fasea

Artatse LHI ikastetxeak A ereduan ematen du haur-hezkuntza eta lehen hezkuntza. Bilboko Txurdinaga eta Otxarkoaga auzoen artean dago.

Eraldaketa-prozesuari ekin aurretik ikastetxeak irakatsi eta ikasteko prozesu zaila bizi zuen eta egoera honen testuinguruan biltzen zen azken urte hauetan ikastetxearen klaustroaren etengabeko gogoeta.

Gogoeta honen ondorioz etengabe aldatu dira curriculum-materialak, ikasleak hainbat modutara taldekatu dira, talde-lanerako hainbat teknika jarraitu dira, irakasleen ordutegi-kreditu guztiak irakaskuntza-maila guztietako arlo instrumentalak sendotzeko erabili dira.

Era berean, osasunerako, drogamenpekotasunen prebentziorako, gizarte-trebetasunen trebakuntzarako, afektibitatearen garapenerako eta abarrerako proiektu osoak landu dira.

Inguruko mundua ulertzeko, aldatzeko eta bertan parte hartzeko gai izango diren pertsonen prestakuntza ikastetxeak eta familiek batera egin behar duten hezkuntza-zeregina da. Ikastetxe bat den aldetik, Artatseko ikasleen senitartekoen betidanik hartu dute ikastetxea hurbileko gisa eta beren arazoez mintzatzeko, laguntza eskatzeko eta beren seme-alabekin sortzen diren arazoei irtenbidea emateko jo izan dute ikastetxera. Ikastetxea aldatzeko asmoaren bitartez senitartekoen eta irakasleek gainerako esparru guztietan dituzten iguripenak erlazioan jarri dira, ahalegina guztiok batera egin beharrekotzat jo baita.

Artatse aldatzeko prozesuaren hasierari dagokionez, ikastetxeak sentsibilizazio-fasean edo prestakuntzako astean izan duen antolamendua nabarmendu behar da. Aste horretan ikastetxearen antolamendua beste modu batean bideratzeko asmoa izan genuen, sormena erraztu nahi genuen. Eskolak eten gabe sentsibilizazio-fasea egin ahal izateko aukera emango zuten formulak bilatu nahi izan ziren.

Ikastetxea bost egunez antolatu behar zen, 25 eskola-ordu eta eskola-jantokiko 5 ordu antolatu behar ziren irakaslerik gabe eta irakasleak ez diren langilerik gabe. Nondik atera zitezkeen ikastetxeak “funtziona zezan” ahalbidetuko zuten pertsonak? Zer egin zitezkeen aste horretan? Nola antola zitezkeen ikastetxea?

Hainbat alternatiba aztertu eta saiatu ondoren, ikastetxearen hurbileko pertsonekin harremanetan jartzeko aukera aztertu zen. Zeregin honetarako beharrezko profila izan zezaketen pertsona hauek jada ikastetxea ezagutzen zuten pertsonak izan zitezkeen edo klaustroko kideekin lotzen ziren pertsonak izan zitezkeen.

Beharrezko harremanak finkatu ziren eta, azkenik, ikastetxeak senitartekoen, praktiketako ikasle eta beren irakaslearen, komunitateko hurbileko pertsonen, ikasle-ohien, astialdiko taldeen eta ikuskatzailearen laguntza eskuzabala jaso zuen, laguntzaile hauek ilusio handiz hartu zuten erronka eta astebetzez laguntzea onartu zuten. Batzuek

lanaldi osoz lagundu zuten eta beste batzuek hainbat saiotan, betiere ikasgela bakoitzeko irakasleen gidaritzapean eta hauekin lankidetzan estuan.

Aste honen plangintza egiterakoan aztertu zen beste alderdietako bat ondokoa izan zen: pertsona hauek guztiek ikasgelan ikasleekin gauzatu behar zituzten jarduerak izango zuten planteamendu pedagogikoa. Bost egun horiek desberdin planteatu ziren. Jarduerak arlo artistikoan, gorputz-hezkuntzan eta zeharkako arloetan oinarritu ziren. Antolamendua tailerren bidez egituratu zen. Irakasleek eskolarako gauza berriak ikasi behar zituztenez gero, “Aste Artistiko” bat antolatuko zela azaldu zitzaizkien ikasleei.

Jarduerak ziklo bakoitzaren ezaugarrien arabera pentsatu ziren:

- Haur Hezkuntza, tutoreek aldeztu aurretik programatuta utzi zituzten jarduerak egin ziren. Jarduera hauek egunero berraztertzen ziren, egunegun horretarako aurreikusitako uneetan. Praktiketara zeuden Otxarkoagarako Lanbide Eskolako ikasleak eta hauen tutorea eta talde bakoitzeko ama bat arduratu ziren talde hauetaz.
- Ikasgela egonkorrak normaltasunez jardun zuen eta ikastetxearen hainbat jardura komunitate hartu zuen parte. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin jarduteko ezagutzak eta esperientzia duen pertsona boluntario baten kargura egon zen talde hau.
- Lehen Hezkuntzan, berriz, lan-erritmoak eta lan-dinamikak oso desberdinak dira lehen mailako eta seigarren mailako ikasleen artean. Aste Artistikoa bi maila desberdinetan bideratu zen.
 - Lehen zikloak eta bigarren zikloko lehen kursoak sukaldaritza, plastika, antzerki eta birziklatzeari buruzko tailerretan egin zuten lan. Talde bakoitzak zegoen tailerra garatu zuen aldeztu aurretik finkatutako ordutegiari jarraituta. Tailer bakoitzaren buru pertsona boluntario bat izan zen. Kurso bakoitzean senitarteko bat eta begirale bat izan ziren tutore eta ikasleak jasotzeaz, kontrolatzeaz eta ordutegia betetzeaz arduratu ziren.
 - Bigarren zikloko bigarren kursoarako eta hirugarren ziklorako arte eszeniko desberdinak ezagutzeko astea programatu zen. Egunero interesgune bat landu zuten: telebista, antzerkia, zirkoa, zinema eta irratia.

Telebista lantzeko publizitateko tailer bat egin zen, telebistako lehiaketa bat antolatu zen eta kirol eta jolaserako hainbat jardura egin ziren. Antzerkiak kontu-kontalariaren jardura lantzeko eta txotxongilo tailer bat egiteko aukera eman zuen eta antzerki-errepresentazio bat ere egin zen –horretarako eszenategi bat eraiki zen–. Zirkoaren gaiarekin malabarismo-jokoak egiteko jostailuak egin ziren eta praktikak egin ziren zango luzeekin, akrobaziekin eta dantzekin. Zinema lankidetzatekniken bidez landu zen; zinema-kartela egin zen, filma bat ikusi zuten eta higitzaile eta piktogramen tailerrak egin zituzten. Irratsaio txiki bat ere egin zuten. Asteari amaiera emateko festa handi bat antolatu zen.

Talde bakoitza senitarteko baten eta begirale baten tutoretzapean izan zen. Talde bakoitzari jardura bakoitza garatzeko beharrezko materiala eman zitzaion. Talde bakoitzak ordutegiak, bizikidetasun-arauak, ikasleen zerrenda, bertaratzaren erregistroa egiteko orria eta jardura bakoitza ebaluatzeko orria zuen. Pertsona guztiak behar bezala

identifikatuta zeuden; bakoitzak beren izena, erreferentziazko kurtsoa edo tailerra adierazten zuen txartela zuen.

Sentsibilizazio-astean ikastetxea antolatzea irudimen handiko lana izan zen, Artatse LHI ikastetxeko zuzendaritza-taldeak lanerako eta koordinaziorako ahalmen handia erakutsi zuen. Dena den, lan hau familien eta komunitateko gainerako eragileen oso erantzun positiboari esker gauzatu ahal izan zen. Aste honen deskribapenak argi erakusten du ikastetxe batean nola planifikatu zen sentsibilizazio-astea; alabaina, ikastetxe bakoitzak modu desberdinean zehaztuko du aste hau.

Sentsibilizazio-asteari hasiera eman zitzaionean Artatsen dena kontrolpean zegoela ematen zuen, baina goizeko 10etan, ikasleak sartzeko txirrinak jo zuenean, lan-aretoan bilduta geunden irakasleek elkarri begiratu genion, beldurra azaleratzen zen geure aurpegietan. Egunek aurrera egin zuten eta “ohitura” berriak inolako kalterik sortu ez zuela ikusi zen; aitzitik, oso positiboa izan zen. Lankidetzan jarduteko eta taldean lan egiteko asmoa dagoenean pertsona guztiok ditugun gaitasunak antzeman genituen.

Sentsibilizazio-fasean ondokoek hartu zuten parte: 19 senitartekok, 11 begiralek, Otxarkoagako Lanbide Eskolako 7 ikasleak eta irakasle batek, praktiketan dagoen OHOk ikasketetako ikasle batek, Deustuko Unibertsitateko gizarte-laneko ikasle batek eta ikastetxearen ikuskatzaileak.

Jantokiko ordua harremanetarako oso une garrantzitsua izan zen. Berrogeita hamar pertsona baino gehiago biltzen ginen mahaiaren inguruan bazkaltzeko (pertsona guztiak sartzeko irakasleen gela ere erabili genuen) eta denbora-tarte horretan egunean gertatu zenaz mintzatzen ginen, ikasleen portaerez, jarrerez eta motibazioez jarduten genuen. Senitartekok topaketa horien ondoren askoz ere gehiago baloratzen dute ikastetxearen zeregina eta gisa honetako iruzkinak egin zituzten: *Zer pazientzia duzuen! Egunero horrela al da guztia?*

Astea amaitzerakoan asteari buruzko ebaluazioa egiteko inkesta bat bete behar izan zuten eta inkesta honek lankidetzan jardun zuten pertsona guztien asetasun-maila oso handia zela erakutsi zuen.

Artatseko LHI ikastetxeko sentsibilizazio-fasean lortutako emaitzen artean ondokoak azpimarratu nahi ditugu:

1. Henry Levin-en “The accelerated school”, Slavin-en “Success for all” eta Comer-en “Schools Development Program” hezkuntza-esperientziak aztertu ondoren, esperientzia hauetako alderdirik esanguratsuenak ondoko puntuetan laburbildu genituen:
 - Parte-hartze orokorra: parte-hartze orokorraren beharra (irakasleak-familiak-erakundeak-ikasleak-auzoa-boluntarioak).
 - Ikaskuntzak erraztuko dituen antolamendua: helburuak lor daitezten errazten duen antolamendu baten beharra.
 - Ikasleekin arrakasta lortzeko iguripen handiak, “lorpen-beharra”; esperientzia desberdinetan oso bestela bideratzen da: titulu akademikoak lortzea, eskola-arrakasta lortzea, iguripenak ez jaistea.
2. “Industria-gizartetik informazioaren gizartera pasatzeari eta honek hezkuntzan dituen ondorioei” buruzko azterketa eta gogoeta abiapuntu izanik, ondoko alderdiak

nabarmendu behar dira:

- Ikastetxeek baliabide tekniko ugari izan beharko dute (ez dugu ahaztu behar gaur egun neska-mutil askok etxean baliabide teknologikoak dituztela; horregatik, etxean halakorik ez duten neska-mutilei ikastetxean eskaini beharko dizkiegu baliabide hauek).
 - Ikaskuntzetan informazioa aukeratzeko eta prozesatzeko gaitasunak barne hartu beharra.
 - Ikastetxeak komunitate osora zabaldu beharra, ikasleen ikaskuntza-baldintzak hobetearren eta, era berean, komunitatea bera haztearren.
3. Eta, azkenik, lan-taldeetan egin ziren azterketa eta gogoetak laburbiltzeko ondoko alderdiak jaso dira:
- Zerbitzu gehiago eskaintzeko eta ikastetxearen ordutegia zabaltzeko beharra.
 - Internetera konektatutako informatika-aretoa.
 - Hizkuntzen laborategia.
 - Liburutegiaren ordutegia zabaltzea.
 - Ikastetxearen ordutegia zabaltzea: goizez ikastetxea ordubete lehenago zabaltzea (harrera-ordua); arratsalde, eskolaz kanpoko jarduerak gehitzea.
 - Ikastetxean senitartekoak heztea: senitartekoen eskola eta alfabetizatze taldea.
 - Ikastetxearen jardunean familiak eta boluntarioak barne hartu beharra:
 - Sartu aurreko ordu horretan (harrera-ordua).
 - Liburutegiko ordutegia zabaltzen den tartean.
 - Tailerretan.
 - Ikasgela barruan irakasleekin lankidetzan.
 - Curriculumaren edukien eta ikasgela barruko lan-metodologiaren aukeraketa berraztertu beharra, irakaskuntzaz bestelako ikaskuntza-estimuluei aukera emanez: beste pertsona heldu batzuk, ikaskideak berak...
 - Ikastetxea Ikaskuntza Komunitate bihurtzeko prozesu honetan pixkanaka eta guztiak batera aurrera egiteko beharra, León Felipek zioen moduan: “garrantzitsuena ez da bakarrik eta laster iristea, guztiekin eta garaiz iristea baizik”.

- | |
|---|
| <ul style="list-style-type: none">• Ikaskuntzak erraztuko dituen antolamendua.• Iguripen handiak mantentzea.• Ikastetxeak eskaintzen dituen zerbitzuak eta ordutegia zabaltzea.• Familiak eta boluntarioak ikastetxearen bizitza aktiboaren parte dira.• Gure ikastetxeetako laneko metodologia eta ikaskuntza-edukiak berraztertzea.• Ikastetxea aldatzeko prozesu honetan, guztiok batera abiatu ahal izateko moduko erritmoa jartzea. |
|---|

"Prestakuntza-astea (sentsibilizazio-fasea) kontzientziaziorako funtsezko egintza izan zen, irakasle-taldearen barruan zein hezkuntza-komunitateko beste maila batzuekin harremanak finkatzeko eta partekatze bide berri bat eraikitzen ari ginela kontzientziazitzeko oso garrantzitsua izan zen".

2.2. Erabakia hartzeko fasea

Artatseko LHI ikastetxean sentsibilizazio-astearen ondoren *bestelako giroa nagusi zen*. Senitartekoen lankidetzaren paregabeari esker ikastetxean “hezkuntza-komunitateaz” hitz egiten zen.

Erabakia hartu aurretik gogoetarako tarte bat izan genuen. Irakasleen batzordeetan eta familiez eta irakasleez osatutako batzorde mistoetan banatu ginen proiektuaren filosofian sakontzeko. Sentsibilizazio-astearen ondoren eta Ikaskuntza Komunitatea osatzeko erabakia hartu aurretik, Klaustroak proiektua bideratu ahal izateko aukerei buruz eztabaidatu zuen eta aldaketak ekar zitzakeen ondorioak baloratu zituen. Komunitateko eragile gisa erabateko konfiantza izan behar genuen gure indarrean eta, honez gain, ondoko beldurrak eta zalantzak gainditzen ikasi behar genuen:

- Eskola beste pertsona batzuekin partekatzea.
- Boluntarioek, “tituludunak ez badira ere”, egin ditzaketen ekarpenak baloratzea edo ikustea.
- Beste pertsona heldu batzuei eskolak nola ematen diren, nola antolatzen diren eta abar ikusteko aukera ematea, egunez eguneko lanaren alde positiboak eta negatiboak ikusteko aukera ematea.
- Irakasleak dagoeneko ez duela eskolan agintzen ulertzea.

Haatik, ondoko alderdi “sendoak” antzeman genituen:

- Gauza garela.
- Proiektua erronka bat dela.
- Aurrera egin nahi dugula.
- Ikasleei zuzendutako hobekuntza eta aldaketa orok merezi duela.

Bestalde senitartekoek zalantzan jarri zuten “lan egiteko gauza” izango ziren; alabaina, proiektuan parte hartzeko ilusioak eta nahiak aldeko erabakia hartzera bultzatu zituen. Azkenean, parte hartzeko dokumentua egin zen eta irakasleen klaustroak, irakasleak ez diren langileek eta gurasoen batzarrak sinatu zuten. Era berean, Eskola Kontseiluak ondorio horretarako deitu zen bilkuran ere aho batez onartu zuen.

Bide luze bati ilusioz eta itxaropenez eman genion hasiera; amets handi bati ematen genion hasiera:

*... amets egiten duzue,
Noski baietz, etengabe egiten dugu amets.
Gehiegi espero duzue.
Noski baietz, espero izatea ikasi dugu eta guztia espero dugu.
Gehiegi nahi duzue.
Noski baietz, gehiegi nahi dugu, gehiago, guztia eta gogo biziz.
Presa gehiegi duzue.
Noski baietz, ibili, iritsi, presa dugu, presa handia.
Amets egiten duzue.
Bai, saihestezina zaigu. Gaurko ametsa biharko aukera.
Gehiegi espero duzue.
Noski baietz, eta ez gara itxaropenaren esklabo izateaz lotsatzen.
Gehiegi nahi duzue.
Noski baietz, gure eskubide argia da, are gehiago gure eginbeharra da.
Exijitzen duzue
Noski baietz, sutsuki edo atsekabez...*

Lluís Llach

IV AMETSAREN FASEA.

1. *Planteamendu orokorra*

Proiektuarekin aurrera egiteko erabakia hartu ondoren, fase honetan ematen zaio benetan hasiera ikastetxea aldatzeko prozesuari. Fase honetan gure gustuko ikastetxea finkatu behar dugu guztion artean, hau da, zein motatako ikastetxean ikasi nahi dugun edo irakatsi nahi dugun, zer motatako ikastetxera eraman nahi ditugun seme-alabak eta abar finkatu behar dugu. Aldaketarako ekarpenak egin ondoren, komunitateak guztientzat nahi duen ikastetxea adostuko du.

Irakasleei eta komunitatearen gainerakoari beren seme-alabentzat nahi izango luketen eskola amesteko proposamena egiten zaie. Planteamendu honekin diskurtso bikoitzak saihestu nahi dira, hau da, saihestu nahi da norberaren seme-alabentzat mota jakin bateko eskola egokia izatea edo curriculum-ibilbide jakin bat egokia izatea (eskola barrukoa eta eskolaz kanpokoa barne hartuta) eta gainerakoentzat horixe bera egokia izan ez daitekeela pentsatzea. Pertsona askok zalantzan jartzen du neska-mutilek ikastetxean oso adin txikiarekin ordenagailua erabiltzen hastearen komenigarritasuna. Beste pertsona askok *aparatuekin ez direla batere ondo moldatzen*, baina beren seme-alabek adin horietatik bertatik etxean ordenagailuak dituztela esaten dute. Beste pertsona batzuen iritziz zertxobait handiagoak direnean bultzada handia eman behar zaio ordenagailuaren erabilerari. Ildo honetan profesional askorentzat garrantzitsuena ez dira edukiak, pertsonen garapen integrala eta giro ona baizik; ikaskuntza instrumentalak bigarren mailan uzten dituzte. Aitzitik, pertsona horiek beraiek oso goiz irakasten diete beren seme-alabei irakurtzen eta idazten eta ingeleseko eskoletara eramaten dituzte edo udan Irlandara eramaten dituzte; hauetako batzuek, gainera, eduki hauek curriculumean garrantzi handia duten ikastetxeetara eramaten dituzte beren seme-alabak.

Proposamen honi esker errazagoa da familiekin elkarrizketan jardutea, guztiek ametsa bera izango baitute: *norberaren seme-alabentzat onena*. Profesional garen aldetik ez dugu guretzat egokiena dena gainerako pertsonentzat ere hala izan behar duela erabaki behar, are gutxiago pertsona horien iritzia kontuan izan gabe. Aitzitik, informazioak eta argudioak eman beharko ditugu gainerakoek ere gure seme-alabentzat nahiago dugun curriculum-mota balora dezaten. Abiapuntu honetatik bideratzen da inplikaturak dauden gainerako aldeekiko elkarrizketa. Elkarrizketa honetan norberaren balioak, interesak eta kultura gaineratuko dira eta horretarako bakoitzak bere argudioak emango ditu eta eskolaren eta irakaskuntzaren eredia adostuko da; erlatibismoa, etnozentrismoa edo kulturabakartasuna gainditzen saiatuko da. Ez da guztia definitu edo adostu behar, proiektuaren hurrengo faseetan garatu eta zehaztuko diren alderdirik garrantzitsuenetan ados jarri beharko da.

Amets gisa planteatzen denez gero, hizkuntza tekniko eta baztertzaila baztertu egingo da eta, hala, pertsona guztiek parte-hartzeko aukera izango dute –bere gizarte-maila eta kultura edozein izanik ere–. Guztiok egin dezakegu amets, baita adin desberdineko neska-mutilek ere; txikienek beren ametsak fantasiako istorio bidez marraz edo konta ditzakete.

Bestalde, ametsaren bitartez baldintzatzaileak eta iguripen txikiak gainditzeko aukera izango dugu, baita zati bateko errealitatearen ikuspegiarekin lotuegiak dauden iguripenak gainditzeko aukera ere. Askotan ez dira pertsonen benetako iguripenak

azaltzen; batzuek horretarako eskubiderik ez dutela pentsatzen dute eta beste batzuei beren ametsak ezinezkoak iruditzen zaizkie eta ez dute horretan pentsatzen ere. Maila akademiko jakin bateko pertsona askok irudi nahikoa negatiboa du beraiek edo beren seme-alabek ikaskuntza akademikoetarako duten gaitasunari dagokionez. Okerrena gaitasun-gabezia hau interes-ezarekin edo motibazio-gabeziarekin nahastea izaten da.

Ametsa berdintasunaren mailatik egitea sustatzen denean, ezarri diren edo nor bere buruari ezarri dizkion oztopo horiek hausten hasten dira eta guztiok antzeko nahiak ditugula antzematen dugu. Hau elkarrizketa sortzeko eta ekintza dinamizatzeko garrantzi handiko motore bihurtzen da.

Ahalegin guztiak bideratuko dituen utopiatzat hartzen da ametsa. Hori dela-eta, gure urratsak eta gure seme-alaben hezkuntza gidatuko duen ametsa edo utopia guztion artean eraikitzea izango da ekintza nagusietako bat. Ezinezkoa da itxaropenik gabeko heziketa, itxaropenik ez duten hezitzaileak beren praktikaren aurka doaz. Norabiderik gabeko gizon-emakumeak dira. *Arduragabeek pentsatzen dutenaren aurka, errealitate kontraesankorrean barne hartzen denaren hizkuntza –errealitatea hain zital ez egitearen ametsak bultzatuta– aukeraren hizkuntza da. Bere utopiaren alde eraman ezina den pazientzia handiz borroka egiten duenaren neurrizko hizkuntza da* (Freire, P. 1997, 57 or.)

Ikaskuntza guztion arteko elkarrekintza-prozesutzat hartuta, Ikaskuntza Komunitateen hezkuntza-helburuetako bat elkarrizketa sustatzeko egoera ezin hobeak sortzea izango da. Ildo honetan irakasleen ekarpena garrantzi handikoa izango da. Gaur egun irakasleen klaustroari ikastetxearen curriculum-proiektuaren gaineko erantzukizuna esleitzen zaion arren, erantzukizun honek ez du esanahi komunitateko gainerako kideek ezin dituztela curriculum-gaiak aztertu; aitzitik, gai hauei eta beste batzuei buruzko eztabaida eta gogoetaren bitartez hobe bete ahal izango da erantzukizun hori.

Familien, irakasleen, ikasleen, auzoaren eta gizartearen arteko komunikazio-elkarrekintzan oinarrituta soilik eraiki daiteke hezkuntza-proiektu eta curriculum-proiektu erabilgarria. Elkarrizketa-giro hori sortzea izango da, hain zuzen ere, gure gizartean egin beharreko funtsezko zereginetako bat. Pertsona guztien ahotsekin eraikitako elkarrizketan garatzen da gure proiektua; izatez, berdintasunezko elkarrizketa honetan desberdin izateko eskubidea barne hartzen da.

Fase hau burutzeko hamaika estrategiari jarrai dakioke, Ikaskuntza Komunitateak ere askotarikoak izan daitezke-eta. Garrantzitsuena guztientzako eskola izatea eta eskola horretan jende guztiak ekarpen gisa gaineratu ahal izango duen zerbait izango du, horixe da garrantzitsuena. Ekarpen hori modu askotara egin daiteke: banaka edo taldeka (irakasleak, gurasoak, ikasleak...), ahoz edo idatziz egin daiteke...

Ondokoak dira ametsen planteatzen diren dinamikak:

- Taldeka biltzea lortu nahi den ikastetxea asmatzeko.
- Lortu nahi den ikastetxearen ereduari buruzko erabakia adostasunaren bidez lortzea.
- Ikaskuntza Komunitatearen ezaugarriak testuinguruan finkatzea.

Fase hau hainbat modutara antola daiteke ikastetxe bakoitzaren taldekatzeen eta landinamiken arabera. Ikastetxe guztiek desberdin egin dute amets: batzuetan guztiek batera, beste batzuetan bereizita.

2. *Esperientzia*

Kapitulu honetan ametsaren faseak Ikaskuntza Komunitateen proiektuko ikastetxe desberdinetan izan duen garapena deskribatuko da.

2.1. Artatse LHI ikastetxeko ametsaren fasea

Artatse LHI ikastetxean sentsibilizazio-astearen ondoren eta proiektuan sartzea erabakitakoan, ametsaren faseari ekin zitzaion. Klaustroa hiru batzordetan antolatu zen proiektuaren dinamizatzaile izatekotan. Batzorde hauek kolektiboen (irakasleen, gurasoen eta ikasleen) gogoeta errazteko jarraibideak edo gaiak landu zituzten.

- (1) **Irakasleak** hiru lan-taldetan antolatu ziren, batzordeak jorratutako jarraibideak kontuan izanik. Astearen egun batez elkartu ziren eta erabakitzen zen guztia jasotzeaz arduratuko zen idazkaria izendatu zuten.
- (2) **Senitartekoen** taldeak eta talde hau dinamizatzeaz eta lantzeaz arduratuko zen batzordeko irakasleek bilera-egutegi bat egin zuten. Batzordeak hasiera batean bilerak hamabostero egitea proposatu zuen baina senitartekoei beraiek astero biltzea proposatu zuten. Kasu honetan, idazkariaren zereginak irakasle batek eta ikastetxeko gizarte-langileak bete zituzten. Hasiera batean, senitartekoei (gehienak amak ziren) parte hartzea kostatu zitzaion “ez zekitelako” esaten zuten; alabaina, pixkanaka beren buruarekin konfiantza hartu zuten eta oso bilera aberasgarriak izan ziren pertsona guztien ekarpenari esker.
- (3) **Ikasleekin** maila eta zikloen arabera egin zen lan. Ikasgela bakoitzeko ordezkariak izendatu ziren eta hauek hasiera batean astero koordinatzen ziren ikasgela desberdinetako ekarpenak elkarri aditzera emateko.

Ametsaren fasea amaitu ondoren antolamendu honek jarraipena izan du eta proiektuarekin lotzen diren gainerako faseak eta gaiak aztertu dira, baita ikastetxearen eguneroko martxan sortu diren beste gai batzuk ere.

Guztion ametsa, kasu honetan, guztion ekarpenak elkartzearen ondorioz sortu zen eta talde bakoitzak gogoeta bere aldetik egin bazuen ere, batzordearen bidez beste taldeetan lantzen ari ziren alderdien berri izaten zen. Honek eztabaida eta ekarpenak aberastu zituen.

Irakasleen taldeak gai guztiak jorratu zituen eta beren eztabaida gehiago oinarritu zen familiekin lotzen ziren gaietan eta beren jarrera, ohitura eta balioekin lotzen ziren alderdietan. Hasiera batean zaila egin zitzaion arazo zehatzez ahaztea eta amets egiten hastea. Nolanahi ere, inplikaturako familiek azaltzen zuten gogo biziari eta jarrerari buruzko berriak eta familiek beren seme-alabek ahalik eta gehien ikasteko azaltzen zuten ilusioa garrantzi handikoak izan ziren irakasleen ametsa pizteko. Baterako bilera eta eztabaiden bitartez amets egiteko prozesuaren beraren prestakuntza-alderdiak ere irakasleen ametsa bultzatu zuen.

Senitartekoen bileretan beraien ardura ez ezik, ikastetxearen ardura ere pizten zuten gaiak landu ziren: ikastetxeaz espero dena, beren iritziz beren seme-alabek zer ikasi behar duten eta eskolak nolakoa izan behar duen, familiaren ingurunean zaindu beharreko ohiturak (elikadura, ordutegiak...), familien parte-hartzearen aukerak eta

senitartekoen prestakuntza-premiak (bete nahi dituztenak eta beren ustez eskolak bideratu beharko dituenak). Ondokoen gisako alderdiak ere eztabaidatu ahal izan ziren: gaur egun karrera bat ikasteak zerbaiteko balio duen; garrantzitsuagoa zer den neskak etxean laguntzea edo gaur egungo gizartearen premiei aurre egiteko hobeto prestatzea; elikadura on baten eta gutxieneko atsedeen-ordutegien garrantzia; eskolako ikaskuntzetan errendimendua ezin hobea izan dadin laguntza jarraituaren premia; hau guztia hobetzeko ikastetxeek eta familiek egin dezaketena; egoerak eta ingurunea aldatzeko borrokarako jarrera aktiboa izan beharra, egoerara eta ingurunera makurtu gabe; estimuluak, ereduak, balorazio positiboak eta beste hainbat gaik ikaskuntzarako duten garrantzia.

Familien ametsaren barruan ondokoa nabarmen daiteke: eskatzen diren gutxieneko mailez gain, beren seme-alabek karrera bat edo lanbide bat lortzea; informatika, hizkuntzak, errespetua eta elkarbizitza baketsua ikastea; eskoletan musika, igeriketa eta beste kirol batzuk, bide-heziketa, sexu-heziketa, drogamenpekotasunaren prebentzioa, HIESa eta abar ikastea; tailerrak eta eskola-aldizkaria antolatzea; eskola ireki eta ixteko ordutegia zabaltzea. Era berean, familiei ikastetxean lokal bat izatea gustatuko litzaieke, irakurketa eta idazketa hobetu nahi lukete, amaitu ezin izan zuten prestakuntzan sakondu nahi lukete, batzuek graduatua atera nahi lukete, beren seme-alabak hezteko estrategiak ikasi nahi lituzkete eta, azken finean, beren seme-alaben heziketan ikastetxearekin lankidetzan jardun nahi lukete.

Ikasleekin egiten den lanean ikasleen inplikazioa eta ikastetxearekiko identifikazioa areagotu da eta harremanak eta giroa oro har hobetu da. Honez gain, lan honek irakatsi eta ikasteko prozesuetan jarraitu beharreko prozedura eta estrategia metodologikoei buruzko pistak eman zituen. Era berean, ikasleekin egindako lana oso baliagarria izan da guztiongan eragina duten ikastetxearen bizitzaren beste alderdi batzuen arloan erabakiak hartzeko modua lantzeko eta erabaki hauetaz arduratzeko. Sor daitezkeen arazo eta gatazkak planteatzeko baliagarria da eta arazo eta gatazka hauek ebazteko prozesuaren dinamizazioan ikasleek ere parte hartzeko aukera emango du.

Hona hemen nabarmen daitezkeen ikasleen ametsaren elementuetako batzuk: eskola alaia, garbia, atsegina, modernoa eta erakargarria; irakasleria maitekorra, adeitsua, ondo irakasten duena; irakasleriaren zati bat ijitoa izatea; flamenko eta gitarrako eskolak ematea eta askotariko kirolak egiteko aukera ematea; tailerrak, informatika eta hizkuntzak irakastea; pilotalekua, gimnasio handiagoa, futbol-zelaia eta saskibaloiaretoa edukitzea; eta egintza-aretoa, jolas-eremuak, musika-gelak, akuario bat...

Lan honen guztiaren ondorioz amets partekatua osatu zen eta gaur egun amets horri jarraitzen zaio, errealtate bihurtzeko asmotan.

Artatseko ametsa	
Eskolaren eredua	<ul style="list-style-type: none"> Gaitasun, erlijio, kultura eta beste arlo batzuetako desberdintasunak onartuko dituen eskola integratzailea. Berdintasunean oinarrituko den eskola ez-sexista, ikasle guztiei aukera berdinak emango dizkiena eta beren ikaskideen eskubide berak lortzen lagunduko diena, ikastetxean zein beren ingurunean. Adeitsua, arazoei irtenbidea emateko bidea elkarriketa dela aintzat hartzen

	<p>duena.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Elkartasunean oinarritzen dena, beste gizarte-maila batzuk ezagutzen eta lankidetzan jarduteko premiak antzematen lagunduko diena. • Eskola ez ezik, gizarte-ingurunea eta kultur ingurunea ere aldatuko duena. • Desberdintasunak parekatuko dituena eta, familiekin batera, bizitzeko baldintzarik onenak eta bizikidetasuneko baldintzarik onenak emateko beharrezko baliabideak eskainiko dituena. • Trebatzailea eta aditua, gizartean moldatzeko beharrezko erremintak eta gaitasunak lor daitezzen erraztuko duena. • Autonomia landuko duena, beren kabuz ikertzeko, antolatzeke eta arazoak ebatzteko aukera emango dieten estrategiak, jarraibideak eta tresnak eskainiko dituena. • Autoestimua landuko duena, pertsonak bere buruan eta beren aukeretan duten konfiantza areagotuko duena eta beren arrakasta-iguripenak areagotuko dituena. • Bere kide guztien hobekuntza sustatuko duen talde-lanaren bitartez parte-hartzea bultzatuko duena; estamentu guztiek ikastetxearen martxan eta erabakiak hartzeko prozesuan parte hartu eta lankidetzan jardungo dutena, betiere modu demokratikoan, positiboan, kritikoa eta elkarrizketarako irekian. • Lankidetzan jardungo duena; pertsona guztiek gainerakoentzat garrantzitsua izango den zerbait gaineratu ahal izango duguna.
Ikasleak	<ul style="list-style-type: none"> • Autokontzeptu eta autoestimu positiboan oinarrituko den nortasuna garatuko dutenak. • Ikasten eta pentsatzen ikasiko dutenak. • Beren prestakuntzako iguripenak areagotuko dituztenak eta ahalegina baloratuko dutenak. • Ondokoa erraztuko dieten gizarte-gaitasunak eta komunikazio-gaitasunak garatuko dituztenak: <ul style="list-style-type: none"> - Elkarrizketak hitzeko eta hitzekoa ez den hizkuntza egokiaz garatzea. - Emozioak adieraztea eta kontrolatzea. - Gatazkak ebatzea - Kritikak lasaitasunez egitea eta jasotzea. - Logura, elikadura eta higienearen arloko beharrak betetzea. - Afekzio-beharrak betetzea. - Aldaketetara egokitzea. - Etxeetan laguntzea.
Ikastetxea	<ul style="list-style-type: none"> • Lorategiz hornitutako eta ondo apaindutako espazio fisikoak; ondoko aretoak izango dituena: egintza aretoa, hizkuntza-laborategia, argazkigintza-laborategia, liburutegi informatizatua, musika-gela, eskola-baratzea, jolas-leku zabalagoa, zabuak eta saski-baloirako saskiak izango dituena. • Eskola-giroa: eskola irekia, sortzailea, alai, lasaia, zoriontsua, erakargarria eta ekologikoa, errespetuaren eta tolerantziaren balioetan oinarritua. • Eskola-jantokia: hezkuntza-jantokia, irakasleek eta gurasoek parte hartuko dutena; bertan familiekin elikadura-arloko ohiturak eta irizpideak, mahaian izan beharreko portaera eta errespetuzko giroa partekatuko dira. • Eskola-ordutegi zabalagoa, goizez harrera-zerbitzua antolatuz eta arratsalde itxiera ordua atzeratuz. • Irakasleentzako prestakuntza-espezializaturako baliabideak eta espezialista berriak eta boluntarioak barne hartzea; diziplinarteko talde eraginkorra; askotariko baliabide didaktikoak; erakundeen laguntza.

<p>Irakasleak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Irakatsi eta ikasteko prozesuaren dinamizatzaileak. • Elkarrizketarako irekiak eta bere ikasleen premietara egokitzeko gai direnak. • Ulerkorrak, neska-mutilen garapenaren gizarte-ingurunea ezagutzeko interesa dutenak. • Trebeak eta bokaziokoak, balioen eta ezagutzen hezitzaile gisa jarduten dutenak. • Prestatzeko berritzeko eta teknologia berrietara moldatzeko kezka dutenak. • Komunitate osoarekin errespetuzko jarrera demokratikoa dutenak. • Neska-mutilen gaitasunetan konfiantza dutenak eta iguripen handiak, autonomia, pentsamendu kritikoa, sormena eta ikasteko jakin-mina bultzatzen dutenak. • Familiekin eta komunitateko beste eragileekin hitz egiteko eta bitartekari gisa jarduteko gizarte-trebetasunak garatzen dituztenak.
<p>Familiaren parte-hartzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxearekin eta inguruko beste pertsona eta erakundeekin berdintasunezko elkarrizketaren bidez lankidetzan jarduten dutenak. • Familia guztien eta ikastetxearen artean harreman arina eta etengabea mantenduko dutenak. • Ikaskuntza-jardueretan zuzenean laguntzen dutenak. Etxean bertan zein ikastetxean eta ikasgelan. • Beretzat eta bere seme-alabentzat iguripen handiak sortzen dituztenak.
<p>Auzoa</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte eta kulturaren arloko jarduerak antolatzen dituzten erakundeekin lankidetzan. • Eskolako jardueren eta gizarte eta kulturaren arloko jardueren artean koordinatuta. • Parte-hartzaileek kontsumitzaile gisa dituzten harremanak aldatzeko lankidetzan, beren protagonismoa eta gozamina eta beren heziketa-izaera sustatuz.

2.2. Karmengo Ama LHI ikastetxeko ametsaren fasea

Karmengo Ama LHI ikastetxeak ametsaren fasean “euriaren” edo “ideia-jasaren” teknika erabili zuen. Bidezko eztabaidaren ondoren eskola idealaren ezaugarriak landu ziren. Hasiera batean gauza azkarra izango zela pentsatu zen, bilera bat edo birekin nahikoa izango zela uste zen. Dena den, berehala konturatu ginen eztabaida luzeagoa eskatzen zuela; eztabaida luzatzearen beharra ez zen desadostasunen ondoriozkoa izan, eztabaidatu eta sakondu beharreko gaiak eta alderdiak askotarikoak ziren eta horretarako zenbait bilera egin behar ziren.

Familiak zikloen araberako multzoetan banatu ziren beren ametsa lantzeko. Prozesu honetan hainbat senitarteko bozeramaile aukeratu ziren eta bozeramaile hauetan oinarrituta sortu zen proiektuan berebiziko garrantzia izan duen irudia: “gela bakoitzeko senitarteko ordezkariak”. Irudi honek senitartekoek prozesuan eta hainbat lan zehatzetan inplika daitezzen eta parte har dezaten erraztu du, hala nola Ikaskuntza Kontratua lantzeko lanetan –ikastetxeko senitartekoek iguripen eta interes handia jarri dute honetan–.

Fase honetan, hain zuzen ere, hasi ziren senitartekoak ikastetxea aldatzeko benetako aukerak ikusten eta sinesten; izan ere, ikastetxe honen eta familien arteko komunikazioa eta elkarriketa ez zen ordura arte oso oparoa izan. Amets egiteko aukera ematerakoan inoiz amestu ez ziren iguripen eta aukera handiak zabaldu ziren konturatu gabe. Familientzat aire garbiko arnasaldia izan zen egoera hori, esparru horretan gauza guztiak lotuta eta itxita zeuden beti eta ez zen senitartekoen parte-hartze aktiborik izaten. Kolektibo gisa parte-hartze erabakigarria zuten lehen aldia zen.

Hasiera batean zalantzak sortu ziren: amets hori ideiak eta ekarpenak alde zurretik finkatuko zituzten jarraibide batzuen arabera egin behar zen edo ez, hau da, ametsa egiteko ikastetxearen funtsezko alderdiak (antolamendua, metodologia, curriculum, familien parte-hartzea...) aintzat hartuko zituen kategorizazio bat abiapuntu izango zen edo ez. Azkenean amets librearen aldeko apustua egin zen.

Neska-mutil gazteenek beren gustuko eskolari buruzko marrazkiak eta horma-irudiak egin zituzten. Honez gain, beste teknika batzuk ere erabili ziren beren parte-hartzea ahalik eta zabalena eta errealena izan zedin. Teknika hauen artean ondokoak nabarmen daitezke:

- Ideia-jasa eta arbelean idaztea.
- Eskolari buruzko bideoa jartzea eta zer gauza dauden eta zer ez ikustea
- Txotxongiloa.
- Ipuin-lehiaketa.

Irakasleen taldea zuzendaritza-taldeak dinamizatu zuen eta horretarako Pedagogi Aholkute-giko (gaur egungo Berritzegune-etako) aholkularien lankidetzara izan zuten. Irakasle-taldeak prozesurik egokienei buruzko gogoeta egin zuten eta, ondoren, ametsak antolatu eta beren protagonistei itzuli zizkieten.

Senitartekoen ametsa
<ul style="list-style-type: none"> • Gure seme-alabek euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez zuzen hitz egiten eta idazten ikasiko duten eskola. • Neska-mutilentzat ez ezik, gurasoentzat ere informatika egongo den ikastetxea. • Gure seme-alabei ikasteko ohiturak eta teknikak irakatsiko dizkiena. • Guztiak laguntza eta errefortzuak emango dien eskola: zertxobait atzeratuta daudenak eta gehiago ikasteko motibatuta daudenak. • Irakasleen nortasuna orokorrean gara dadin lortuko duen ikastetxea (autoestimua...). • Euskara, gaztelania, ingelesa eta portugesa irakatsiko duen eskola. • Ondokoen gisako gaiak jorratuko dituen ikastetxea: higiena, bide-heziketa, lehen laguntzak, etxeko biziraupena, kontsumoa, drogak, gaixotasunak, sexualitatea, nutrizioa... • Irakurketa bultzatuko duena, irakasleen artean zein gurasoen artean (liburutegia...). • Senitartekoei euskara irakatsiko diena.

Irakasleen ametsa
<ul style="list-style-type: none"> • Aurrerapen teknologikoak, besteak beste, erabilita emaitzak hobetuko dituen eskola. • Eskola euskalduna (irakasleak, irakasle ez diren langileak, gurasoak eta ikasleak). • Eskola integratzailea, aniztasunera egokitzen den tratamendu baten bidez alderdi etiko eta

kultural guztiak landuko dituen: hezkidetzaren autonomia, iritzi kritikoa, erantzukizuna eta ikaskide eta irakasleekiko errespetua.

- Ikastetxearen martxan gure parte-hartzea eta koordinazioa areagotzeko duena.
- Gaur egun komunitatean dauden baliabideak izango dituen eta etengabe eguneratuko dituen ikastetxea; pertsona guztiek izango dute baliabide hauen berri eta eskola-orduek kanpo erabili ahal izango dituzte.
- Eskola dinamikoa, arina, aktiboa eta parte-hartzea bultzatuko duena eta hau guztia erraztuko duen antolamendua izango duena.
- Lehen Hezkuntza amaitutakoan ikasleek euskaraz eta gaztelaniaz zuzen hitz egiten eta idazten jakingo duten ikastetxea.
- Irakurzaletasuna sustatuko duen eskola.
- Neska-mutil txikienei moldatutako ikastetxea (jantokia, ikasgela, arriskurik gabeko espazioak, jolas-tokiko jostailuak).
- Gurasoek eskola beren gauzatzat eta gauza positibotzat hartzea.

Ikasleen ametsa

- Eskola errespetagarria eta dibertigarria izatea.
- Eskola honetan DBH egin ahal izatea.
- Eskola beti irekita egotea.
- Eskola konpontzea (kanpotik eta barrutik garbitzea eta margotzea, ikasleek egindako koadroekin eta marrazkiekin edo horma-irudiekin apaintzea, paperontzi gehiago eta apal gehiago jartzea...).
- Ondokoa egotea:
- Informatika gehiago.
- Gimnasia gehiago eta kirol gehiago.
- Esku-lan gehiago.
- Laborategi-eskolak.
- Igeriketa-eskolak.
- Liburutegia gehiago erabiltzea (egunero ordubeteko irakurketa).
- Portuges gehiago.
- Patinajea.
- Musika gehiago.
- Bideo-gelara gehiago joatea.
- Antzerki-eskolak.
- Frantsesa.
- Etxeko lan gutxiago.
- Hain azkar ikasten ez dutenentzako laguntza.
- Talde-lan gehiago.
- Txango gehiago.
- Pailazoen emanaldi gehiago.
- Kurtso-amaierako bidaia gehiago.
- "Askari handi" gehiago.
- Eskolara animaliak eraman ahal izatea.
- Jolas-garaietan jolasteko materiala (baloiak, monopatinak, panpinak...).
- Etxean ahazten dutenentzako ordezkoko materiala.
- Beheko jolas-lekuan txirristak eta zabuak dituen parkea.
- Belarrezko futbol-zelaia eta bertako etxolak pintatuta egotea.

Familien eta irakasleen ametsak oso antzekoak izan ziren eta ikasleek ekarpen gisa gaineratutako elementuetako asko ere bai. Horrenbestez, oso erraza izan zen guztiontzako amets baten inguruan ados jartzea, helburu eta nortasun-ezaugarri izango den amets baten inguruan ados jartzea.

2.3. Ramón Bajo LHI ikastetxeko ametsaren fasea.

Ramón Bajo LHI ikastetxeko lehen sentsibilizazio-saioan jada komunitateko sektore guztiek hartu zuten parte. Eskola ideala nolakoa izan beharko lukeen irudikatzea proposatu zitzaigun, errealitate bihurtzen ari zen utopia horrekiko lehen harremana izan zen.

Ametsaren fasera iristerakoan hainbat bilera egin ziren fase hau nola burutu behar zen diseinatzeko: Nork egin behar dugu amets? Zein leku edo espazio izan liteke egokiena? Zein giro izan liteke egokiena? Zenbat denbora hartuko dugu amets egiteko? Zer prozedura edo dinamika finkatuko dugu?

Sentsibilizazio-fasean amets egiteko proposamen bat jaso zen: bakoitzak eskola idealari buruz bururatzen zitzaiona esan behar zuen ozenki. Faseari hasiera eman zitzaionean berehala konturatu ziren bilera-aretoa ez zela amets egiteko lekurik aproposena. Pertsona batzuentzat beste pertsonen inguratuta eta hotzean amets egitea batere erraza ez zenez gero, hainbat estrategia erabiltzea erabaki zen eta estrategia hauen artean pertsona bakoitzak bere ametsak idatziz adierazteko postontzi bat jarri zen, bertan sar zitezkeen amets-idatziak banakakoak edo taldekoak izan zitezkeen. Ikasleek ere amets egin zuten, txikienek grafikoki eta handienek idatziz. Gurasoek, irakasleek, irakasle ez ziren langileek, ikuskaritza teknikoak, LHiko aholkulariek eta zuzendaritzak, zentro zibikoko hezitzaileek eta udalaren haur-eskolako irakasleek ere amets egin zuten.

Ikasleek auzoak ere amets egin zezan proposatu zuten eta horretarako txartel batzuk diseinatu zituzten. Kalez kale eta dendaz denda ibili ziren eta ondoko galdera egin zuten: Auzoko eskola nolakoa izatea gustatuko litzaizuke? Erantzun asko eta askotarikoak jaso zituzten.

Ondoren idatzi, proposamen, marrazki, horma-irudi eta gainerako guztiak jaso ziren eta eztabaidatu ondoren guztiontzako amets bat landu zen. Ametsak mailatan sailkatu ziren eta hauei buruzko azterlanak aurkeztu ziren.

Ramón Bajo LHI ikastetxearen ametsa	
Ikasleak	<ul style="list-style-type: none"> • Ondo pasatzea. • Prestakuntza integrala. • Bizitzarako ikasteko motibatuak. • Errespetatuak eta baloratuak. • Beren premiak abiapuntu eta helburu izatea. • Eskolara huts egin gabe. • Mota guztietako ikasleen integrazioa. • Nork bere sustraiak ezagutzea eta baloratzea.
	<ul style="list-style-type: none"> • berdintasunezko harremana familia guztiekin.

Familiak eta beste eragile batzuk	<ul style="list-style-type: none"> • Beren seme-alaben ikaskuntzan eta aisialdian inplikatzeari. • Iguripen handiak planteatzeari. • Familiek beren neska-mutilak baloratzeari. • Hezkuntza-prozesuetan irakasleekin eta gainerako eragileekin lankidetzan jardutea eta hezkuntza-prozesua beretzat hartzeari. • Senitartekoentzako prestakuntzari. • Elkarrean inplikazioa familiei eta ikasleei laguntzeko.
Ikastetxea	<ul style="list-style-type: none"> • Ordutegi malgua. • Guztiarentzat irekia, bereizketarik gabe. • Guztiaren parte-hartzearekin eta lankidetzarekin eraikia. • Auzora zabalik dagoena eta auzoan parte hartzen duena. • Politiki, alai eta atsegina. • Espazioak bizitza publikorako aprobetxatzeari. • Hierarkiarik ez duena eta gizarte-desberdintasunak areagotzen edo mantentzen ez dituen. • Etiketak jartzen ez dituen. • Auzoko iguripenei erantzuten diena. • Eskolaz kanpoko jarduerak: musika, hizkuntzak, informatika, xake-jokoa, mendirako irteerak. • Kanpoko eragileak koordinaturik sartzeko aukera emango duena. • Baliabide eta bitartekorik onenak izango dituen bizitzarako eskola.
Irakasleak	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasunezko harremanak. • Iguripen handiak. • Burokrazia gutxiago. • Egonkortasun profesionala. • Tolerantzia. Markatzerik gabea. • Ikasleen hizkuntzak jakingo dituzten irakasleak. • Estamentu guztiekin koordinaturik lan egitea. • Estamentu guztiek beren lana errespetatzea eta baloratzea. • Hezkuntza ez-sexista eta kulturartekoa garatzea. • Aholkularitza psikologikoa eta pedagogikoa edukitzea. • Huts egiteak onartzea eta hauetatik ikastea. • Lan komunerako esparrua garatzea.
Ikaskuntzak /baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> • Kontratu didaktikoa. • Intelektuala, maneia daitekeen eta funtzionala den horretan oinarritua. • Hutsegiteetan oinarrituta lan egitea. • Arazoen ebazpena abiapuntu izanik ikastea. • Mota guztietako kultur adierazpenak aintzat hartuko dituen metodologia. • Aisialdian eta aisialditik ikastea. • Baliabide guztiez baliatzea, batez ere ikasleentzat. • Dinamikoa eta malgua, nabarmentzen den horretan oinarritua. • Irudimena lantzea. • Mundua irakurtzen irakastea. • Baratzea erabiltzea. • Baliabide guztiak koordinatzea. • Etxeko ekonomia eta kultur bizitza sustatzea.

2.4. Ruperto Medina LHI ikastetxeko ametsaren fasea.

Ruperto Medina LHI ikastetxean guztiok gustatuko litzaigukeen ikastetxearekin amets egiten dugun ematen zaio hasiera eraldaketa-prozesuari.

Hainbat bilera egin ziren eta guztien ekarpenak jaso ziren, ondoren lortu nahi den ikastetxeari buruz eztabaidatzeko eta adostasun batera heltzeko.

Ondoko premisak aintzat hartuta dagoeneko landuta zuten Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua hartu zuten abiapuntu:

1. Herri-ikastetxea den aldetik ezinbestekoa da helburu argiak edukitzea arrakasta lortzeko.
2. Hobetuko bada, asmo handiak aintzat hartzea.
3. Aukeratzen duguna izango dugu.
4. Autoestimua ezinbestekoa da arrakasta izateko.
5. Komunitateko kide guztiek batera egingo dugu lan.

Beste ikastetxeetan bezala, zikloko bilerak, klaustroko bilerak eta senitartekoen bilerak egin ziren. Hainbat estrategia erabili ziren: eztabaida-foroak, marrazkiak, horma-irudiak. Eta azkenean komunitate osoaren adostasunaz guztiok nahi zuten eskola-ametsera heldu zen:

Ruperto Medinaren ametsa
<ul style="list-style-type: none">• Ateak zabalik dituen eskola demokratikoa, pluralista, integratzailea, sortzailea, erantzukizun partekatuak dituen eta gure seme-alaben arrakastarekin ilusio handia duena.• Ikasleen arteko desberdintasunak ezabatuko dituen eskola; curriculumean, estrategia pedagogikoetan eta ikastetxearen zuzendaritzan eta kudeaketan eragina izango duten aldaketak izango dituena.• Ikasle guztientzat ikasteko iguripen handiak dituen eskola.• Oinarrizko trebetasunek, gizarte-gaitasunek, hizkuntzek (gaztelaniak, euskarak, ingelesak, frantsesak), informatikak, xake-jokoak, talde-lanak, ikasleen autonomiak eta abar lehentasuna izango duten eskola.• Batzordeetan, batzarretan, ikastetxearen antolamenduan, ikasgelan eta abar senitartekoen erabateko parte-hartzea izango duen eskola.• Guztien arteko tolerantzia, errespetua eta bizikidetasun baketsuaren gisako balioei lehentasuna ematen dien eskola.• Buenavista auzoan integratuta dagoen eskola.

Azken finean, amesten dugun eskolak gure seme-alabei garapen pertsonala, trebetasunak eta gaitasunak eskuratzeko aukera emango die. Izan ere, garapen pertsonala eta trebetasun eta gaitasun hauek ondokoan laburbil daitezke:

- | |
|--|
| <ol style="list-style-type: none">1. Zoriontsuak izatea.2. Beren buruan konfiantza eta errespetu handia izatea.3. Beren baitan gogo bizia sentitzea.4. Pertsona gisa ase egotea eta beren burua garrantzitsutzat hartzea, egiten dutena egiten dutela |
|--|

- ere.
5. Beren buruari eta bizitzari dagokionez sentimendu positiboak izatea.
 6. Beren burua eskolaren parte dela ikustea.
 7. Ezezaguna dena bilatzea, ikertzea eta esperimintatzea.
 8. Bizitza zamatzat baino gehiago miraritzat hartzea.
 9. Aktibo mantentzea.
 10. Arazo saihestezinen menpe gera daitezen saihesten ikastea.
 11. Deprimetuta egotea edo ez-gauza ez sentitzea.
 12. Beren bizitzaren egile direla jakitea, hau da, aukeratzeko eta beren existentzia aldatzeko gauza direla jakitea.
 13. Arazoetan oinarritu beharrean irtenbideetan oinarritzea.
 14. Oraina bizitzea eta orainari balio ematea.
 15. Bizitzan helburu edo xede bat dutela argi eta garbi sentitzea.
 16. Naturarekin eta gizakiekin sentiberak eta adeitsuak izatea.
 17. Beren gaitasunak antzematea eta trebatzea.
 18. Ondokoen gisako nolakotasunekin motibatuta egotea: hautemate artistikoarekin, maitasunarekin, errespetuarekin, justiziarekin, munduko bakearekin.
 19. Beren aurrerapena neurtzeko gainerakoekin ez alderatzea edota lehiatzea.
 20. Besteen onarpena edo aldeko iritzia bilatu beharrean egia bilatzea.
 21. Barru-barruko deiari jarraitzea.
 22. Beren uste sendoen arabera bizitzea eta kanpoko onarpena ez bilatzea.
 23. Ez aspertzea eta interes-eza ez ezagutzea.
 24. Bizitzarekin liluratuta egotea eta edozein gauzarekin poza bilatzen jakitea.
 25. Bizitza esker onez bizitzea.
 26. Bizimodu osasuntsua izatea. Osasun fisiko eta buru-osasun ona izatea.
 27. Pertsona umoretsuak eta dibertigarriak izatea.
 28. Independentek izatea.
 29. Porrota ikaskuntzaren parte gisa onartzea.
 30. Konformista ez izatea.
 31. Irabaztearekin itsututa ez bizitzea.
 32. Buru-jarrera positiboa izatea.
 33. Maitatuak sentitzea eta maitagarriak izatea
 34. Laburbilduta: BEREN BIZITZAZ ARDURATZEN DIREN PERTSONAK IZATEA

V LEHENTASUNAK AUKERATZEKO FASEA, ANTOLAMENDUA ETA KUDEAKETA

1.Planteamendu orokorra

Ikaskuntza Komunitateen planteamenduak hezkuntza-eragile guztien parte-hartze eraginkorra aintzat hartu eta erraztuko duten erreferentziazko esparru berriak ezartzea exijitzen du, besteak beste. Proiektuak hezkuntza formala ingurunearen aldaketa eta garapen kulturalerako baliabide bihurtu nahi duela kontuan izanik, bi esku-hartze izango dira hau lortzeko funtsezkoak:

- Egitura-esparrua aldatzea
- Metodologia-esparrua berregituratzea

Kapitulu honetan egitura-esparruaren aldaketa izango dugu aztergai eta alderdi metodologikoak hurrengo kapituluan aztertuko dira.

Lehenari dagokionez, gaur egun eskolan mantendu ohi diren botere-erlazioak berrantolatzea proposatzen da; hala, ikastetxeko ikasleen hezkuntzarekin lotzen diren alderdirik garrantzitsuenei buruzko erabakiak hartzerakoan berdintasunetik parte hartzeko aukera emango da eta ez da inola ahaztuko komunitatearen barruan funtzio eta erantzukizun desberdinak daudela, hau da, oso desberdina dela senitartekoa izatea edo irakaslea edo laguntzailea edo boluntarioa izatea.

Egitura-aldaketa abian jarri ondoren, edo honekin batera, esparru metodologikoa berrantolatzeari ekin dakioke, alderdi didaktikoei buruzko eztabaidaren eta adostasunaren bidetik.

Aldaketa honen barruan hasiera batean lehentasunak aukeratzeko fasea planteatzen da. Lehentasunak aukeratu direnean, lehentasun horiek gauzatzeko proiektuaren planteamenduen antolamendu eta kudeaketa egokia definitzen da.

1.1 Lehentasunak aukeratzeko fasea

Fase honek berdintasunezko parte-hartzearen planteamenduari erantzungo dio. Fase hau familiek eta gainerako eragileek curriculum-gaietan esku hartzen duten lehen aldia izango da. Amets egitea utopia bazen, hau da, guztion ahaleginak bideratuko zituen helmuga bazen, lehentasunak, berriz, ikastetxe barruko eta neurri batean kanpoko eguneroko lana gidatuko duten erabakiak izango dira. Garrantzitsua izango da ametsaren alderdi batzuk epe laburrean eta luzean lantzea, betiere garrantzitsua denaren eta egin daitekeenaren arteko oreka gordetzen saiatuz. Garrantzitsua den horretan antzeman diren arazoak edo premiak kontuan hartu behar dira eta inplikaturik dauden pertsona desberdinentzat balio handiko elementuak aintzat hartu behar dira. Egin daitekeen horren barruan gaur egun ditugun edo mugiaraz ditzakegun baliabideak eta alderdi sendoak kontuan izan behar dira. Lehentasunak epe laburrera eta ertainera lor daitezkeen helburuak izango lirateke.

Errealitatea zehatz-mehatz ezagutu beharko dugu, baldin eta ametsaren arabera errealitatearen zein alderdi aldatu behar den jakin nahi badugu eta horretarako zein baliabide dugun jakin nahi badugu. Ikastetxeari berari buruz hausnartzen badugu,

ikastetxean zer baztertu, sustatu edo aldatu behar den jakin ahal izango dugu. Komunitateak zehatz-mehatz aztertuko du ikastetxearen eta bere ingurunearen errealitatea: bere historiari buruzko informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa; ikasleen, irakasleen eta administrazioko langileen erreferentziak; komunitateko kulturei buruzko informazioa; curriculum-praktiken deskribapena; eskolaren ahalmenen azterlana; irakasleen prestakuntza; baliabideak; familien parte-hartzea; bertaratze-maila; eskola-arrakasta, eskola-porrota...

Horrenbestez, abiapuntutzat ametsa eta testuinguruaren analisia hartuz gero, eraldaketa-prozesuaren jardun zehatzei ematen zaie lehentasuna, egin beharreko aldaketak identifikatzen dira eta aldaketa hauek lortzeko landu beharreko lehentasunak ezartzen dira.

Aukeraketa hau abiapuntu izanik zehaztapen-maila desberdinetan parte-hartzea erraztuko duen antolamendua sortu beharko da eta, hala, hainbat hezkuntza-espaziotan gauzatu beharreko proposamenak finkatuko dira.

Aldaketa ezin da alde zuzenetik definitu, pertsona guztien artean eraikitako prozesu bat izango da. Hori dela-eta, ezinbestekoa izango da ikastetxeen antolamendu formalak lehen ahalegina egitea beharrezko topaguneak sor daitezen, bai komunitatearen hezkuntza-estrategiei buruz gogoeta egiteko topaguneak, bai hezkuntza-estrategiak diseinatzeko topaguneak (hezkuntza-prozesuan barne hartzen diren banako guztien kultur garapenaren sustapena barne). Eskola ez da kontzeptuzko edukiak eskura daitezen soilik sustatuko duen espazioa.

1.2. Batzordeak

Ikastetxerako helburu komunak ezartzeko eta lortzeko guztien arteko, hau da, familia, irakasle, ikasle, komunitateko eragile eta abarren arteko lankidetzak aktiboak lortu nahi dugu. Horretarako, elkarrizketa-egoera baten barruan eskola-komunitate honetako parte-hartzaile guztiei hezkuntza-erabaki garrantzitsuetan parte hartzeko aukera ematen zaie eta erabaki hauek abiarazteaz arduratzeko eta erabaki hauen emaitzez arduratzeko aukera ematen zaie. Azken finean, erabakia inplikaturik dauden pertsonen esku dago. Hau sustatzeko lehentasunetako bakoitzarekin lotzen diren batzordeak sortu dira eta batzorde hauetan irakasleek, familiek, hezitzaileek eta boluntarioek hartzen dute parte. Batzorde hauek lehentasun horiei aurre egiteko ekintza-plana proposatzeko dute, baita lehentasunetako bakoitzeko sakondu beharreko alderdiak edo prestakuntza, zereginen banaketa eta ebaluazio-prozesua ere. Batzorde hauetan pertsona bakoitzak bere iritziak eta argudioak gaineratzen ditu eta erabakia hartzerakoan ez dio axola proposamena irakasle batek edo senitarteko batek aurkeztea, proposatu diren helburuak lortzeko proposamena egokia izatea baizik.

Hortaz, gaur egungo gizarte-teoriek bizitza kolektiboa baliagarritasunaren oinarrietan antolatzeko egiten duten proposamenari jarraituko diogu eta ez boterearen oinarrietan antolatzeko proposamenari, hau da, gaineratutako argudioen arabera eta ez ekarpen horien mailaren edo posizioaren arabera. Ideiarik onenak batzuetan klaustroko kideek proposatutakoak izaten dira, baina beste batzuetan ikasketarik ez duten gurasoek edo aitona-amonek egiten dituzte. Berdintasunezko elkarrizketa hori antolatuz gero, neska-mutilen kultur testuingurua aldatzen da, Vygotsky-k (1979) neska-mutil hauen ezagutza kognitiboetan aurrera egiteko proposatzen zuen moduan. Aldaketa hori gauzatzeko

badugu, aldaketa egiteko aukera eman behako dugu eta horretarako aldaketa egiteko aukera ukatzen duten teoriak gainditu behar ditugu (postmodernismoa, erlatibismo), hau da, elkarrizketa oro botere-borondatea ezkutatu baizik egiten ez duen iruzurra dela dioten teoriak gainditu behar ditugu.

Hasiera batean aukerarik ez duela ematen duen pertsona horrengan iguripenak sortuz eskolak aldaketa-ahalmena eragin dezakeen ustea garrantzi handikoa da, benetako haustura-puntua izango da. Elkartasuna eta komunikazioa proiektuaren funtsezko zutabe bihurtzen dira, guztien arteko etengabeko elkarrizketak ikasle guztien hezkuntza errazten eta bultzatzen du. Nolanahi ere, erronka zail baten aurrean gaudela kontuan izan behar dugu; historikoki eraiki diren eta komunikazioa eragozten duten oztopoak hautsi nahi ditugu batzuen onurarako eta beste batzuen kalterako. Gainera, irakasleak eta senitartekoak ez gaude berdinen moduan hitz egiten eta lan egiten ohituta.

2. Esperientzia: Karmengo Ama LHI ikastetxeko lehentasunak aukeratzeko fasea eta antolamendua

Ametsak eta gure errealitatea mahai gainean jarri ziren eta ametsak baloratu eta mailakatu egin ziren. Epe laburrera eta epe ertainera bete zitezkeenak, denbora gehiagoz aztertu behar zirenak eta prestakuntza behar zutenak hartu ziren aintzat.

Eskola-liburutegia, eskolaz kanpoko jarduerak edo informatika-gela hurbilagoko ametsak ziren eta, agian, kudeatzeko errazagoak ziren. Hizkuntzekin, familien harremanarekin eta parte-hartzearekin edo arlo desberdinetan teknologia berriak erabiltzearekin lotzen diren beste batzuk ordea gehiago sakondu behar ziren. Familiak gai hauetan inplikaturik, ordura arte familientzat ia ukiezinak ziren alderdian familiek benetan parte hartzea ekar zezakeen. Izan ere, ametsetan ikusi ahal izan zenez familiek interes handia dute gai hauetan. Gainera, beren seme-alabei dagokienez lehentasuneko gaiak direla adierazteaz gain, beraiek ere gai hauetan sakondu nahi dutela ikusi zen.

Karmengo Ama Ikaskuntza Komunitateko irakasleek oso apustu handia egin genuen: *familiak barne hartu nahi genituen, lan egiteko modua bera aldatu nahi genuen, metodoak eta antolamendua aldatu nahi genituen, komunitatea benetan ikastetxean integra zedin eta ikastetxea komunitate horretara zabal zedin lortu nahi genuen*. Ezin zen ahaztu hezkuntza-komunitatea klaustroaz harantzago doala eta familiak eta ikastetxeaz kanpoko hezkuntza-eragileak inplikatzea garrantzi handikoa dela. Gainera, beste esperientzia batzuei esker jakin badakigu proiektuak ez direla askotan gauzatu helburuen eta helburu hauek gauzatu ahal izateko antolamenduaren artean egokitzapenik ez egotearen ondorioz. Hortaz, antolamendua diseinatzerakoan eta kudeatzeko modua diseinatzerakoan kontuan izan behar zen taldea bere helburuetarako egoki zen lan-esparruaz hornitu behar zela.

Ikastetxe guztien ohiko egituren kaltetan izan gabe, ohiko egitura hauek zabaldu behar zirela eta eskolako zein eskolaz kanpoko hezkuntza-eragile guztiok berdintasunez espazio bera izan behar genuela iruditu zitzaigun. Ikastetxearen errealitatearen ikuspegi berrira egokitzeko antolamendu operatiboa eta funtzionala eraiki nahi izan zen. Horretarako egitura berria garatzeko lortu nahi ziren helburuei buruzko irizpide argiak eta adostuak finkatu nahi ziren. Sentsibilizazio-prozesuan eta ametsa egiteko prozesuan egindako lanaren ondoren, komunitateko eragile guztiek berriro hartu zuten parte eta, antolamendu-plangintza berria hasiera batean egokia izan bazen ere, ondoren hainbat egokitzapen egin behar izan zaizkio dagoeneko zeuden egituretara moldatzeko. Sortu den antolamendua, batetik, malgua izan dadin saiatu da, sormenari esker operatiboa eta funtzionala izan dadin eta estutuko duten arau zorrotzik izan ez dezan. Bestetik, antolamenduak pertsona guztien parte-hartzea erraz dezan eta guztiek beren arauak ezagut ditzaten eta bere egin ditzaten lortu nahi izan da.

Lehen erabilitakoaren antzeko prozesu baten bitartez aukeratu ziren lehentasunak. Lehentasun hauek laburtzeko ametsaren fasean finkatutako ikasgeletako senitartekoen ordezkarien egitura erabili zen. Epe laburrera eta ertainera azter zitezkeen eta aztertu nahi ziren ametsaren alderdiak aukeratzeko sortu ziren lehentasunak lau esparru nagusitan bildu ziren:

1. Hizkuntzen ikaskuntzarekin eta hauen tratamendu integratuarekin lotzen den guztia sustatzea.
2. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak arloetan sartzea.

3. Komunitateko gainerakoekiko erlazioa eta parte-hartzea hobetzea.
4. Aniztasunerako erantzuna, aldaketa metodologikoari esker ikasle guztiek beren ikaskuntza hobe dezaten.

2.1 Batzordeak

Adierazitako esparruetako bakoitzarekin lotuta ondoko batzordeak sortu ziren:

- Antolamendu Batzordea, familiek eta beste hezkuntza-eragile batzuek esku har dezaten errazteko estrategietan oinarritzen da.
- Hizkuntz Batzordea, euskara eta gaztelaniaren ikaskuntza, ikastetxeko hizkuntza gisa, eta ingelesaren ikaskuntza, hirugarren hizkuntza gisa, erraztuko duten estrategia pedagogikoetan oinarritzen da. Era berean, aurrekoek gain zeuden beste ama-hizkuntzak mantentzeko eta errespetatzeko kezka ere barne hartu zen, hizkuntza hauen artean portugesa dago.
- Teknologia Berrien Batzordea, teknologia berrien azterketan eta ikasgeletako edota ikastetxeko eguneroko lanean teknologia berri hauek eta batik bat informatikak duten aplikazioan oinarrituko da. Halaber, gaur egungo funtsezko ahalmenarekin, hau da, informazioa aukeratzearekin eta prozesatzearekin lotzen den guztia hartuko da kontuan.
- Laguntza Batzordea (gaur egun Berrikuntza Metodologikoko Batzordea deitzen dena), proiektuak lortu nahi dituen helburuekin eta bere xedekin bat datozen berrikuntza metodologikoen azterketan eta proposamenean oinarrituko da, baita proiektua bera ebaluatzeko mekanismoetan ere, betiere esku hartzen duten eragileen esparruan zein ikasleen aurrerapenen esparruan.

Batzorde hauetan berdintasunez har dezakete parte irakasleek eta kanpoko eragileek (gurasoek, gizarte-laguntzaileek, kaleko hezitzaileek eta abar) eta batzordeko koordinatzaileak irakasle bat eta senitarteko bat izango dira. Batzorde hauetan parte hartzeak ez du zertan lan handiagoa ekarriko irakasleentzat, eskola-ordutegiaren barruan antolatzen saiatzen dira eta, hori ezinezkoa bada, ordutegia liberatuko da. Astean bilera bat egitea finkatu da. Ondokoak izango dira batzorde hauen funtzio orokorrak: arazoak ebazteko edo finkatutako helburuak lortzeko ekintza-plana proposatzea eta egitea, arazo edo helburu hauekin lotzen diren prestakuntza-ekintzak planteatzea, planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea eta berau egiteko beharrezko baliabideak kudeatzea edo lortzea.

Lehentasuneko batzorde hauen osaera eta funtzioak ondoko tauletan laburbiltzen dira:

LEHENTASUNEN BATZORDEAK

OSAERA

- Senitarteko koordinatzailea
- Irakasle koordinatzailea
- Beste senitarteko edo irakasle batzuk
- Aisialdiko arduradunak
- Gizarte Zerbitzuetako ordezkariak
- Auzoko eta/edo kultur arloko elkarteetako arduradunak

FUNTZIOAK / ZEREGINAK

- Lehentasunarekin lotzen diren arazoak identifikatzea.
- Lan-hipotesiak lantzea.
- Aukeratutako helburua lortzeko estrategiak lantzea eta proposatzea.
- Ekintza-plana diseinatzea.
- Hasitako ekintzen jarraipena eta ebaluazioa egitea
- Beharrezko baliabideak kudeatzea

Batzordeetako bakoitzak funtzio edo zeregin hauek gaien edo egindako planen arabera zehaztu zituen.

HIZKUNTZ BATZORDEA	
FUNTZIOAK/ ZEREGINAK	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxearen eta bere testuinguruaren hizkuntz diagnostikoa egitea. • Ikastetxearen eta komunitatearen euskalduntzea sustatzea. • Ikastetxearen hizkuntz arloko murgiltze-prozesua hobetzea. • Ingelesa 3. hizkuntza gisa lehenago sar dadin sustatzea. • Hizkuntza idatziaren ikaskuntza garatzea, ikuspegi konstruktibistatik.
EGINDAKO EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxearen eta bere testuinguruaren hizkuntz diagnostikoa egin ondoren, euskararen erabilera ikastetxean normalizatzeko prozesuari hasiera eman zaio. • Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleek euskararen duten hizkuntz gaitasunaren maila ebaluatu da. • Ikasleen euskarazko eta gaztelaniazko irakurketa ulerkorren maila ebaluatu da. • Euskara, gaztelania eta ingelesezko irakasleen koordinazioa finkatu da. • Garatzen ari den murgiltze-prozesua hobetzeko irakasleen prestakuntzarako mintegia finkatu da. • Ikuspegi konstruktibistatik bideratutako hizkuntza idatziaren gaia landuko duen beste mintegi egonkor bat eratu da. • Ingelesa hirugarren hizkuntza gisa 4 urtetik aurrera sartu da. • Ikastetxeko irakasle-talde batek gehiago ikasi du euskara.

LAGUNTZA-BATZORDEA EDO METODOLOGIAKOA

- Proiektuaren esparruak ebaluatzea

FUNTZIOAK / ZEREGINAK	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasgeletan berrikuntza metodologikoak sustatzea • Ikastetxearen laguntzak premien arabera antolatzea
EGINDAKO EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Proiektuan inplikaturik dauden ustea ebaluatu da inkesta baten bidez • Ikasleen aurreratzea ebaluatzeko kontrol-zerrenda egin da • Lankidetzajokoari buruzko mintegi bat egin da eta jarduerak sartu dira ikasgeletan • Lankidetzajokoaren esperientziak sartu dira ikasgelaren batean, ondoren orokortzeko asmoz • Gizarte-eragileekin ekintza-plan bat koordinatu da, tratatu txarrak gertatzeko edo neska-mutilak uzteko arrisku larriko egoerei aurrea harridakien eta kasu hauek azter daitezkeen.

ANTOLAMENDU-BATZORDEA	
FUNTZIOAK/ ZEREGINAK	<ul style="list-style-type: none"> • Senitartekoen eta kanpoko hezkuntza-eragileen parte-hartzea sustatzea. • Boluntarioak barne har daitezkeen sustatzea. • Senitartekoen prestakuntza erraztea. • Ikastetxearen ordutegi-malgutasuna erraztea. • Ekintza zehatzetarako azpibatzerdeak sortzea. • Senitartekoen euskara ikas dezaten sustatzea.
EGINDAKO EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Auzoko kultur elkarte eta aisialdiko elkarte guztiekin koordinatu da. • Musika-kontserbatorioarekin batera plan bat landu da ikasle guztiak hartzeko. • Familientzako hiruhileko aldizkaria antolatu da. • Liburutegia antolatu da senitartekoen batera. • Senitartekoen prestakuntza-ikastaroak antolatu dira. Ikastaroetan ondoko arloak jorratuko dira: telebistako hizkuntza, osasuna, arlo instrumentalak (tailerren bitartez) eta euskara. • "Ikaskuntza-kontratu" gisako eredu bat egin da. • Gastronomiari buruzko eta literaturari buruzko solasaldi-taldeak antolatu dira.

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIEN BATZORDEA	
FUNTZIOAK/ ZEREGINAK	<ul style="list-style-type: none"> • Irakasleak Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan sar daitezzen erraztea. • Irakasle, senitarteko, ikasle eta ikasle-ohientzako prestakuntza-ikastaroak antolatzea. • Informatika ikasgeletan sartzea. • Beharrezko baliabideak sortzea.
EGINDAKO EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Irakasleentzako informatika-ikastaro trinkoak eman dira. • Senitartekoentzako eta ikasleentzako informatika-ikastaroak ematen ari dira. • Ikasgela guztietan ordenagailu bat sartu da eta Interneten konektatu da. • Informatika-gela eskolaz kanpoko ordutegian zabaldu da. • Senitartekoen prestakuntzarako guraso boluntarioak hartu dira aintzat.

Prozesu osoa koordinatzeko eta kudeatzeko gobernu-mekanismo bat eratu behar izan zen, gure kasuan Kudeaketa Batzorde deitu diogu. Batzorde honek erabaki ahalmena duen zuzendaritza-egitura du eta bertan lehentasuneko batzordeetako irakasle eta senitarteko koordinatzaileek, kanpoko eragileek eta ikastetxeko zuzendaritza-taldeak hartzen dute parte. Ondokoak dira batzorde honen funtsezko funtzioak eta zereginak:

- Lehentasuneko batzordeak koordinatzea
- Lehentasuneko batzordeek aurkezten dituzten proposamenak baloratzea eta hobetzeko iradokizunak egitea.
- Ordezkaritza gehieneko organoari edo Eskola Kontseiluari proposamenak aurkeztea, honek onar ditzan.
- Batzordeak motibatzea bere zereginak gara ditzaten.
- Egiten diren jardueren garapenaren jarraipena egitea eta ebaluatzea.
- Egindako ekintzak Klaustroaren aurrean eta senitartekoen batzarren aurrean azaltzea eta argudioak ematea, betiere beharrezkotzat jotzen denean. Informatuta egongo direnez gero, bidezko elkarrizketaren eta eztabaidaren ondoren, ekintza hauek onartu ahal izango dituzte.
- Proposatzen diren aldaketak erraztea.
- Administrazioaren eta erakunde batzuen aurrean sortzen diren baliabide materialen eta giza baliabideen premiak kudeatzea.
- Guztiek proiektuan inplika daitezzen sustatzea.

Gainerako batzordeek komunitate osoak adostu dituen helburuetarantz aurrera egin dezaten bermatzen du Kudeaketa Batzorde honek. Hasiera batean hamabostero eta eskola-ordutegiaren barruan biltzeko egutegia finkatu zen eta bilera hauen dinamizatzailea ikasketa-burua izango zen.

Ondoko taulak Kudeaketa Batzordearen osaera eta zereginak laburbiltzen ditu:

KUDEAKETA-BATZORDEA

OSAERA

- Lehenetasuneko Batzordeetako senitarteko koordinatzaileak.
- Lehenetasuneko Batzordeetako irakasle koordinatzaileak.
Zuzendaritza-taldea.
Gizarte-eragileak.

FUNTZIOAK / ZEREGINAK

- Proiektua koordinatzea.
- Batzordeen proposamenak baloratzea eta hobetzeko iradokizunak egitea.
- Ordezkaritza gehieneko organoari proposamenak aurkeztea.
- Proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Batzordeak motibatzea.
- Senitartekoen batzarraren aurrean proposatutako ekintzak azaltzea.
- Administrazioaren eta beste erakundeen aurrean beharrezko baliabideak kudeatzea.
- Inplikazioa sustatzea.

Kudeaketa Batzordearen lana arintzearen garapen pedagogikoan eta proposamenen azterketan sakonduko zuen azpibatzaordea eratu zen. Azpibatzaorde honi *koordinazioko barne-plataforma* deritza eta bertan eskualdeko Pedagogi Aholkute-giko kanpo-aholkularitzako zerbitzua barne hartzen da. Izan ere, teknologia berrietan, hizkuntza idatzian eta psikopedagogian aholkulari diren hiru pertsonak hartzen duten parte. Pertsona hauen funtsezko lana sortu diren proposamen eta arazo desberdinei buruz eztabaidatzea, egon daitezkeen irtenbideak aurkeztea, batzorde bakoitzeko koordinatzaileari laguntzea eta proiektuaren orokortasun-zentzuari eusten saiatzea izango da. Plataforma honek proposatutako du ikastetxearen zein antolamendu-egituratan eztabaidatu behar den proposamen bakoitza (klastroa, zikloa edo pedagogia-batzordea), arrakasta eta barne-koherentzia bermatzearen. Astero biltzen da eta ikastetxeko ikasketa-burua izango da dinamizatzailea.

KOORDINAZIOKO BARNE-PLATAFORMA

OSAERA

- Ikasketa-burua.
- Lehenetasuneko batzordeetako koordinatzaileak.
- Pedagogi Aholkute-giko aholkulariak

FUNTZIOAK / ZEREGINAK


- Batzorde bakoitzeko proposamenak eztabaidatzea.
- Batzorde bakoitzean aurkezten diren arazoak ezagutzea eta irtenbideak bilatzen laguntzea.
- Hobetzeko proposamenak egitea.
- Proposamenak eztabaidatutako diren egitura erabakitzea.
- Kanpoko aholkulariei kontsultatzea.
- Bere zereginean koordinazioa indartzea.

Denbora batez bi egitura paralelo izan dira abian: batetik, ikastetxeetako ohiko egitura (zikloko bilerak, zikloko koordinatzaileak, pedagogia-batzordea...) eta, bestetik, proiektuaren ondoriozkoa (lehentasuneko batzordeak, kudeaketa-batzordea, koordinazio-plataforma...). Plataforma honek proposatu zuen hiru ikasturte pasa ondoren bi egitura hauek normaliza zitezen saiatu behar zela eta bat egin zezaten lortu behar zela. Dena den, ohartarazi zuen prozesu honetan ez zela hezkuntza-eragile guztien parte-hartzea murriztu behar; aitzitik, parte-hartzea sustatzen eta errazten jarraitu behar zela eman zuen aditzera.

Horretarako, ondoko normalizazio-prozesua edo antolamendu-egiturak bat etortzeko prozesua proposatu zen:

1. Kudeaketa Batzordearen zeregina sustatzea; izatez, batzorde honek lehentasuneko batzordeek edo sailek egiten dituzten proposamenen koherentzia bermatuko du. Eskola Kontseiluaren bitartez sortzea proposatu zen, eta esleitu zitzaizkion funtzioez gain, Eskola Kontseiluari noizean behin hartutako erabakien berri eta erabaki hauen ondorioen berri eman beharko diote. Batzorde hau hilean behin biltzen da eta Ikasketa Burutzak dinamizatzen du. Bilera honetan hartzen diren erabakiak akta batean jasotzen dira. Koordinazioko Barne Plataforma edo Kudeaketa Batzordearen azpibatzaordea, astean behin biltzen jarraituko da, azpibatzaorde honen zeregina oso positiboa eta eraginkorra dela ikusi baita.
2. Ohiko egituraren barruan suspertzeko beharrik handiena duen egitura Pedagogia Batzordea izan daiteke; errealitatean funtziorik gabe geratzen ari zen, batzuk Kudeaketa Batzordeak hartu ditu bere gain eta beste batzuk Lehentasuneko Batzordeek edo Sailek. Honek irakasleen inplikazioan zuen eragina, zikloetako ekarpenak ez baitziren jasotzen. Antzemandako arazo hau zuzentzeko asmoz, egitura honi espazioa, denbora eta funtzioak eman behar zitzaizkiola erabaki zen. Batzorde honetan irakasle koordinatzaileak, zikloko koordinatzaileak eta zuzendaritza-taldea barne hartzea proposatu zen. Plataforma honek zikloetako eta sailetako proposamenak koordinatzen ditu.
3. Lehentasuneko Batzordeak Sail bihurtu dira eta beren helburua Pedagogia Batzordeari eta Kudeaketa Batzordeari proposamenak luzatzea izango da, ondoren abiaraz daitezten. Batzorde hauek astean behin bilduko dira eta lehentasunarekin lotzen den Pedagogi Aholkuteagiko aholkulariaren parte-hartzea barne hartzen da.

IKASKUNTZA-KOMUNITATEA



Antolamendua berregituratzeko prozesu honetan hainbat arazo sortu dira, hala nola batzordeak koordinatzen dituzten pertsonak aldatzea, hasierako estuasunak, edota egitura berriak, betiere aurreko egituretara egokitzea berdintasunezko parte-hartzea murriztu gabe. Zalantzazko uneak pasa diren arren, une hauek gainditu egin dira guztien lankidetzarekin.

Proiektuaren hasieratik batzordeen sorrera funtsezkoa izan da; nahiz eta klaustroan eta zuzendaritza-taldean pertsonak aldatu diren, prozesuan nolabaiteko jarraitasuna izan da. Batzordeak funtsezkoak izan dira gure proiektuak aurrera egin zezan; are gehiago, gure iritziz batzorde hauek gabe proiektua bideraezina izango litzateke.

Gai batzuen eta besteen arteko erlazioa ere erraztu egin da. Honela, gastronomiari buruzko solasaldietako gurasoek –jarduera honek eman dien prestaketari esker– Metodologia Batzordeak planteatu dituen esperientzietarako ikasgelan lagundu ahal izan dute. Bestalde, portugesa sustatzeko proposamenak jatorri portugaldarreko ikasleen artean ez ezik, bertako ikasleen artean ere jaso dira eta honek guztiz erraztu du hizkuntza hau curriculum arruntean barne hartzea.

Hasiera batean kezka eta zalantzak izan ziren arren, senitartekoen parte-hartzea funtsezkoa izan da prozesu honetan. Senitartekoen parte-hartzea guztiz areagotu dela esan daiteke. Ildo honetan, senitartekoak eta beste eragile batzuk barne hartzea garrantzi handikoa izan da beraiekin lotzen diren jarduerak diseinatzeko proposamenak arrakasta handiz egin daitezela. Horrelaxe gertatu da, hain zuzen ere, senitartekoei zuzendutako prestakuntza-eskaintzaren diseinuarekin; izatez, eskaintza honek arrakasta handi lortu du eta lortzen jarraitzen du parte-hartzeari dagokionez. Hau proiektuan ezinbestekoa den beste arlo batean ere islatu da, Ikaskuntza Kontratuaren eredu egiteko zereginen islatu da. Gure iritziz kontratu hau guztien artean lantzea izan da unean uneko premiei erantzun gisa errealista lortzeko modu bakarra; honela, era berean, familia gehiagoren parte hartzea lortzeko eta neska-mutilen inplikazioa lortzeko aukera izango da. Gauza bera gertatu da aldizkariarekin, hasiera batean familientzat diseinatu zen eta gaur egun familiek beraiek bere gain hartu dute aldizkaria. Honela, aldizkariak interes handiagoa du, komunitatearekin benetan komunikatzeko bide gisa balio du, autofinantzatzen da eta ikasgeletan lan-tresna gisa erabiltzen da.

Batzorde edo sail bakoitzean planteatzen diren helburu eta ekintzetako asko baterako gogoetaren ondorioz sortu dira eta orokorragoak diren beste helburu eta ekintza batzuk lehentasunezko zat jotzen genituen aurretik ere. Antolamendu honen bitartez areagotu egin da komunitateko eragileek egiten duten proposamenen ekarpena eta, bestetik, komunitatearen gainerakoak hobe ezagutzen du proiektua. Hortaz, familiak gehiago inplikatu dira beren seme-alaben ikaskuntza-prozesuan, neska-mutil guztiak gehiago inplikatu dira giro hobea sortzeko eta irakasleek konpromiso eta ilusio handiagoa izan dute proiektuarekin aurrera egiteko. Honekin batera edo honen guztiaren eraginez, eskolak balorazio hobea du inplikaturik dauden familien artean zein herriaren gainerakoaren artean eta, hori dela-eta, gehitu egin da ikasleen aniztasuna.

VI METODOLOGIA

1. Planteamendu metodologikoa

Aurreko kapituluetan aditzera eman den moduan esperientzia honen eraldaketa-prozesua ikaskuntza dialogikoan oinarritzen da.

Ikaskuntza dialogikoak berdintasunezko elkarrizketa du oinarri eta hori hezkuntza-prozesuan eragina duten alderdi guztiak aztertzeke ikuspegi ireki eta malgu baten bidez planifikatutako jarduerekin lortzen da. Jarduera hauetan prozesu horretan esku hartzen duten pertsona guztiek hartzen dute parte eta beren artean harreman horizontala finkatzen da.

Nolanahi ere, mota honetako ikaskuntza ikasgelako hezkuntza-praktikan nola bidera daitekeen aztertu behar da. Orain, ordea, irakasle-taldeak ez dio berak bakarrik honi erantzun behar, ez ditu berak bakarrik irtenbideak bilatu behar. Proiektu honetan sustatzen den eta bultzatzen den parte-hartzearen eta lankidetzaren kulturak pertsonen arteko sarea osatzen du komunitatean. Komunitateko kideen arteko elkarrizketa, elkarrekintza eta adostasuna izango dira gure tresna eta tresna hauen bidez eman nahi diegu irtenbidea arazoei.

Hezkuntza-prozesuan esku hartzen dutenen esperientzia pertsonalek eta gizarte eta hezkuntzaren mailakoei aniztasuna gaineratzen diete hezkuntza-elkarrekintzako moduei, komunikazio-moduei, lankidetzako moduei, laguntza-moduei eta jakintza-moduei. Hezkuntza-prozesuan inplikaturik dauden pertsona guztiek ikasgelaren barruan eta kanpoan adostu duten norabidean koordinatu beharko du irakasleak ikasgelaren barruan pluraltasun hau. Aniztasun honek indartu egiten du ikaskuntza gehitzea, ikasgeletan naturaltasun osoz estrategia anitz sartzeko baita eta hauek ikasleen ezaugarrietara, interesetara, premietara eta kulturara egokitzen baitira. Komunitatearen parte-hartzea zenbat eta handiagoa eta anitzagoa izan, orduan eta gehiago aberastuko da elementu hau.

1.1. Metodologiari buruzko gogoeta: hainbat printzipio metodologiko

Metodologia planteatzerakoan lehenik hezkuntza-prozesua garatzen den testuinguruaren analisia hartu beharko da kontuan. Analisi honek Ikaskuntza Komunitatearen hezkuntza-arloko eta gizarte-arloko errealitate hurbiltzeko aukera ematen du; izan ere, Ikaskuntza Komunitatearen errealitate hori konplexua da eta eragin nabarmena du aktoreetan eta erakundeetan. Eskolak bere testuingurua aztertzen du eta testuinguru horretara zabaltzen da eta, hala, eskola ez ezik, testuingurua bera hobetzeko aukera emango duten gizarte-harremanak, erakunde-harremanak eta pertsonen arteko harremanak identifikatu eta sustatzen dira.

Ildo honetan, oso garrantzitsua da Ikaskuntza Komunitateek beharrezkotzat jotzen diren eraldaketa zehatzak lortzeko egiten dituzten jardueretan *familien eta komunitateko beste eragileak* (boluntarioen, auzo-elkarteen, kultur elkarten, unibertsitatearen, enpresen...) *inplikazioa eta konpromisoa*. Profesionalek komunitateko gainerako kideekin subjektuen arteko elkarrizketa errazten dute eta hauekin harreman horizontala mantentzen dute. Berdintasunezko elkarrizketarako giroa sustatzen da eta, honek

ikasgelen ohiko egitura haustea eta ikasgela barruan zein kanpoan elkarrekintzak erraztea bultzatzen du.

Era berean, ikasten duen eta aurretiazko ikaskuntza formalak eta informalak –onar, baloratu eta/edo egiaztatu daitezkeenak– dituen subjektuaren *ikuskeraren dinamikoa eta positiboa* mantentzen da ekintza metodologikoko printzipio gisa. Ikaskuntza Komunitatearen parte diren pertsona guztiek, neska-mutilek zein helduek, beren esperientzia eta beren jakintzak gainera ditzakete eskolan eta komunitatean. Era berean, beren ikaskuntza-prozesuetan bertan ondorioa izango duten jardueretako askotan inplikatuko dira. Ikastetxean pertsonak berdintasunez onartzeko espazioak sortuko dira eta berdintasunezko egoeretan sortzen den elkarriketaren bidez indartzen da bertan ikaskuntza. Hala, eskola mailakatze-espazio bat eta etiketatze-espazio bat izan dadin saihesten da.

Gizakia izaki aldakorra den ideia hartzen da abiapuntutzat. Gizakia bere burua alda dezakeen izakia da, hau da, aldatzeko gaitasuna duen izakia da. Bere borondatez norabide batean edo beste batean aldatzea erabaki dezake eta gainerako pertsonekin burututako elkarriketaren eta elkarrekintzen bitartez lortzen dira benetan desberdintasuneko eta/edo bazterketako egoerak gainditzeko bideak. Arlo desberdinetako profesionalen eta komunitateko beste gizarte-eragileen laguntzaz ikasgelako esku-hartzeak aberasten badira eta, aldi berean, ikasleen arteko elkarrekintzak sustatzen badira, ikasle azkar, malgu eta trebeagoak egingo ditugu eta beren ikaskuntza-iguripenak gehieneko mailara goratuko ditugu.

Horrela, *ikaskuntza dialogikoak* subjektuen autonomia, ekimena eta erabakiak hartzeko gaitasuna areagotzen du. Sortzen den elkarriketari esker komunitateko eragile guztiek gehitu egiten dute arazoak argudioaren bidez ebazteko gaitasuna. Berdintasunezko elkarriketan oinarritzen diren mota honetako prozeduren bidez gatazka-egoerak gainditzen dira eta baterako jardunak burutzeko bidezko etika garatzen da pertsonen artean.

Ikaskuntzaren banakako alderdia ahaztu gabe, jakintza gizarte-erakuntzako prozesu bat dela hartu genuen abiapuntu. Horrenbestez, helburu komun bat lortzeko eta ikasleen eta eskolako espazioetan inplikatuak diren pertsonen berdintasunezko elkartzea errazteko ekintzak koordinatu beharra planteatzen duten estrategia metodologikoak eta antolamendu-estrategiak formulatu dira Ikaskuntza Komunitateetan. Elkarriketa-prozesuak sustatu nahi dira ikaskuntza berriak elkarrekintzez eraikitzeko. Elkarriketa bidezko ikaskuntzak eta, bestetik, ikaskuntza honek talde elkarreagile, ikasgela ireki, zikloko tailer, proiektu eta abarretan duten zehaztapenak bermatu egiten dute gizabanako bakoitzak –beste pertsonekin partekatutako lanaren eta elkarriketaren bitartez– gaitasunak eta jakintzak eskuratzea.

Eskolak ez ditu, hortaz, gizarte-desberdintasunak eta hezkuntza-desberdintasunak erreproduzitzen. Ahalbidetzen eta aldatzen duen espazio bihurtzen da eskola. Ikaskuntza areagotzen duen espazio bihurtzen da, esperientziak eta jakintzak partekatzen diren espazio bihurtzen da guztion aberastasunerako. Ikasgela barruan dauden ikasleentzat zein eskolaren edozein jardueretan inplikatuak diren helduentzat aukera berriak eta handiagoak sortzen dituen espazio bihurtzen da eskola, guztia positiboan berrantolatzeko aukera gehiago eskaintzen duen espazioa bihurtzen da; subjektuak bere buruaz eta eskola osatzen duten gainerako eragileez duen irudia aldatzeko aukera

gehiago ematen duen espazio bihurtzen da.

1.2. Estrategia metodologikoak: talde elkarreragileak

Komunitateetan askotariko estrategia metodologiko ugari erabil daitezke elkarrekintzak sustatzeko, hauetako batzuk Ramon Bajo ikastetxeko esperientzian jasotzen dira: proiektuen arabera lana, ikasgela irekiak, ikasgelak batzea baterako tutoretza egiteko, interesguneen arabera lana...

Talde elkarreragileak ikaskuntza dialogikoaren printzipioak praktikan jarrita ikasgelan aplika daitekeen metodologiaren adibide bat dira. Hezkuntza elkarrekintza desberdinen arabera dela –gero eta gehiago gainera– kontuan izanik, ikasgelaren espazioan neska-mutilek informazioaren gizartean beharrezkoak diren trebetasunak eskuratzeko bidezko elkarrekintzak sartzen dira. Horretarako, ikasgelan pertsona heldu boluntarioek hartuko dute parte irakaslearekin lankidetzan eta eskolako errendimendua ahalik eta gehien zabal dadin lagunduko dute. Boluntarioen taldea zenbat eta anitzagoa izan, orduan eta aberatsagoa izango da elkarrekintza eta orduan eta errealitate gehiago bilduko dira ikasgelan. Esate baterako, Ikaskuntza Komunitateetako ikasgeletan unibertsitateko ikasle bat, senitarteko bat, ikasle-ohi bat, erretiratutako irakasle bat, enpresaburu bat, funtzionario bat edo auzoko okina aurki ditzakegu.

Talde elkarreragileekin ikasleen taldea mantentzen da, ez da neska-mutil bat bera ere bere taldetik bereizten. Lau edo bost neska-mutilez osatutako taldeak sortzen dira eta taldeak generoari, ikaskuntza-mailari edota kultur jatorriari dagokionez heterogeneoak izan daitezten saiatuko da. Talde hauen osaera egunetik egunera aldatu ahal izango da, baina beti izan beharko dute heterogeneo. Saio bakoitzean egiten diren jarduerak guztiak gai komun baten ingurukoak izango dira eta, hori dela-eta, helburu berari jarraituko zaio saio osoan zehar. Talde guztiek jarduerak desberdinak egingo dituzte txandaka.

Imajina dezagun ordu eta erdiko saio bat eta lau talde elkarreragile osatu ditugula. Neska-mutilen talde hauek hogeit hamar minutu aldatuko dute jarduerak, mahaiez eta boluntarioez eta egin beharreko lana gehitu egingo dute. Elkarrekintzak aberastu egingo dira eta, gainera, ikasleen dinamismo-nahia asetu egingo da. Lortu beharreko curriculum-helburuen arabera jarduerak didaktikoak ikasgelako ardura duen irakasleak programatu dituzte eta kasu batzuetan pertsona heldu boluntarioen lankidetzarekin egingo du. Irakasle hau saioa dinamizatzeaz arduratuko da eta denborak koordinatuko ditu. Taldeetan barne hartzen diren pertsona helduek neska-mutil bakoitzaren lanaren garapena nolabaiteko arretaz jarraitu ahal izango dute eta, hala, zailtasunak identifikatu ahal izango dituzte eta neska-mutilek zailtasun hauek elkarri lagunduz ebatz ditzaten sustatu ahal izango dute. Maila bereko harreman honek, hots, berdintasunezko harreman honek elkarrekintzak aberastuko ditu eta ikaskuntza erraztu eta bizkortuko du. Dinamika berean bi alderdi garatuko dira: batetik, elkartasunaren edo aniztasunaren aldeko tolerantzia gisako balioak (elkarri laguntzea), eta, bestetik, ikaskuntza instrumentala; izatez, laguntza jasotzen duen neska-mutila zein azalpen baten bidez laguntzen duen neska-mutila ikasten ari dira.

Saioetako bakoitzaren ondoren egindako jarduerari eta taldeetan lantzeko moduei buruzko balorazioa egin daiteke eta hala ikasgelako alderdi metodologikoak etengabe hobetu edo berri ahal izango dira. Honek irakasleen eta boluntarioen arteko koordinazioa eskatzen du eta, ondorioz, ikasgelaren barruan konplizitate handia

antzemango da irakasle eta boluntarioen artean. Batzuek zein besteek neska-mutilen ikaskuntzaren gainean ilusio eta iguripen handiak izango dituzte.

Talde txikian arreta askoz ere pertsonalizatuagoa denez gero eta ikasgelaren barruan dauden pertsonen artean sortzen den elkarrizketaren bidez gertatzen diren informazio eta jakintzen trukeei esker, ikasgelako neska-mutil guztien ikaskuntza-maila areagotu egiten da.

Taldean sortzen den dinamikaren bidez ziurtatu egiten da neska-mutil guztiek beren burua beren ikaskuntzaren eta gainerako ikaskideen ikaskuntzaren erantzule hartzea. Ikasleek beren ikaskideak taldean proposatzen diren zereginak ebatzeko beharrezkoak direla ikusten dute eta, hori dela-eta, baliabideak eta berariazko rolak partekatzen dira. Talde elkarreragile hauetan rola aldatzea bultzatzen da: ikasle orok bere ikaskideei “irakats” diezaieke eta beste edozein unetan bere ikaskideengandik “ikas” dezake. Talde elkarreragileetako ikasleek berdintasunezko elkarrizketaren bitartez elkarri laguntzen ikasten du, ahaleginak batera egiten ikasten du, elkarri azalpenak ematen laguntzen du, elkarri adorea ematen ikasten du, eztabaidatzen ikasten du... Horrela, guztiontzako ikaskuntzak arrakasta izan dezan bermatzen da, baita zailtasun handiagoak dituztenen kasuan ere.

2. Esperientzia: Ramon Bajo LHI ikastetxeko aldaketa metodologikorantz

Hezkuntzan egiten diren urratsek ziurak izan behar dutela uste dugu; gure iritziz urrats hauek ilusioz eta baikortasunez egin behar dira. Horretan, hain zuzen ere, ahalegindu gara. Epe labur, ertain eta luzerako ekintza eta berrikuntza guztietan komunitateko kide guztien arteko elkarriketa, adostasuna eta lankidetzaren nagusitu behar direla iruditu zaigu.

Elkarriketa da giltzarria. Kasu honetan Ramon Bajo LHI ikastetxearen errealitatea abiapuntu izanik, elkarriketa hau ondoko bi alderditan bideratu behar dugu:

- Irakasleen, familiaren, komunitateko beste kideen eta boluntarioen arteko komunikaziorako bideak sortzea.
- Ikasgela-tailerrean estrategia berriak aplikatzea.

2.1 Irakasleak: ikasgela eta interesak partekatzen ditugu.

Hitz egin behar izan genuen, alternatibak eskaini behar izan genituen, antolatze eta funtzionatzeko sistema berriak diseinatu behar izan genituen eta batzuetan gure artean eztabaidatu behar izan genuen. Dena den, ondoko moduko adostasunak lortu genituen:

- Zikloak elkartuko dira, ikasgelan irakasle bat baino gehiago izanik parekoen arteko ikaskuntza sustatu nahi da eta irakasleak proiektuaren beste zeregin batzuetara zuzendu ahal izatea lortu nahi da.
- Irakasleek beren borondatez aukeratuko dute curriculumaren zein alderdi jorratuko duten eta, horretarako, irakasle bakoitzak zein alderditarako dagoen hobe prestatuta hartuko du kontuan, baita ikasleekin ikasgelan jarduterakoan zein alderdik asebetetze dezakeen gehiago ere.

Norabide honetan urratsak egiten hasi ginen: bi irakasle edo gehiago ziklo bakoitzaren ikasgela-tailerrean batera eta koordinaturik lan egiten hasi ginen (hizkuntzak, matematikak, supermerkatua, informatika-gela, natura-arloko eta gizarte-arloko tailerra).

Irakasle guztiak ziren ikasle guztien hezkuntzaren arduradun. Antolamendu honen bitartez ikasle guztien jarraipena egitea, banakako eta taldeko arreta bideratzea eta ebaluazioa egitea erraztu zitzaizgun. Sistema honek, bestalde, bi helburu zituen:

- Testu-liburu pertsonala desagertzea. Orain ikasleak argitaletxe guztietako liburuak aurkituko ditu ikasgela bakoitzean eta hauek kontsultatu ahal izango ditu eta hauekin lan egin ahal izango du.
- Diseinuaren, plangintzaren eta burutzapenaren koordinazioa, gure ikasleen iguripenei eta premiei egokitzen zaizkien proiektuen, jardueren eta zereginen errealitatea abiapuntu izanik.

Aldaketa hauen guztien ondorioz ezin genuen galdu tutorearen erreferentzia. Gure ikasleen ezaugarriei jarraituta, trukerako formulak bilatu behar genituen, harrerarako eta eskolako jarduna kokatzeko formulak bilatu behar genituen. Non, ordea, tutoretzan edo erreferentziatzeko oinarritzeko taldean baino hobe? Horretarako, egunero lehen ordu-laurdenean elkarriketarako espazioa ezarri genuen eta bertan ikasleek eta tutoreek elkarri agurtzen diogu eta gure ideiak, sentimenduak, pasadizoak eta azken orduko

oharrak aditzera ematen ditugu, aurreko egunean egindakoa berraztertzen da eta egun horretan egingo dena programatzen edo gogorarazten da.

Espazio honen emaitzak aztertu ondoren denboraz oso labur genbiltzala egiaztatu genuenez gero, talde guztietan astean ordubeteko tutoretza sartzea erabaki genuen. Honek esperientziak trukatzeko aukera emateaz gain, ikasgelan planteatzen denari buruz gogoeta egiteko eta erabakiak hartzeko aukera ematen du.

2.2. Ikasgelako ikaskuntza-espazioak

Hezkuntza-prozesuko jardueren plangintza egiterakoan hausnartu beharreko hainbat galdera sortzen dira: Nola indartzen dira elkarrekintzak? Nola bideratzen da berdintasunezko elkarrizketa ikasleen eta irakaslearen artean? Zein dira ikasteko estrategiarik egokienak? Ikasgelan sartzen den pertsona bakoitzak zer zeregin eta erantzukizun du? Dagoeneko ezagutzen ditugun arteko zein estrategia izango zaigu baliagarria? Lankidetzak Ikaskuntza? Proiektuen araberrako ikaskuntza?... Zein mailatan nagusituko dira azalpen, frogapen, gogoeta edo ikerketaren arloko ikuspegiak? Ikaskuntza-egoera bakoitzean zer eragina izango dute ahozko alderdiek, ikuspenekoek, grafikoen, plastikoen, manipulazioen eta baliabide informatikoen? Zein izango dira jardura bakoitzerako taldekatze egokiak edo taldean lan egiteko modu egokiak, talde txikia zein handian, lan autonomoetan, eztabaidetan, azalpen-eskoletan eta abar? Metodo esperimentalak (aurkikuntza, esperimentazioa, proiektuak, zientifikoa) noiz, nola eta zer motatako edukiekin sustatuko dira? Zer giza baliabide eta baliabide material erabiliko dira (boluntarioak, adituak, pertsona trebeak, laborategia, tailerra, ingurunea, informazio-iturriak)? Zer motatako burutzapen proposatuko diegu ikasleei?

Zabal dezagun ikasgela-tailerreko atea.

"La Pela-k", Carmenek, ziztu bizian aurkitu zuen irtenbidea. Zalantzan zegoen irakasleak esku hartzen utzi zion. *Oso erraza da, arbelean marraztuta dagoena lurrean marraztuta egongo balitz bezala ikusi behar duzue eta, hala, etxea eta iturria aurrean eta atzean daudela ikusiko duzue.* Bere keinuek eta portaerak bere ikaskuntza eta gainerakoen ikaskuntza sendotzen zuen. Gainerako neska-mutilak zur eta lur zeuden eta beren aurpegietan erantzuna zuzena zela eta irakasleari irakastea horrenbeste kostatzen ari zitzaion problema oso ulerterraza zela antzematen zen.

"Mohamed-ek" gaztelaniarekin zailtasunak ditu eta adi-adi entzuten zuen bere ikaskideek lehenaldian idatzita zegoen testu bat orainaldian jartzeko egiten zuten ahalegina. Harrituta begiratzen zuen taldekideen hitz-etorria. Jesus berehala konturatu zen Mohamed-en harriduraz eta ondokoa esan zion: *erraza da, gogoratzen al zara Marokon bizi zinela, hori lehenaldia da.* Mohamed-en irribarreak argi eta garbi erakusten zuen ulertu zuela.

Bi egoera hauek ez dira gure hezkuntza-praktikako pasadizo hutsak; aitzitik, gauzatu nahi dugun metodologiaren oinarria dira. Hasiera batean, ikasleek aurreko ikaslearen lepoa, arbela eta irakaslearen mahaia besterik ez zuten ikusten eta irakaslearen ahotsari erantzuten zioten, isiltasuna zen ikaskuntza egokirako giroa. Oraingo ikasgelan, berriz, espazioak eta ekipamenduak berregituratu egin dira, lan-mahai handiak erabiltzen dira eta arbela ez da ikaskuntzaren pantaila. Arbela ez da funtsezko elementua, orain aurreko ikaskidea, ondoko ikaskidea eta taldearekin elkarrekintzan diharduen pertsona heldua da oinarritzko elementua.

Taldearen giroa elkarriketan eta elkarrekiko errespetuan datza, guztiek har dezakete esku, guztiei entzun behar zaie. Interesgarria da ikasleek lehen egunetan adierazten zutena: “Ez irakasle, bestela kopiatu egingo dut, azalpenak emateko eskatuko diot. Horrela eserita hitz egin dezakegu”.

Gure ikastetxean hainbat kulturatako ikasleak biltzen dira eta ikasle askok eskolaren eguneroko bizitzan erabiltzen den hizkuntzaz –gaztelaniaz– bestelako hizkuntzak hitz egiten dituzte. Zenbait jardueratan beren hizkuntza sustatzeaz gain, garrantzi handikoa da gaztelaniaren ulermena eta produkzioa indartzea, horretarako astean ordubetez gehituko dugu gaztelaniaren tailerra eta arratsaldean ordu-erdiz gehituko dugu eskola-ordutegia hizkuntza idatzia lantzeko taldeak osatzeko asmoz. Arlo guztietan sendotu eta bultzatuko da funtsezko tresna den “komunikazioa”.

Hizkuntza-tailerrean elkarrekintzak eta lankidetzak bultzatu dira. Horretarako, ipuinak oso tresna baliagarria izan zaizkigu. Ikasle batzuek besteei ipuinak kontatzeaz, ipuinak idazteaz eta argitaratzeaz gain, ahozko eta idatzizko hizkuntza sendotzearekin batera modu orokorrean landu ahal izan ditugu arlo desberdinetako edukiak. Honek, halaber, zereginak banatzeko, hots, lankidetzan jarduteko aukera ematen digu: batzuek ipuinak kontatzen dituzte, beste batzuek ipuin luzea idazten dute, beste batzuek marrazkiak egiten dituzte eta irudiaren azpian jarri behar diren testu laburragoak idazten dituzte, beste batzuek argitara ematen dituzte... Zeregin hauek txandakatu egiten dira taldeen barruan guztiek ahalik eta ikaskuntza gehien egin ditzaten. Taldeak heterogeneoak dira. Zenbait gurasok beren herrietako ipuinak kontatzen lagundu dute.

Lankidetzan jarduteko eta produktu komun bat duen proiektu baten bitartez lan egiteko lagungarria izan zaigun beste baliabide bat aldizkaria egitea izan da. Ipuinen kasuan deskribatutako prozesu berdinak erabiltzen dira eta alde on bat du: familiengana heltzen da.

Eskolan kultura askotariko ikasleak ditugula aprobetxatuta, kultura desberdinetako jairen batekin lotzen diren proiektuak egin ditugu. Esate baterako, arkumearen egunaren ospakizuna dela-eta, jai horren egun inguruko horma-irudi bat egin da eta horrela ikasleetako batzuen kulturaren ohiturak eta balioak ezagutarazteko aukera eman digu. Gainera, ikasle hauek protagonista bihurtu dira eta harrera-jarduera gisa ere izan da baliagarria. Jarduera honetan duela gutxien iritsi direnek ospakizun hori zertan datzan eta beren herrian ospakizun hori nola egiten den azaltzen diete gainerako ikaskideei. Nahiz eta gaztelania gutxien dakitenak izan, ospakizun hori gogoan hobe dutenak izan ohi dira. Gainerakoei ospakizun hori azaldu behar dietenez eta ulertarazi behar direnez gero, beren komunikazio-baliabideak ahalik eta gehien jorratu beharko dituzte eta ikaskuntzarako motibazio-iturri bihurtzen da.

Matematiken ekintza-esparruak *BUBA* supermerkatua du erreferente. Bertan elikagai, tresna eta bestelako gauzez betetako apalak daude, simulazio gisa, eta ikasleek lan praktikoa egingo dute bertan: erosketetako poltsa prestatuko dute, barra-kodea landuko dute, gaika antolatuko dute guztia eta ingurune sozialaren eta naturalaren alderdiak deskribatuko dituzte. Lan egiteko modu honi esker, ikasleen hurbileko errealitatea abiapuntu izanik eta “benetako” problemetan oinarrituta, Lehen Hezkuntzako matematiken ikaskuntzak eskatzen duen abstrakziora heltzeko aukera dugu. Era berean, ikasleek errazago ikusiko dute matematikak errealitatea ulertzeko eta antolatzeko tresna

direla. Indartzen diren parekoen arteko elkarrekintzak irakasleen esku-hartzearekin aberasten dira, hauek trukea bultzatzen eta antolatzen dute eta, era berean, erronka berriak planteatzen dituzte eta zaildu egiten dituzte planteatzen diren problemak.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ez dira eskola-curriculumean falta, curriculumean integratuta daude. Ikasleak etengabe daude baliabide hauekin harremanetan eta beren inguruko guztia aurrerapen teknologikoen eraginpean dago nolabait. Gure iritziz teknologia hauek hezkuntza-prozesuan integratzen badira eta une eta modu egokian erabiltzen badira, hezkuntza-ekintza sendotzen dute, irakatsi eta ikasteko jarduna suspertzen dute eta motibazioa eta lan-giroa bultzatzen dute.

2.3 Familiekin erabiltzeko ikaskuntza-espazioak. Senitartekoak eskola barruan

Kafea gurasoekin: hitz egiten hasten gara

Senitartekoek beren seme-alabak eskolara ekartzen zituzten, sarrerako atera hurbiltzen ziren, baina ez zuten barrura sartzeko urratsa egiten, ez ziren barrura sartzen. Eskolan ez zegoen senitartekoentzako espazio fisikorik, ez eta komunikaziorako espaziorik ere. Banaka deitzen zitzaizenean edo arazo pertsonal batek larrituta zeudenean soilik sartzen ziren eta orduan ere kostata. Gure erronka familiak “engantxatzea”, hau da, beren seme-alaben ikaskuntzaren partaide bihurtzea zen eta oraindik ere izaten jarraitzen du.

Aintzat hartu behar dugu gure ikasleen familien ezaugarrien eraginez, kultura arteko mundua osatzen dugula eta mundu honetan elkarriketarako eta lankidetzarako espazioak aurkitzen jakin behar dugula. Gure ilusio eta ahalegin guztiak horretara bideratu ditugu; horretara bideratzen diren esku-hartzeko jarduerak diseinatu ditugu eta hainbat elkarriketa-espazio sortu dugu.

Ikastetxeko ateetara hurbiltzen ziren ama ijito eta arabiar batzuei bertara sartzeko gonbidapena egin zitzairen. Espazioa eskaini nahi zitzairen eta tea edo kafea hartzeko areto bat antolatu nahi zen beraien laguntzarekin.

Lehen bilera finkatu genuen. Amek bertan sortu zen elkarriketa informalean beren seme-alabek asteburuak bideo-klubeko filmak ikusten ez emateko egin dezaketenari buruz hitz egitea eskatu zuten. Solasaldia oso interesgarria izan zen. Telebistan ikusten dutenaz hitz egin genuen eta zer unetan ikusten duten aztertu genuen. Azkenean, pertsona adituek alde zuzenetik aukeratutako filmak maileguan hartzeko bideoteka bat sortzea iradoki zen. Une honetan filmen mailegua orokortu egin da familien artean.

Mahaiaren inguruan eskariak sortu dira. Eskari hauetako asko ametsaren fasearekin dute zerikusia, beste batzuk elkarriketaren bitartez sortu dira. “Guri gaztelania ikastea gustatuko litzaiguke”, esaten dute ama arabiarrek, “gure senarrak dagoeneko moldatzen baitira hizkuntza horretan”. “Gu eskolan izan ginen”, esaten dute ama ijitoek, “baina gauza asko ahaztu ditugu eta horrela ezin diegu gure seme-alabei etxeko lanak egiten lagundu. Jakintza horiek berrikus al ditzakegu?”. Ez da guztia hemen amaitzen, beste talde batek egungo garaietara egokitzeko informatika ikastea proposatu zuen.

Une honetan astean zenbait egunetan, arratsaldean, beren seme-alaben ordutegi berean, ama hauek beste ikasgela batzuetan biltzen dira eta ikastetxeko irakaskuntza-taldeak beren premiei erantzuten die. Gure iritziz hau guztia aurrerapauso bat da ikaskuntza

dialogikoan. Oraingoz ikasgeletan izan duten parte-hartzea puntuala izan da: ipuinak kontatzeko jardueran, gabonetako girotze-lanetan eta beste jarduera batzuetan.

Tutoretzen espazioa.

Senitartekoen eta ikastetxearen harremanetarako espaziorik naturalena da, espazio honetan ikasleen jarraipen pertsonala egiten da. Espazio hau informazioa, premiak, kezkak eta proposamenak partekatzeko espazio bat da. Klaustroak gutxieneko adostasuna lortzeko beharra ezinbestekoa da eta egin beharreko gainerako proiektu eta ekintzetarako abiapuntu bihurtzen da. Gainditu beharko ditugun zailtasunei irtenbidea aurkitzeko ezinbestekoa izango da oinarrizko diskurtso komun bat izatea. Honela, senitarteko arabiar askok gaztelania ez zekitela ikusirik, hauekin komunikatu ahal izateko formulak bilatu ditugu eta zeregin honetan komunitateko beste eragile edo elkarte batzuen laguntza izan dugu.

Behar-beharrezkoa da guztion artean adostutako proiektuaren helburuetan oinarrituta tutoreek senitartekoekin aldizka egiten dituzten bileretan egin beharko dituzten zenbait zeregin ateratzea. Izan ere, hauxe da beren seme-alaben hezkuntzari buruzko askotariko informazioa partekatzeko lehen espazioa. Garrantzi handikoa da irakasle bakoitza edo tutore bakoitza prozesua dinamizatuko duen motore bihurtzea.

Senitartekoentzako liburutegia

Senitartekoei hezkuntza-sistema sakonago ezagutu ahal izateko informazioa eskainiko dien liburutegi bat sortu da eta liburutegi honetan ikastetxean ematen den hezkuntzari buruzko berariazko informazioaz gain, interesgarritzat jotzen diren liburuen bilduma eta informatika-baliabideak, Internet barne, izango dira eskura.

Liburutegi hau batzorde misto batek kudeatuko du. Batzorde misto honetan irakasleek, senitartekoek, ikasleek eta hezkuntza-komunitateko beste elementu batzuek hartuko dute parte.

Informaziogunea

Oinarrizko eta ezinbesteko beharren artean senitartekoekin informazioa partekatzearen beharra azaltzen da. Premia honek eraginda sortu da “informaziogune” bat eratzeko ideia. Informaziogune honetan informazioa ikastetxearen eta senitartekoen artean zein parte hartzen duten senitartekoen eta parte hartzen ez duten senitartekoen artean bideratuko da, horrela deialdirako elementu gisa izango da baliagarria.

Ikastetxeak sortzen duen informazioa Ikaskuntza Komunitatearen prozesuaren garapenari buruzkoa zein jarduera bereziei buruzkoa izango da: emaitzen laburpenak, argazkiak, senitartekoentzako eskaintzak...

Boluntarioak

Informatika, psikomotrizitate, xake-joko, arabiera eta kirol-jardueretan adituak diren boluntarioak ditugu, baita eskola-liburutegira bertaratzen diren eta laguntzen duten gurasoak ere. Honekin guztiarekin eta beste jarduera batzuekin gure ikasleak benetan berdintasunezko baldintzetan izan daitezten lortu nahi dugu. Izan ere, ikasle batzuen familiek erosteko ahalmen handiagoa dute eta ikasle hauek ikastorduez kanpo XXI. mendeko gizarterako beharrezkoak eta ezinbestekoak diren ikaskuntzak zabaltzeko eta areagotzeko aukera dute.

Laburbilduta

Gaur egun gure ikastetxean eta proiektuko beste ikastetxeetan aldaketa metodologikoaren gaia ari gara sakontzen. Gure iritziz funtsezko elementuetako bat da eta bere garapenean hainbat motatako zailtasunei egin behar zaie aurre: ikasgelan zehaztu beharra; aldaketaren aurrean gertatzen den erresistentzia; ikasgelan beste heldu batzuk esku-hartzearen aurrean gertatzen den erresistentzia; hezkuntza-eragileen artean nagusi den lankidetzarako kultura urria; eta irakatsi eta ikasteko estilo ugari izatea. Izan ere, irakatsi eta ikasteko estilo ugari izateak eraikuntza metodologikoko prozesua bera aberats dezakeen arren, egiaztatutako eta partekatutako gogoeta, analisi eta erabakiak hartzeko dinamika berriak eskatzen ditu eta beharrezko dinamika hauek zailagoak dira lantzeko. 1 eta 2. eranskinetan ikasgelan ekintzak egiteko erabilgarriak izan daitezkeen gida batzuk eskaintzen ditugu, ikasgelan elkarrekintza funtsezko elementua baita.

Hemen aurkezten duguna orain arte egindakoa baino ez da; alabaina, jakin badakigu oraindik ere bide luzea egin behar dugula. Txirringuluri-talde baten metafora izan daiteke gu egokien definitzen gaituena. Lasterketa abian da, taldea prest dago, helburuak finkatuta daude, bidean hartu beharreko jakiak prest daude eta Maglia lortzeko gogo eta ilusioz beteta gaude.

(1. eranskina)

IKASGELAN ESKU HARTZEKO ESTRATEGIAK			
I. FASEA	II. FASEA	III. FASEA	IV. FASEA
<ul style="list-style-type: none"> - Harremanetarako eta lanerako giroa sortzea. - Motibatzea eta interesatzea. - Lanerako plana negoziatzea. - Kontzientziatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ideiak elkarri azaltzea, ideia-jasa. - Zereginak erabakitzea. - Informazioa lortzeko formulak. - Estrategiak eta alternatibak bilatzea. - Erabakiak hartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Banakako eta taldeko lan-prozesua garatzea. - Prozesuaren alde ahulak eta sendoak antzematea eta prozesua egokitzea. - Lankidetzaren parte-hartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ideiak elkarri azaltzea. - Prozesua azaltzea. - Berraztertzea, zuzentzea. - Ebaluazioa, autoebaluazioa. - Emaizak, aplikazioa. - Ikaskuntza berriaren ondorioz lortzen diren printzipioak.

LANERAKO PROPOSAMENA (Talde elkarreragileak)		
LAN-SAIOA PRESTATZEA	LAN-SAIOAREN BARRUAN	LAN-SAIOAREN AMAIERAN ETA ONDOREN
<ul style="list-style-type: none"> ◆ Aurreko saioko informazioa biltzea: lorpenak, hutsuneak, burutu gabeko alderdiak, ikasleen eta taldearen egoera pertsonala. ◆ Lan-saioan garatzeko aurreikuspenak. Garatu beharreko helburuak eta edukiak (akademikoak eta lankidetzarako trebetasunak), banaka edo taldeka egin beharreko zereginak, burutzeko moduak (lanerako plana ikasgelan egitea izan daiteke zeregin bat: landu beharreko gaia, prozesua, zereginak banatzea...). ◆ Edukia edo saioko gaia aurkezteko modua berraztertzea. ◆ Ikasgelako giroa eta egitura prestatzea. Taldeak zirkuluetan antolatzea, elkarri eragotzi gabe komunikatu ahal izateko. ◆ Denbora banatzea. ◆ Erabili beharreko materiala prestatzea (banakakoa eta taldekakoa). ◆ Pertsona helduak taldeetan banatzea eta egin beharreko zereginak banatzea. ◆ Ebaluatzeko irizpideak ezartzea. 	<p style="text-align: center;">Ikasleen harrera</p> <ul style="list-style-type: none"> ◆ Agurrak, elkarrizketa laburrak. ◆ Beren materialetan eta jarretan ordenaren kontrola egiten hastea eta kontrola sustatzea. <p style="text-align: center;"><u>Lan-saioari hasiera ematea:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ◆ Ikasleak motibatzea eta hauen elkarrekintza bultzatzea, beren ikaskuntza-prozesuan inplikaturik. ◆ Zeregina azaltzea eta planifikatzea: zer espero dugu lortzea? Zer daukagu? Lan-estrategiak planifikatzea, arauak zehaztea, abiapuntuak erabakitzea, jarraitu beharreko prozedurak, arrakastarako irizpideak. ◆ Banaka eta taldean erantzukizunak hartzea. ◆ Arrakastara bideratutako motibazioak sustatzea. ◆ Ikasleen eta erabili beharreko pertsonarteko trebetasunen arteko menpekotasuna planteatzea. <p style="text-align: center;"><i>Lana garatzea</i></p> <ul style="list-style-type: none"> ◆ Programatutako modalitateak eta estrategiak erabiltzea: <i>azalpena, aurkikuntza, ideien trukea.</i> ◆ Banakako eta taldeko lana egitea. ◆ Laneko argibideei jarraitzea, kontsultatzea, informazioa bilatzea eta lortzea. ◆ Taldeko beste kideei laguntza eskaintzea eta ematea. ◆ Lanak eta zereginak egokitzea. ◆ Beste irtenbide alternatiboak bilatzea. <p style="text-align: center;"><u>Irakasleen eta boluntarioen zeregina</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ◆ Laguntza emozionala eskaintzea. ◆ Autokontzeptua eta autoestimua areagotzea. ◆ Laguntza instrumentala eskaintzea: informazioa, aholkuak, orientabideak... ◆ Zereginen esleipena orientatzea. ◆ Parekoen arteko ikaskuntza sustatzea. ◆ Lankidetzat-trebetasunak irakastea. ◆ Lehia desegokia saihestea. ◆ Taldea zereginaren martxari buruz atzeraelikatzea. ◆ Taldeko kide bakoitzak ahalik eta gehien ikas dezan sustatzea. ◆ Egokia denari buruz orientagarriak izango diren gizarte-iguripenak eskaintzea eta partekatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Egindako lana egiaztatzea eta berraztertzea. ◆ Taldearen ondorioak finkatzea. ◆ Emaitzen berri ematea. ◆ Jarraitutako prozedura azaltzea. ◆ Sortu diren zailtasunen berri ematea. <p style="text-align: center;"><u>Ebaluazioa / autoebaluazioa</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ◆ Emaitzak eta talde eta gizabanako bakoitzak ezarritako irizpideak alderatzea. ◆ Talde bakoitzak eta gizabanako bakoitzak erabilitako prozedurak baloratzea. ◆ Gogoeta, gainerako taldeen eta irakasleen balorazioa. ◆ Gizabanakoaren ondorioak eta ikasgelarenak. <p style="text-align: center;"><u>Esku-hartzearen ondoren:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ◆ Banako informazioa erregistratzea. ◆ Taldearen informazioa erregistratzea. ◆ Saioaren garapena erregistratzea, zereginen zailtasunak, eraginkortasun-maila eta konplexutasuna. ◆ Burutu gabe dauden datuak eta oharrak ezartzea. ◆ Egindako ikaskuntza finkatzeko eta aplikatzeko jarduerak planifikatzea. ◆ Egindako ikaskuntzak aplikatu ahal izateko moduko egoerak planifikatzea. ◆ Norberaren lanak zuzentzea eta berraztertzea. ◆ Ebaluaziorako kanpoko zein barruko irizpideak erabiltzea.

VII KOMUNITATEAREN PRESTAKUNTZA ETA PARTE-HARTZEA

1. Planteamendu orokorra

Kapitulu honetan Ikaskuntza Komunitatea eraikitzekeko elementuak landuko dira. Prozesua aurreko kapituluetan zehar deskribatu da jada eta, oraingoan, bi funtsezko alderdi sakonduko dira: batetik, komunitateko eragileen parte-hartzea eta, bestetik, prestakuntza. Parte-hartzearen barruan boluntarioak nabarmendu behar dira, baita eragile desberdinen arteko akordio-tresna bat den ikaskuntza-kontratua ere. Prestakuntza-espazioak baterako espazioak ez ezik, kolektibo desberdinek bereizita garatzen dituzten espazioak ere badira.

1.1. Komunitatearen parte-hartzearen kontzeptua

Eskola, Ikaskuntza Komunitatetzat hartuta, gizartea aldatzeko eragile bihurtzen da. Ikasle guztiak eskolatzea amaitu eta lan-merkatutzeko prest daudenean berdintasunezko baldintzetan izateko behar dituzten gaitasunak eta ikaskuntzak eskura ditzaten bermatzera joko du Komunitate honek. Helburu hau elkarrizketaren ikuspegitik planteatzen da eta bertan garrantzitsuena ikasleen eta hezkuntza-komunitatearen arteko elkartasuna izango da. Aldatzeko helburua eta arrakasta akademikoa izateko helburua hezkuntzan esku hartzen duten eragileen lankidetzaren eta elkarrizketaren bitartez soilik lortu ahal izango da, betiere eskola hezkuntza-komunitatetzat hartuko duen ikuspegi zabaletik.

Ikaskuntza Komunitateen eredua komunitatearen parte-hartzeari buruzko hiru printzipioren arabera eraikitzen da:

- Guztientzako helburu bat bilatzea. Senitartekoei, ikasleek, irakasleek, administrazioko langileek eta irakasleak ez diren langileek helburu jakin batzuk finkatzen dituzte eta helburu hauek erdiesteko konpromiso handiagoa lortzera bideratzen dituzte beren ahaleginak. Honi guztiari aurre egiteko tresnetako bat guztientzako amets komuna egitea izango da.
- Eskola-komunitateko aktore nagusien erantzukizun partekatua, eskolan eragina duten erabakiei dagokienez. Horrenbestez, eskolan gertatzen diren porroten gainean elkarri errua bota ez diezaioten lortu nahi da, askotan halaxe gertatzen baita. Erantzukizuna pertsona guztiena da, partekatua da. Hau guztia “ikaskuntza-kontratuan” gauzatzen da.
- Eskola-komunitatean dauden baliabide guztiez baliatzea. Arreta berezia eskainiko zaio eskolako pertsona guztien ahalmenetan eta eskolaren ingurune kultural, sozial eta ekonomikoko pertsona guztien ahalmenetan oinarritzeari, hau da, ikasleen, senitartekoen, irakasleen, beste esparru batzuetako profesionalen, irakasle ez diren bestelako langileen eta boluntarioen ahalmenetan oinarritzeari. Pertsona eta kolektibo hauekin guztiekin beren lankidetzara zehaztu eta formalizatuko duten hitzarmenak edo kontratuak sinatzen dira.

Kalitatezko hezkuntza lortzea baterako parte-hartzearen arabera da. Jende guztiak hartzen du parte aldatzeko prozesuaren diseinuan, garapenean eta ebaluazioan eta, aldi berean, baliabideak optimizatzen dira. Parte hartzeko bide ugari dago: ikasgelako edo

zikloko batzordeak eta bilerak, dagoeneko deskribatu direnak; prestakuntza; ikaskuntza-kontratuak; baterako jarduerak, hala nola, jaiak eta topaketak; eta boluntario gisako parte-hartzea.

1.1.1 Ikaskuntza-kontratua

Familia ikastetxeko jardueretan parte hartuta inplikatzeari gain, beren seme-alaben arrakasta akademikoarekin hartzen duten konpromisoa *Ikaskuntza Kontratuan* gauzatzen dute.

Ikaskuntza-kontratuan irakasleek, ikasleek eta familiek, gutxienez, neska-mutil bakoitzaren ikaskuntza-prozesuarekin hartzen dituzten konpromisoak biltzen dira. Kontratua sinatzen duten pertsona guztiek landu, adostu eta bere gain hartu beharko dute dokumentuaren edukia.

Ikasleek beren gaitasunak ahalik eta gehien garatzea izango da ikaskuntza-kontratuaren funtsezko helburua. Neska-mutilek ikas dezaketinari buruzko iguripen handiak finkatzea izango da abiapuntua. Kontratuan ikasle bakoitzaren banako ezaugarriak hartu beharko dira aintzat eta inplikaturik dauden aldeek definitzen dituzten helburuak lortzera bideratu beharko da.

Ondokoak izango dira ikaskuntza-kontratu ororen helburu nagusiak:

- Ikasleen gaitasunen benetako garapena guztiz bultzatzea.
- Eskolaren eta familiaren artean inplikazioa, parte-hartzea eta lankidetzaren lortzea.
- Ikasleak motibatzea, ikasgelan egiten duena baloratuz, bere arazoak entzunez, beren arrakastatik zorionduz eta abar.
- Ikasleek ikasteko dituzten ohiturak hobetzen saiatzea.
- Helburuak zehaztea eta iguripen handiak sustatzea.
- Erantzukizunak partekatzea eta irakasleen, senitartekoen eta ikasleen arteko konpromisoa lortzea.

Kontratua idazterakoan hizkuntza positiboa erabili beharko da eta, hortaz, zailtasunak gainditzeko eta neska-mutil guztientzako aldaketa-baldintzak sortzeko konfiantza osoa azaldu behar du kontratuak.

1.1.2 Boluntarioak

Boluntarioek balio handia dute Ikaskuntza Komunitaterako, ikastetxean, eskolaz kanpoko ekintzetan eta proiektuaren beraren zereginetan hartzen baitute parte. Boluntarioen interesak eta proiektuaren ondoriozko interesak bat etortzearen arabera izango da boluntarioen lankidetzaren.

Zereginak aukeratzeko eta esleitzeko irizpideen artean beharrezko zereginetarako prestakuntza egokia barne hartuko da, baita funtzioak adostutako denboran egiteko hartutako konpromisoa ere.

Ikaskuntza-komunitate bateko boluntarioak:

- a) Proiektuan sinesten du eta ilusioa du.
- b) Iguripen handiak ditu.
- c) Bere esperientzia eta jakintza gaineratzen du.
- d) Irabazi asmorik gabe dihardu lankidetzan proiektuaren onurarako.
- e) Hartzen den erabakiaren arabera alderdi jakin batzuetan edo sistematikoki laguntzeko prest dago eta ez unean uneko egoeren arabera.

Boluntarioaren konpromisoa eta inplikazioa ondoko alderdi hauetan zehazten da: proiektuaren ezagutza; proiektuan sinestea; inplikatzeko ilusioa eta gogoia; konpromisoa hartzea; lankidetzakontratua.

Komunitate baten barruan boluntario gisa lankidetzan jarduteko modu ugari dago; alabaina, hiru multzotan bil daitezke:

1. Ikastetxearen antolamenduaren barruan: ikastetxearen apainketa, topaketak...
2. Ikasgelaren barruan: talde elkarreragileak, ikaslearen banakako laguntza, irakaslearekin lankidetzan jardutea aditua den gairen batean...
3. Eskola-orduez kanpoko jarduerak: informatika, tutoretzapeko liburutegia, tailerrak, harrera...

Boluntarioak proiektua gauzatu ahal izateko beharrezko laguntza emateaz gain, elkartasunaren, inplikazioaren eta konpromisoaren balioak gaineratzen ditu eta, gainera, irakaslearenak ez bezalako jakintzak eta ikuspuntuak gaineratzen ditu (oso bestelako pertsonak izan daitezke prestakuntza, adina, kultura eta abarri dagokionez). Senitarteko bat baldin bada, aurreko guztiari beste alderdi batzuk gaineratzen zaizkio: eskolaren eta familiaren arteko elkar ezagutza areagotzen da eta elkar aberasten dira eta, bestalde, ikasleak eta bere familiak eskolari buruzko balorazio positiboagoa izango dute. Kasu hauetan senitartekoaren lankidetzak ikasgelaren barruan egiten bada, bere seme-alaba dagoen ikasgelan egin ez dezan erabaki ohi da ikastetxe askotan.

Boluntarioak ez du, hortaz, beste profesional bati egoki dakioken hutsune bat betetzen, profesionalekin lankidetzan jardungo du hezkuntzaren kalitatea gehitzearren. Boluntarioak eskolari zein gainerako gizarte-eragileei dagokien gizarte-helburu bat bete dadin lagunduko du, hau da, desberdintasunak gaindi daitezen lagunduko du.

1.2. Komunitatearen prestakuntza: irakasleak, familiak eta boluntarioak.

a) Irakasleak.

Irakasleen prestakuntza sentsibilizazio-fasean hasten da, prestakuntzako 30 orduetan. Proiektuarekin aurrera egitea erabakitzen bada, irakasleak antolatzen hasiko dira eta komunitatearekin batera lanerako bideak bilatzen hasiko dira. Honek, era berean, prestakuntza-eskaerak eragingo ditu eta eskaera hauek ikastetxea aldatzeko prozesu osoan zehar burutuko dira.

Gaien lehentasuna finkatu ahala edo premia berriak sortu ahala burutu ahal izango dira prestakuntza-eskaera hauek (ijitoen kulturaren ezagutza, hizkuntzen ezagutza, informazioaren eta komunikazioen teknologien ezagutza eta abar).

b) Familiak eta beste eragile batzuk.

Goaxeago aditzera eman dugun moduan, hezkuntza-prozesuek izaera jarraitua eta etengabea dute, ez dira eskolaren esparruan agortzen. Ikaskuntzak ez dira eskolan

eskaintzen diren ikaskuntzetara mugatzen. Familiaren ingurunea oinarrizkoa da prestakuntza errazteko eta ahalbidetzeko. Ikastetxeak aldatu egin behar du, familiek ikastetxeetara jo beharko dute beren kezkak partekatzeke, beren zalantzak argitzeko, beren eguneroko bizitzako arazoei baterako irtenbideak aurkitzeko eta, batez ere, prestatzeko.

Prestakuntzak eskolaren testuinguruaren arabera aldatuko ditu bere edukiak, baina beti gaur egungo gizarteak planteatzen dituen premiak aintzat hartuta. Ez da oinarrizko prestakuntzara mugatuko; prestakuntza gatazken tratamendura, informatikako, hizkuntzetako eta proiektuarekin lotzen diren beste gai batzuetako tailerrak sortzera zabaldu ahal izango da. Askotan prozesua sentsibilizazio-fasean hasten da, irakasleekin batera burutzen diren jardueren bidez eta familientzako eta komunitateko beste eragileentzako berariazko jardueren bidez. Ikastetxea komunitate osoaren ikastetxe bihurtzen da, eskola-zereginenez harantzago. Hala, eskolak antolatzeaz gain, ikastetxean familia osoarentzako solasaldiak eta hitzaldiak antolatuko dira guztiek beren kezkak azal ditzaten eta jakintzak areago daitezen.

1.2.1. Hainbat prestakuntza-modalitate

Erabili diren eta erabiltzen diren prestakuntza-modalitateak ondokoetan laburbil daitezke:

- Kanpoko aholkularitza

Esperientzia hasi nahi duten ikastetxeetan hasierako prestakuntza edo sentsibilizazio-fasea egiten dute, esperientzian barne hartuta dauden ikastetxeen laguntzarekin.

Ikastetxeak konprometitu diren alderdietan jarraipen-ibilbideak diseinatzen laguntzen dute eta, horretarako, ikastetxe bakoitzak bere prozedura-gidak definitu ahal izateko gogoeta-elementuak gaineratzen dituzte. Prestakuntza-prozesu osoa sistematikoki antolatzen da eta esku hartzeko jarraibideak ahalbidetzen dira. Prozesuan lagun dezaketen kanpoko beste aholkulariak eta materialak iradokitzeko aukera zabalik dute.

Ikerketa-prozesuetan laguntzen dute, betiere parte-hartzaileen prestakuntzan laguntzen duen gogoeta-ekintza eredu baten arabera.

- Lan-taldeak edo lan-batzordeak

Ikaskuntza Komunitateak funtzionatzeko duen organigramaren arabera egiten da prestakuntza. Prestakuntza irakasleengana ez ezik, esperientzian barne hartzen diren eragile guztiengana ere zabaltzen da. Taldeen interesak eta premiak aztertzen dira eta abiapuntu

horretatik prestakuntza egokia elkarrekin edo bereizita gauzatzeko metodoak eta moduak bilatzen dira, kasuan kasu bidezko aholkularitzarekin.

- **Beste ikastetxe batzuetako prestakuntza**

Gero eta ikastetxe gehiagok burutzen dituzte Ikaskuntza Komunitateko proiektuak. Gainera, beste ikastetxe askok Komunitateetan planteatzen diren arazoetako batzuetarako irtenbide baliagarriak gaineratzen dituzten berrikuntzak garatzen dituzte. Mota hauetako ikastetxeetako irakasleen prestakuntza –bisitaldi, egonaldi, truke eta abarren bitartez– ezinbestekoa da esperientzia eta jarduteko modu berritzaileak alderatzeko eta partekatzeke.

- **Jardunaldiak, mintegiak eta ikastaroak**

Hezkuntza-administrazioak, erakundeek, organismoek eta elkarteek prestakuntza-saioak, hitzaldiak eta esperientziak trukatzeko saioak deitzen dituzte. Gure proiektuarekin lotzen diren deialdi hauek egituratu eta sistematizatu behar dira deialdi hauetara bertaratu ahal izateko eta ekintza hauei etekina ateratzeko. Era berean, oso interesgarria izango da jardunaldiak antolatzea edo sustatzea eta Ikaskuntza Komunitateekin lotzen diren ikastaroak eta mintegiak antolatzen jarraitzea: ikaskuntza dialogikoa, komunitatearen parte-hartzea, desberdintasunak gainditzea...

- **Autoprestakuntza**

Ikastetxeak hezkuntzari buruzko eta beste gizarte-zientzia batzuei buruzko aldizkaririk eta libururik onenak eduki beharko ditu eta hezkuntza-gaiei buruzko datu-baseetara jotzeko aukera eskaini beharko du. Informazio-iturri hauetatik abiatuta, ekarpen teorikoei eta hezkuntza-esperientziei buruzko bilerak eta solasaldiak antola daitezke eta gure ikastetxerako bil ditzakegun ekarpenei buruzko banakako zein taldeko gogoeta egin dezakegu.

2. Esperientzia: Ruperto Medina LHI ikastetxeko prestakuntza eta parte-hartzea.¹

Ruperto Medina ikastetxea Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako herri-ikastetxe bat da eta 1996. urteko otsailaz geroztik proiektu berritzaile bat ari da lantzen: Ikaskuntza Komunitateak. Ikastetxe hau Portugaleteko Buenavista auzoan dago. Auzo honetako jendea langilea eta elkartasun handikoa da eta industria birmoldatzeak eragin handia izan zuen auzo honetako jendearen artean.

Eskolak garrantzi handiko zeregina izan dezakeela uste du irakasle-taldeak. Ikastetxea pertsonak aldatzen eta hezten dituen leku bihurtu da, pertsonak desberdintasunak gainditzen dituzte ikastetxean. Ez dira inola ere onartzen batzuek auzoko neska-mutilen eskola-porrotaren “arrazoi objektibotzat” hartzen dituzten arrazoiak: adimen txikiagoa, baliabide urri, gizarte eta familiako giro kaltetua eta abar. Ez dugu amore eman nahi eta ez dugu hezkuntza neska-mutilen berezko ezaugarriak ez diren horietara egokitu nahi, neska-mutil hauek jaso ohi duten hezkuntza-eskaintzaren urritasunen ondoriozkoak baitira.

Ez genuen ikastetxe gisa porrotik izan nahi eta, neska-mutil askok ikasteko zituzten zailtasunak ikusirik, konpentsazioaz harantzagoko beste irtenbide batzuk bilatzeari ekin genion, ikuspegi horretatik gauzak berriro ere zeuden moduan geratzen zirela egiaztatu baikenuen. Konpentsazioaren bidez, ikasleak maila txikiagoko hezkuntza-eskaintza batean murgiltzen ziren eta ez zitzairen aukera ematen gure seme-alabentzat nahi ditugun eskaintza berdinetan garatzeko. *Gizarte-klase txikikoak direnez gero gutxiago ikasiko dute.... Eta gutxiago ikasiko dutenez gero, gizarte-klase txikikoak izango dira patuarekin hausteko borrokatzen ari ginen.*

2.1. Nola inplikatzeko eta prestatzeko da komunitatea

Zuzendaritza-taldea oso pozik zegoen irakasle-taldeak azaldu zuen ilusioa ikusirik; izatez, CREA taldeak burutu beharreko prestakuntzari dagokion antolamendua, gogoeta eta erabakia klaustro osoak bere gain hartzeko aukerak ilusio handia piztu zuen irakasleen artean. Horrela, 1996. urteko otsailean egin zen sentsibilizazio-fasera heldu ginen. Sentsibilizazio-fasea trinkoa izan zen, egunean sei orduz eta bost irakastegun jarraituetan burutu zen (asteburua tartean zela). Guraso Elkarteak lehendakariak eta Zuzendaritza Batzordeak eta Eskola Kontseiluko kideek ikasleekin lan egiteko jarduerak antolatu zituzten boluntario espezializatuen laguntzaz eta horretarako irakasleek espresuki prestatutako jarraibideei jarraitu zitzairen. Une horretatik bertatik hasi zen gurasoen, boluntarioen eta, orokorrean, komunitatearen inplikazioa. Irakasleek ikastetxea aldatzeko hartu zuten erabakiak ikusmin eta ilusio handia eragin zuen familien artean. Azalpen-batzarrean familien bertaratzea oso handia izan zen eta bertan familiek ere proiektuarekin aurrera egiteko erabakia hartu ahal izan zuten eta aurrera nola egin erabaki ahal izan zuten.

¹ Ruperto Medina Ikaskuntza Komunitateak bere ahalegina klera eta arbeleko maisu-maistrei eskaintzen die, beren zereginari errotulurik jarri gabe beren bizitza eskolako neska-mutilengana maitasun osoz bideratu zuten, neska-mutil hauen ikaskuntza bizkortu zuten, beren testuinguru soziokulturalak alda zitezien lagundu zuten eta desberdintasunak gaindi zitezien lagundu zuten maisu-maistra horiei guztiei.

Jaso genuen prestakuntza oso zabala eta aberatsa izan zen, baina benetan animatu gintuena proiektuaren filosofia izan zen. Filosofia hau topaketa bakoitzean errepikatzen ziren eta gaur egun gure egin ditugun zenbait esakunetan islatzen da:

1. – Gure seme-alabentzat nahi dugun ikastetxeak neska-mutil guztien eskura egon beharko du.
- 2.- Pertsona guztiek guztiengandik ikasten dugu.
- 3.- Esku artean dugunarekin lor dezakegu.
- 4.- Bertan pertsona guztiak sartzen gara.

Honek guztiak ondokoa zekarrela erabaki genuen:

- Informazioa aukeratzeko eta prozesatzeko ahalmenak sustatzea.
- Senitartekoak ikasleen ikaskuntzan inplikatzeko.
- Komunitateko eta auzoko giza baliabideak erabiltzea, boluntarioak proiektuan lan egitera gonbidatuz.
- Ikaskuntzak bizkortzea.
- Hizkuntzei eta gatazka-arazoak ebazteko trebetasunei lehentasuna ematea.
- Ikaskuntza-kontratuen tresna sortzea.
- Eskolako antolamenduan, lekuetan, denboretan, ordutegietan eta abar aldaketak egitea. Gaur egun ikastetxeko prestakuntza-ordutegia 8:00etatik 19:00etara zabaltzen da.

Une horretatik aurrera, eskainitako informazioa kontuan hartuta hausnarketa egin zuen eta eztabaidatu egin zuen klaustroak; jarrerak hurbildu egin ziren eta azkenean baiezko erabakia hartu zen. Guraso Elkarteak ere proiektuarekin aurrera egitea erabaki zuen eta hau laguntza handikoa izan zitzaion klaustroari proiektuarekin hasteko. Proiektu honi buruzko informazioan eta hedapenean oso garrantzitsua izan zen eskolak hilabetero argitaratzen duen JAIKI aldizkariak gai honi eskaini zion alea, baita bederatzigarren kultur astea Ikaskuntza Komunitateen ingurukoa izatea ere.

Komunikazioa funtsezkoa dela erabaki zen. Ikaskuntza-komunitateko eragile guztien arteko informazio-fluxuak hezkuntza hobetzeko lagungarriak izango dira. Hasiera batean komunikazioa zaila izan daiteke, familiak eta irakasleak ez baitaude elkarrekin lan egiten ohituta; alabaina, aldatzeko prozesuak berak erraztu egiten du parte-hartzearen gehikuntza. Komunikazio-elkarrekintzek eraginda guztiz gehitu ziren bilerak: lan-batzordeen topaketak, talde zehatzak, irakasleak, boluntarioak, aholkulariak, talde handia (irakasleak, ikasgela bakoitzeko ordezkariak, langileak, familien ordezkariak, elkarteak...). Irakaskuntza bezain garrantzitsutzat hartzen da komunikazioa. Esperientziak trukatzeko, arazoak guztiei aurkezteak eta abar oso emaitza baliagarriak eta aberasgarriak izan dituzte.

Antolamenduko esparru berrian, aldaketa eta motibazioa bultzatzean eta sustatzean oinarritu zen Zuzendaritza Taldearen zeregina eta, gainera, baliabide, harreman publiko eta ekintza estrategikoen erabilera bultzatzeko kudeaketa-funtzioa areagotu zen.

Hezkuntza-komunitateak zehatz-mehatz aztertu zuen ikastetxearen errealitatea: bere historiaren informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa; ikasleen, irakasleen eta administrazioko langileen erreferentziak; komunitatearen informazioa; ikasleen kultura; curriculum-praktiken deskribapena; eskolaren ahalmenen azterlana; irakasleen prestakuntza; baliabideak; senitartekoen prestakuntza...

Datu hauek guztiak abiapuntu izanik, egin beharreko aldaketak identifikatu ziren eta hasierako ekintzak eragin zituzten lehentasunak finkatu ziren.

Lan-batzordeak osatu ziren irakasleekin, senitartekoekin, ikasleekin, aholkulariekin, irakasleak ez diren langileekin eta tokiko elkarteetako kideekin. Hauek guztiak lehentasun jakin bat lantzeko batzordeetan banatu ziren.

Familien erantzukizuna ez da ikasleen ikasketen jarraipena egitera mugatzen, familiek etxean hezkuntza-giroa sortu behar dute eta ikastetxearen eta ikasketzen gaineko motibazioa eta balorazio positiboa bultzatu behar dute. Hezkuntzaren ikuspegi honetatik ezinbestekoa da familiaren eta ikastetxearen baterako inplikazioa. Senitartekoak ikastetxean zenbait jarduera burutzeko edota bertan prestakuntza jasotzeko bertarutzen direnez gero, hobeto ezagutzen dute ikastetxea eta hobetu egiten da beren prestakuntza; gainera, seme-alabek beren senitartekoak ikastetxean ikusten dituztenez gero, hobetu egiten da ikasleek ikastetxeari dagokionez duten balorazioa.

Ikastetxeak bere gain hartzen du ekintza komun hori sustatzeko konpromisoa eta eskura jartzen ditu prestakuntzarako beharrezko baliabideak. Ondokoak izan ziren Ruperto Medina ikastetxean landu ziren lehen prestakuntza-premiak: hezkuntza-teknologia, taldeen dinamika, ikasketza-kontratua, hileko programa, parte-hartzea, erantzukizuna eta informatika.

Komunitate osoak etengabeko elkarrizketa batean elkarrekin lan egitea garrantzi handikoa da eta, hala, ikastetxea benetako Ikasketza Komunitate bihurtzen da. Irakasleek, irakasle ez diren langileek eta senitartekoek hezkuntza-arloko aldaketak identifikatu eta definitu genituen, irtenbide alternatiboak bilatu genituen eta irtenbide hauek burutu eta ebaluatu genituen. Elkarrizketa eta parte-hartze hau errazteko batzar orokorrak antolatu ziren, baita ondoko batzordeak ere:

1. Kudeaketa Batzordea: zuzendaritza-taldeak eta familien ordezkariak osatua.
2. Pedagogia Batzordea: zuzendaritza-taldeak eta zikloko koordinatzaileak osatua.
3. Boluntarioen Batzordea: irakasle bat izango da batzorde honetako arduraduna.

Komunitate osoaren adostasunez onartutako antolamendu berriaren ondorioz, ikastetxeak ordutegi-egitura malguagoa izan zuen eta, hala, ikastetxea eskola-egutegi tradizionalak baino ordu gehiagoz eta urtean egun gehiagoz dago zabalik. Gehikuntza hau komunitateko hainbat pertsonaren eta kolektiboren laguntza zuzenari esker gertatu zen eta gertatzen da. Honi irakasleen ordutegi-malgutasuna gaineratzen badiogu:

- Harrera espazio bat zabaldu ahal izan zen (goizeko 8etatik 9etara). Ikastetxea eskola-ordutegia hasi baino ordubete lehenago zabalitzen da hala behar duten familientzat. Denbora-tarte horretan jolasa eta hezkuntza nahasten dituzten jarduerak antolatzen dira.
- Tutoretzapeko liburutegiko proiektua. Proiektu hau jantokiko ordutegian, eskola-ordutegiko denbora-tarte batzuetan eta arratsaldeko zazpiak arte izango da zabalik. Liburutegi honen arduraduna ikastetxeko irakasle bat da eta boluntarioen laguntza

du (unibertsitateko pertsonak, gurasoak...). Hiru espazio ditu: ludoteka, tutoretzapeko liburutegia eta ikasteko aretoa. Tutoretzapeko liburutegian liburuak maileguan hartzeko ohiko aukeraz gain, animazioko jarduerak egiten dira eta laguntza eskaintzen da bilaketa, kontsulta, irakurketa eta bestelako jardueretan. Eskola-orduez kanpo neska-mutilek bakarrik edo senitartekoren baten laguntzarekin jo dezakete bertara.

- Eskolako baratzea edo berotegia: eskola-ordutegian edo eskola ordutegiaz kanpo dago zabalik. Natur ingurunearekin harremanetan izanik, areagotu egiten dira pertsonen arteko harremanetarako aukerak eta inguruneari buruzko ezagutzak eskuratzeko bide alternatiboak definitzen dira.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: eskaintza oso zabala da, jarduerak doakoak dira eta uztartu egiten dituzte ondo pasatzea eta ikaskuntzak.
- Ikastetxea komunitatearen zerbitzura jartzen da eta jantokia senitartekoen hainbat jardueretarako erabil daiteke, hala nola bilerak egiteko, urtebetetzeak ospatzeko eta abar.

2.2. Ikaskuntza-kontratua

Ikaskuntza-kontratua zikloka programatzen da eta ikasle bakoitzari eskaintzen zaio, bertan inplikaturik daudenek sinatzen dute eta ebaluatu ahal izateko jarraipen bat egiten zaio.

Ondoko aurretiazko baldintzak finkatu ziren:

- 1) Sinplea izango da, bertan esku hartuko duten pertsona guztiek ulertzeko modukoa.
- 2) Azkar egitekoa eta idazketa positiboa duena.
- 3) Esanguratsua: ikasle bakoitzak lortu behar dituen helbururik garrantzitsuenak edo lehentasuneko helburuak nabarmenduko dituena.
- 4) Aldeetako bakoitzak bere gain hartzen dituen konpromisoak eta jarduteko modua argi eta garbi utzi beharko ditu.
- 5) Aldizka berraztertu beharko da (hiru hilero) bidezko aldaketak egiteko.

Familiek eskatuta gure kontratuak hainbat arlotako helburuak eta edukiak barne hartzen ditu eta, hala, familiak esparru-curriculumaz ezagutu eta eduki beharko du eta bere seme-alabaren berezitasunak ezagutu beharko ditu. Komunitate osoak adostu dituen jarreraren eta jokatzeko arauen zerrenda landu da. Zerrenda hau, era berean, banako kontratuarentzako erreferentzia izan daiteke eta kontratu hauek egitea erraz dezake.

Kontratu hauek berraztertzeari dagokionez kontuan izan behar da kontratua “bizirik” dagoen dokumentutzat hartzen dela, pertsonen jarrerak eta jardunak mugatu nahi ditu eta. Hortaz, kontratua berraztertu egin beharko da eta ikasturtearen barruan gertatzen diren aldaketetara egokitu beharko da. Ezinbestekoa izango da berraztertzeak uneak finkatzea eta bilakaera jasotzeko modua ezartzea.

2.2.1 Ikaskuntza-kontratuaren egitura

Orokorrean, Ikaskuntza Kontratuak bi zati ditu:

1.zatia) Esparru Orokorra: lehen zati honetan hezkuntza-komunitateko eragile guztiak parte hartzen dute eta inplikaturak daude. Bertan ikastetxearen helburu orokor guztiak laburtzen dira eta garrantzi berezia eskaintzen zaio Ikaskuntza Komunitateen filosofiari. Finkatu diren iguripen handiak eta positiboak barne hartzen dira, baita ametsaren fasean landu diren alderdi nagusiak ere. Komunitate osoak hitz eman beharko du alderdi hauek onartzen dituela, bere egiten dituela eta lortzen ahaleginduko dela.

Ruperto Medina Ikaskuntza Komunitatea osatzen dugun pertsona guztiak gure eskola demokratikoa eta pluralista izan dadin eta guztiok sartu ahal izateko ateak zabalik izan ditzan lan egingo dugu. Komunitate honek bakearen, tolerantziaren, errespetuaren, zintzotasunaren, arduraren eta elkartasunaren balioetan bizitzeko, irakasteko eta hezteko lan egingo du. Komunitatea erabateko kalitaterantz eramango duen kudeaketa-eredua lortuko dugu eta bertan erabakiak lankidetzaren, parte-hartzearen eta ordezkartzaren printzipioei jarraituta hartuko dira.

Ruperto Medina ikastetxea bere ikasle guztiak dagokienez ikaskuntza-iguripen handiak dituen ikastetxe bat da. Sormen handiko eskola berritzaile bat da; elkarrizketa eta lankidetzaren bidezko ikaskuntza abiapuntu izanik, desberdintasunak berdintzearen edo gainditzearen alde lan egiten du eta ikasleak XXI. menderako prestatzen ditu, gure iritziz eskolak aldaketa eta hezkuntza positiboak eragiteko aukerak baititu. Curriculumeko elementuen artean lehentasunak finkatzerakoan arreta berezia eskainiko zaio haur-hezkuntzako estimulazio goiztiarrari, oinarrizko trebetasunei, gizarte-trebetasunei, hizkuntzei (gaztelaniari, euskarari eta ingelesari), teknologia berriei eta autonomia pertsonalari.

Neska-mutilekin elkarrekintzan diharduten pertsona guztien lankidetzaren estuarekin soilik bizkortu eta sendotu ahal izango dira ikaskuntzak eta, hori dela-eta, nabarmendu behar da familiek lan-batzordeetan, batzarretan, tutoretzako bileretan eta abar izan duten parte-hartze handia. Era berean, boluntarioen, Euskal Herriko Unibertsitateko praktiketako ikasleen eta beste komunitate batzuen lankidetzaren ere hartu behar da aintzat.

Guztiak –beren lanarekin, ilusioarekin eta jardunarekin – funtsezko zutabe dira amesten dugun eskola lortzeko.

2. zatia) Banako zehaztapena: irakasleek, familiak eta ikasleek neska-mutil bakoitzak egin behar dituen zereginak ezartzen dituzte. Horretarako hasierako diagnostikoa, haur bakoitzaren gaitasunak eta beren trebetasunak hartuko dituzte kontuan.

Zati honen barruan hainbat atal daude:

- Hasierako diagnostikoa: atal honetan ikaslearen izena azaltzen da. Nolakoa den deskribatzen da eta zer ezagutza eta gaitasun dituen aditzera ematen da.
- Lortu nahi duguna: bertan curriculumaren xede zehatzetan –batez ere arlo instrumentaletan– lortu nahi diren helburuak islatzen dira. Ohitura pertsonalei buruzko helburuak ere finkatu ahal izango dira.
- Zer landuko dugu?: atal honetan kasuak kasu ezarritako helburuak lortzeko egin beharreko prozedurak eta zereginak jasotzen dira.
- Ebaluazioa: fase honetan Ikaskuntza Kontratuarekin konprometituta dauden pertsonak osatutako batzordea aldizka biltzen da. Batzorde honek lortzen ari diren emaitzak aurretik finkatutakoak diren egiaztatzen du.

Kontratua ikasle guztiarekin egin da eta oso baliagarria izan da beste modu batean ikastetxera hurbil zitezen oso zaila zen familiek ikastetxera hurbiltzeko. Komunitateak, oro har, eta familiek, bereziki, oso positiboki baloratu dute tresna hau. Gure ikastetxean familien parte-hartzeaz hitz egiten dugunean amen parte-hartzeaz ari gara. Nolanahi ere, Komunitateen Proiektuak sustatzen dituen parte-hartzearen espazioetako batzuk –hauen artean kontratua nabarmentzen da– aitak ere hurbiltzeko baliagarriak izan dira.

Kontratua lantzeko jarri genituen baldintza guztietatik bete ezin izan den bakarra bizkortasunarena izan da. Kontratu-eredu bat lantzeko prozesua luzea eta lan handikoa

izan da, baita kontratu bakoitza egiteko prozesua ere. Dena den, prozesu hau etengabe aztertzen da prozesua bera bizkortuko duten formulak bilatzeko. Arloen araberrako edukiak (zikloka landuak) eta jarrera eta arauen erreferentziarako zerrendak edukitzea oso erabilgarria izan da eta neska-mutil bakoitzaren kasuan egokiena hautatzeko aukera eman du.

Hainbat prozedura erabili ondoren (hasiera batean irakasleek proposamen nolabait itxiak eramaten zituzten eta proposamen hauek gainerako eragileekin eztabaidatu ondoren, adostu egiten ziren eta bidezko aldaketak egiten zitzaizkien), berdintasun eta bizkortasun handiagoko prozesua egiteko prozedurak bilatu dira. Gaur egun, familiari, seme-alabari, tutoreari eta, hala badagokio, esku hartzen duten gainerako eragileei beren ekarpenak egin ditzaten eskatzen zaie kontratua egin aurretik. Horretarako landu beharreko alderdiak azaltzen diren eta zabalik dagoen plantila bat gaineratzen zaie. Ekarpn guztiak bildu ondoren tutoreak proposamen bat landuko du eta proposamen hau negoziatu eta adostu egingo da bileran.

2.3. Boluntarioak

Boluntarioei dagokienez, unibertsitateekin, enpresekin, Gobernu Kanpoko Erakundeekin eta beste erakunde batzuekin jarri ginen harremanetan. 1996ko irailaz geroztik, boluntarioei buruzko dokumentu bat landu genuen eztabaidatzeko. Dokumentu honetan boluntarioen prestakuntza, aukeraketa eta ikastetxeko zereginen esleipena aztertzen zen. Komunitateko alderdirik berritzaileenetako bat boluntarioen (senitartekoen, ikasleen, eta abar) inplikazioa eta parte-hartzea da, parte-hartze honek giza baliabide ugari gaineratzen du eta gure ikasleen premiei goizeko 8etatik arratsaldeko 7etara bitartean erantzungo dieten zerbitzu guztiei aurre egiteko aukera ematen du.

Boluntarioa irakasleekin etengabe edo une jakin batzuetan lankidetzan dohainik jarduteko konpromisoa hartzen duen pertsona da, betiere bere interesen arabera eta Ikaskuntza Komunitatearen balioekin bat eginez. Boluntarioei esker ikasgeletako aniztasunari eta heterogeneotasunari berdintasunez aurre egiteko aukera dugu eta, bide batez, oso interesgarriak diren eskolaz kanpoko zereginak eta jarduerak burutzeko aukera dugu. Curriculum berritzeko laguntza handia dira eta, boluntarioak senitartekoak badira, eskolaren eta familiaren arteko hurbilketa lortzeko aukera ematen du, guztion erantzukizuna areagotuz.

Ikastetxean mota desberdineko boluntarioak bereizten ditugu burutzen dituzten zereginen arabera:

- Neska-mutil bati zehazki laguntzen diotenak.
- Talde batekin jardun jakin bat garatzen dutenak.
- Curriculumean finkatutako proiektu bat garatzen duen aditua.
- Ikastetxeko antolamendu-zeregin batez arduratzen dena.
- Eskolaz kanpoko zereginetan laguntzen dutenak.
- Ikasgelaz kanpo materialak lortzeko zereginetan, apainketa-lanetan eta abar lan

egiten dutenak.

Gure iritziz Ruperto Medina ikastetxean boluntarioek ondoko baldintzak bete behar dituzte:

- Ikastetxearen filosofia jasotzen duen Ikaskuntza Komunitateko hezkuntza-proiektua bere egin behar dute.
- Lehentasunak sakondu behar dituzte.
- Gure ikastetxeko giza baliabideak eta bitarteko materialak eta instalazioak islatzen dituen organigrama ezagutu behar dute.
- Egin beharreko lanerako behar besteko prestakuntza izan beharko dute (hau ez da aurretiazko baldintza bat, proiektuaren prestakuntza orokorra eskaintzeaz gain, zereginarekin lotzen den berariazko prestakuntza ere eskainiko baita).
- Ondoko konpromisoak bere egin beharko dituzte ikasturte baterako: adostutako denboran etengabe bertaratu beharko dute, ikasgelako irakaslearekin eta beste boluntario batzuekin koordinatuta lagundu beharko dute hezkuntza-zereginen, egindako lanak beste batzuekin baloratu beharko dituzte, baita gainerako pertsonekin taldean egindako lanak ere.
- Dedikazio boluntarioa, hau da, doakoa eskaini beharko dute.

Boluntarioak bere lanari hasiera eman aurretik lan hori zein den eta lan honek eskatuko duen ordutegia ezagutuko du. Konpromiso hau *lankidetzakontratu* batean gauzatuko da. Hona hemen kontratu honen adibide bat:

LANKIDETZA-KONTRATUA

Honako lankidetzakontratu hau boluntarioaren eta Ruperto Medina Ikaskuntza Komunitatearen ordezkariaren artean finkatu da, betiere interesatuekin adostu ondoren. Kontratu honek astean eguneko iraupena izango du,-(e)tik-(e)ra bitarteko aldian.

Boluntarioak,, behean deskribatzen diren jarduerak betetzeko konpromisoa hartu du eta arduradunak,, hitz eman du boluntarioari bere zeregina zuzen betetzeko behar duen laguntza osoa emango diola eta beharrezko prestakuntza eskainiko diola.

Era berean, Ruperto Medina Ikaskuntza Komunitateak boluntarioa komunitateko kide gisa barne hartuko du eta kontratua amaitzerakoan boluntarioari LANKIDETZA-DIPLOMA bat emango dio esker onez.

2.3.1 Prestakuntza

Hasierako prestakuntza zentroan zeregin honetaz arduratuko den pertsonak burutuko du. Prestakuntza honek ondoko edukiak izango ditu:

1. Proiektuaren filosofia eta oinarrizko alderdiak eguneratzea.
2. Ikastetxearen funtzionamendua eta organigrama ezagutzea.
3. Egin beharreko zereginarekin lotzen diren berariazko informazioak (lankidetzak zein ikasgeletan egingo den, metodologia, ikasleak, makinak erabilera eta funtzionamendua, kopien artxiboaren antolamendua...).

Hasierako prestakuntza bi egunetan burutzen da. Lehen egunean 1. eta 2. puntuak aztertzen dira eta bigarren egunean 3. puntua.

Era berean, etengabeko prestakuntza egiten da; batzuetan prestakuntza proiektuak planteatzen dituen premiekin eta garapenarekin lotzen da eta beste batzuetan, berriz, egin beharreko zereginarekin lotzen da. Pertsona boluntarioari eskatzen duen guztietan ere eskainiko zaio prestakuntza. Horretarako bere jarraipenaz arduratzen den batzordeak eskatzen den prestakuntza ematea baloratuko du. Prestakuntza ikastetxean bertan egingo da, gainerako eragileekin batera edo bereizita, betiere gaien arabera eta parte-hartzaileen aukeren arabera. Prestakuntzari ekin aurretik helburuak, edukiak, espazioak, prozedurak eta iraupena planifikatu eta finkatuko dira.

Bestalde, Ruperto Medinako hezitzaileek:

- Boluntarioa hezkuntza-komunitateko kideztat hartzen dute.
- Boluntarioa animatu egiten dute eta bere zereginetan lagundu egiten diote; bere elkartasuna hezkuntza-esperientziaz aberasten da.
- Arreta handiz jasotzen dituzte ikastetxearen hezkuntza-kalitatea hobetzen duten boluntarioaren proposamenak eta iradokizunak.

2.3.2 Boluntarioak aukeratzea

Klaustroak aukeratzen ditu boluntarioak. Pertsona boluntario baten lankidetzara oso anitza da, goraxeago ikusi dugun moduan, eta kontratuan zehazten da bete beharreko zeregina. Boluntarioek egiten dituzten lan guztiek helburu bera dute, oso desberdinak izan daitezkeen arren: ikasleei gehiago eta hobeto irakastea –ikaskuntza instrumentalei zein balioei dagokienez– eta elkarbizitza hobetzea.

Batzorde misto batean (familiak, irakasleak, aholkulariak...) landu eta erabaki daiteke nahiago den boluntario-profila. Batzorde honek aukeraketan barne hartu beharreko irizpideak finkatuko ditu. Dena den, azken erabakia tutorearena izango da, berak erabakiko baitu norekin jardungo duen lankidetzan.

2.3.3 Ebaluazioa

Boluntarioen jarduna ikastetxearen beste edozein hezkuntza-jardun edo hezkuntza-zereginaren gisa ebaluatuko da. Ebaluazioan jardunaren alderdi positibo nabarmenduko da, hobe daitezkeen alderdiak zehaztuko dira, halakorik badago, eta beharrezkoa denean irtenbideak proposatuko dira. Ebaluazioa tutore arduradunak egingo du eta zeregin horretan boluntarioaren jarduna zehazteaz eta koordinatzeaz arduratzen den batzorde mistoaren laguntza izango du. Boluntarioak ere hartuko du parte ebaluazioan. Hiruhilekoa amaitutakoan jardueraren garapenaren ebaluazioa egingo da. Gerta daitezkeen gertakari garrantzitsuak idatziz jasoko dira ondorio horretarako gaineratutako orri batean, hobetzeko baliagarria izango delakoan.

2.3.4 Jatorria eta kokapena

Ikastetxean barne hartzen diren boluntarioak ondoko esparruetatik datoz: nagusiki, ikastetxeko gurasoak; xake-jokoko federazioa; Jóvenes por la Paz taldea; ikasle-ohiak; unibertsitate publiko zein pribatuko ikasleak, Gobernu Kanpoko Erakundeak...

Egonkortasunez funtzionatzen ari diren boluntarioak ondoko ekipoetan barne hartzen dira: liburutegiko boluntarioak; ikasteko aretoko boluntarioak; senitartekoen eskolako boluntarioak; ikasgeletan laguntzen duten boluntarioak; boluntario adituak (xake-jokoko federazioko lehendakaria...); antolamenduan laguntzen duten boluntarioak. Ikastetxearen apainketa-lanak eta girotze-gaiak jorratzen dituen pertsona-talde bat ere

badago; nolanahi ere, liburutegiko boluntarioen taldeak ere protagonismo eta ekimen handia du esparru honetan.

Ingurumenaren arloko gaiak landuko dituen beste talde bat osatu nahi da, eskolako baratzean eta berotegian egiten diren jardunekin bat eginez.

Irakasleen aldetik erresistentzia gehien sortu zuen alderdietako bat boluntarioak ikasgelaren barruan barne hartzea izan zen. Hori dela-eta, boluntarioak beren ikasgelan barne hartzeko prest zeuden irakasleen ikasgeletan bideratu zen hasiera batean esperientzia. Esperientziaren alde onak ikusirik, berehala zabaldu zen esperientzia gainerako ikasgeletara eta ikasgelaren barruan pertsona heldu gehiago egotea proiektua garatzeko oso positiboa zela baloratu zen.

VIII AHOIKULARIEN ZEREGINA "IKASTETXE BAT IKASKUNTZA KOMUNITATE BIHURTZEKO PROZESUAN"

1. Aholkularien zeregina.

Ikaskuntza Komunitateetan sektore guztiak (aholkulariak, irakasleak, ikasleak, senitartekoak, irakasle ez diren langileak...) gaude inplikaturata, guztiek ditugu eskura gai honi buruzko informazio-iturri guztiak eta guztiek bihurtu nahi dugu ikastetxea guztientzako nahi dugun eskola. Honek prestakuntza-ekintzak abiaraztea eskatzen digu eta ekintza hauek kide bakanengana ez ezik, hezkuntza-lana erraztuko duten antolamendu-egitura orokorretara ere bideratuko dira. Ikaskuntzak elkarrekintza, elkarriketa eta lankidetzako esparruetan gertatzen badira, antolamendu-egituren berrantolamendua ezinbestekoa izango da harremanetarako esparru egokiagoak bultzatzeko.

Prestakuntza-proiektuaren arrakastaren giltzarria hezkuntza-komunitateko kide guztiak osotasunean, etengabe eta modu jarraituan eguneratzean eta hobetzean datza. Ikastetxeak etengabe ikasteko eskola dira eta eskola hauetan ikastetxea osatzen duten pertsonen garrantzia onartzen da, pertsona hauen erabateko garapena sustatzen da eta elkarrekin ikasteko aukera emango duen testuingurua sortzen da.

Etengabe prestatzen ari den antolamendu-egitura hau eta egitura honen sormen-kultura posible izateko behar-beharrezkoa da guztientzako xede komuna eraikitzea eta kide guztiak inspiratu eta motibatuko dituen ikastetxerako nortasuna eraikitzea. Aholkularitzaz arduratzen garen pertsonak irakasleekin eta komunitateko gainerako kideekin batera prest egon beharko dugu aldaketari aurre egiteko eta irakasten denaren eta gaur egungo gizarteak eskatzen dituen trebetasunen eta ezagutzen arteko desfasea saihesteko.

Aholkulariak hasiera-hasieratik esku hartzen du eraldaketa-prozesuan. Aholkulariak prozesua aldizka berraztertzen lagunduko du eta jarraitzen eta sortzen diren arazoei eraginkortasunez erantzuteko aukera emango duten estrategiak eta tresnak landuko ditu edo zeregin honetan lagunduko du. Elkarrizketarako eta aldaketarako gaitasuna eskatzen du, hau da, errealitatea interpretatzeko gaitasuna eskatzen du, arazoei beste modu batean begiratuta aztertzeke eta alternatibak bilatzeko gaitasuna eskatzen du –izan ere dagoeneko ezin dugu pentsatu arazoak edo zailtasunak eta beren irtenbidea neska-mutilengan daudela edo hauen egoeraren erruduna “neska-mutilekin kezkatzen ez den” familia dela–. Bestalde, norberaren eta beste pertsonen baliabideak sendotzen laguntzeko gaitasuna eskatzen du, baita botereak berdintasunezko banaketa izan dezan laguntzeko gaitasuna ere.

Izatez, aholkularien gaitasunak uztartu egin beharko ditu batetik jakintza teorikoa eta bestetik praktikaren ondorioz lortutako jakintza –talde-lanaren eta hezkuntza-eragileekiko elkarrizketaren bidez garatutakoa–. Aholkulariaren gaitasuna lanbidearen zereginetarako beharrezkoak diren teoria eta praktika arrakastatsuen berariazko jakintzetan ez ezik, komunikazio-trebetasunetan ere oinarrituko da.

Komunikazio-trebetasunak funtsezkoak dira negoziatorako eta partaidetzarako bideak ezartzeko. Harremanetarako gaitasunez eta komunikazio-trebetasunez ari gara eta gaitasun eta trebetasun hauek elkarrizketa berdintasunezko mailan erraztuko dutela aintzat hartzen dugu. Gaitasun eta trebetasun hauek gabe ez dago aholkularitza baliagarri eta erabilgarririk.

Ezagutza zientifikoei dagokienez, gure praktikak eta gure aholkularitza jasotzen duten ikastetxeen praktikak gizarte-zientzien eta hezkuntza-zientzien garapenik onenetan oinarritu behar dute. Garapen hauek banaka eta taldean hausnartu beharko dira eta gure testuinguruetan aplikatu beharko dira. Pertsona guztien eskura jarri beharko ditugu informazio-iturriak eta iturri hauetara heltzeko mekanismoak, ez dira “espezialisten” eskura dauden tresna bihurtu behar, guztion eskura dauden tresna izan behar dute-eta. Komunikazio-teoriei, ikaskuntza dialogikoari, informazioaren gizarteko hezkuntzari eta desberdintasunei buruzko obrarik onenak irakurri behar ditugu eta obra hauen gogoetazko irakurketa egitea sustatu behar dugu. Gainera, irakurketa eta gogoeta hauek bateragarriak badira, iturri hauetaz eta ikaskuntzaz baliatzea erraztu egingo da eta jakintza berreraikitzen duen komunitatearen prestakuntza sustatu egingo da.

Gogorarazi behar dugu Ikaskuntza Komunitateetako proiektuen garapena sustatzen ari garenean, garapen honen oinarri eta printzipioei dagokien gaitasuna edukitzeaz gaiz, ezinbestekoa dela prozedurazko baliabideak edukitzea taldean lan egiteko, ikuspuntu desberdinak antolatzeko eta informazioa jasotzeko eta hezkuntza-erakundeko maila desberdinei informazioa itzultzeko. Era berean, pertsonen arteko gaitasunen garapena eta elkarrizketa-jarrera funtsezko baldintzak dira eta halako baldintzarik gabe oso zaila izango litzateke gainerako parte-hartzaileen zeregina garatzeko aholkularitza-lanetarako eta laguntza-lanetarako beharrezko erlazio enpatikoak ezartzea.

Ikaskuntza Komunitateetako proiektuetan hezkuntza-komunitate osoak esku hartzen duenez gero, hezkuntza-antolakundeek funtsezko giltzarriak ere ezagutu beharko dira. Hala, gertakariak kokatu ahal izango dira eta ikastetxearen testuingurua argi eta garbi definitu ahal izango da. Egiturazko izaera nabarmenagoa duten maila hauen ondoan, irakasleen eta hezkuntza-komunitatean esku hartzen duten beste taldeen jarrera eta sentimenduei buruzko gai subjektiboak barne hartu beharko dira.

Gogoeta, elkarrizketa eta ikerketarako joera izango duen irakasleen prestakuntzak prestakuntza beraren kontzeptua aldatzea eragin dezake. Baztertu egiten da arrazionalitate teknikoaren ikuspegiari dagokion irakasle tradizional, akademiko eta adituaren kontzeptua. Irakasle honen funtzio nagusia jakintzak transmititzea eta horretarako kanpotik diseinatu eta eskaintzen diren errezeta eta prozedurak aplikatzea izango da.

Komunikazioaren ikuspegitik proposatzen den hezkuntza-ereduan, aitzitik, parte-hartzaileen arteko elkarrizketak eta gogoetak etengabeak eta iraunkorrak dira eta berdinen arteko elkarrekintzan oinarritzen den guztiontzako proiektu bat eraikitzea izango da helburua.

Ikuspuntu honetatik aholkularitza-lana guztiz konprometituta dago euskarri-sistema gisa jardungo duten elkarrekintza-sareak ezartzearekin. Izan ere, elkarrekintza hauen bidez jarduteko modu arduratsuak eta konprometituak partekatze eta probatzeko aukera

dugu eta, hala, lan-testuingurua bera gure egin ahal izango dugu eta menderatu ahal izango dugu.

Ikaskuntza Komunitate desberdinak ezin dira uharte izan eta aholkulari bakoitzak ezin du ente bakarti bat jardun. Ezinbestekoa da sarean funtzionatzea, eskolen sare batean funtzionatzea, ezinbestekoa da aholkulariek talde-lanean jardutea. Hala eginez gero, ahaleginak aniztu eta errentagarri egingo dira, ikastetxe bat beste ikastetxe batean sortu diren baliabide eta estrategiez baliatu ahal izango da, ekintzak koordinatu ahal izango dira, proiektuaren ikerketa-prozesuak sakondu ahal izango dira eta rolen eta jarreraren aldaketetan elkarri lagundu ahal izango diote. Komunitate bihurtzeko prozesua korapilotsua da, gaur egungo informazioaren gizartean aldaketa-prozesu oro den bezalaxe. Sare hauek finkatuta eta talde-lana ezarrita erraztu egiten dira hezkuntza-esperientzia honen erronkari behar bezala erantzuteko ikastetxean egin beharreko aldaketa eta berrikuntzarako ekintzak.

2. Esperientzia

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzak 1996/97 ikasturtearen hasieran lau herri-ikastetxetako zuzendaritza-taldeei eta hauen aholkulariei deitu zigun. Deialdi honen xedea ikastetxe hauetako batean jada hasi zen Ikaskuntza Komunitate bihurtzeko prozesua abiaraztea zen.

Hasiera batean aholkularia sentsibilizazio-prozesuan esku hartzen duen taldeko kide bat zen eta gertatzen ari zena beste ikuspegi batetik begiratzeko aukera ematen zuen: bertan gertatzen ari zenaren partaide izatea eta, aldi berean, ez izatea. Benetan hitz egin behar zutenak eta hitz egiten zutenak irakasleak, gurasoak eta ordura arte eskolaz kanpo zeuden komunitateko kideak ziren.

Munduko beste leku batzuetan kalitatezko bermearekin funtzionatzen ari ziren beste mota bateko eskola-ereduak eta eskola-sistemak bost egunez aztertzeke eta hauei buruz gogoeta egiteko –CREA taldearekin batera– konpromisoa hartu genuen. Bertan informazioaren gizarteaz, benetako aukera-berdintasunaz, gizarte-bazterketaz, gure ikasleen etorkizunean pentsatzeaz hitz egin zitzaigun. Ez ginen gutxiago izango, gure ahalegin guztia eta ilusio guztia jarri behar genuen abentura horretan. Egun horietan esandakoa eta gertatutakoa zehatz-mehatz jasotzen da lan-saioetako dokumentuetan.

Sentsibilizazioa amaitu ondoren, esku artean proiektuaren esparru orokorra genuen. Gure zeregina ondokoa zen: horri guztiari forma ematen laguntzea, proiektuaren esparru orokorraren faseei jarraipena ematea, gure iritziak adieraztea, proposamena aztertzea eta jorratzea. Hori dela-eta, aholkulariak lanerako prozedurak eta estrategiak dinamizatu eta bultzatu beharko ditu, bilerak edukiez hornitzeko formulak bilatu beharko ditu, ordura arte egindakoari buruzko gogoeta egiten lagundu beharko du eta guztiari zentzua eman beharko dio, betiere erabakia hartzeko zereginerantz eman beharreko urratsak bideratuz.

Jarrerak finkatzeko unea zen, beste informazio-iturri batzuekin atzeraelikatzeke garaia zen, proiektuak ikastetxe bakoitzean zituen alde onak eta alde txarrak aztertzeke sasoa zen. Fase honetan aholkulariak prozesu osoan lagundu behar zuen, irakasleen zalantzetan, ahulaldietan eta sendotasunetan lagundu behar zuen, baita proiektuan sartzeko edo ez sartzeko behin betiko erabakian ere. Kasu hauetan guztia da baliagarri:

laguntzeko eskaintza eta konpromiso pertsonala, enpatia eta, agian garrantzitsuena dena, entzutea eta elkarrizketa erraztea –guztiei entzuten zaien elkarrizketa alegia–.

Ametsaren fasea itxaropena zen, berrikuntza zen. Fase honetan guztiek gure rol eta zereginetatik abiarazi genuen gure irudimena guztientzako ikastetxe ideala izan zitekeena pentsatzeko. Aholkulariak ere amets egin zuen eta gainerakoekin partekatu zituen alternatibak eta estrategiak, ametsa baldintza ezin hobetan egitearren.

Ezin genion horrenbeste ilusio jaso zituen ametsari hutsik egin, pertsona eta kolektibo guztien ekarpenak jaso behar ziren. Aholkulariak eta proiektuaren talde koordinatzaileak proiektua mailakatzen lagundu behar zioten proiektuaren ardura zuen batzordeari, ondoren interesatuei itzuli eta lehentasunak aukeratzeko faseari hasiera emateko.

Komunitatearen ametsak mailakatzeko aukera ugari zegoen eta zegokien esparruen arabera antolatzea erabaki zen: komunitatearen espazioak, familiaren espazioak, ikasgelaren espazioak, irakasleen espazioak, eskolaz kanpoko jardueren espazioak eta jolas eta jaietarako espazioak. Puzzlea nolabait ebatzita genuen, orduan parte-hartzaileei helarazi behar zitzairen guztien artean eztabaidatu ahal izateko eta guztien ametsen batura izango ez zen amets komuna landu ahal izateko. Horretarako bilerak eta eztabaidak antolatu behar izan ziren. Oso erraza izan zen neska-mutilentzat onena zena adostea.

Zailagoa suertatu zen epe laburrean, ertainean eta luzean ikastetxe bakoitzean burutu zitezkeenak aukeratzeko, hau da, lehentasunak finkatzeko. Atal honetan aholkularitzak hainbat estrategia proposatu zituen ametsak aztertzeko, ametsen artean bat zetozen alderdiak zehazteko, garrantzitsuentzat edo premiazkoentzat hartzen zena antzemateko eta epe laburrean nolabait gauza zitezkeenak finkatzeko. Horrela, lehentasunak bereizi ahal izan ziren eta hauetako batzuk ikastetxe guztietarako komunak izan ziren: hizkuntzak sendotzea, teknologia berrietarako sarrera erraztea eta familien parte-hartzea sustatzea. Beste batzuk ikastetxe bakoitzeko komunitateek eskatutako berariazkoago alderdiak ziren.

Hurrengo urratsa lan-proiektua lantzea eta aukeratutako lehentasuna ahalik eta gehien garatzeko irakasle-taldeak egin behar zuen prestakuntza-berrikuntza diseinatzea izan zen. Hezkuntza-prozesuaren errealitatearen edozein esparru aldatzeko ezinbestekoa zen egin behar zen berrantolamenduaz jakitun izatea. Curriculum-esparrua, antolamendu eta funtzionamenduko esparrua eta estrategia pedagogiko didaktikoen esparrua desorekatu egiten ziren esparru hauetakoren bat mugitzen bazen edo esparru hauetakoren batean aldaketaren bat egiten bagenuen. Hala, ordutegia aldatzeko, zabaltzeko eta malguago egiteko proposamenek curriculum-esparruan eta estrategia metodologikoen esparruan zuten eragina.

Aldaketaren atal honetan aholkularitzak ondoko alderdiak jorratuko ditu:

- ✓ Ekintzetarako ibilbide eta aukera zabala diseinatzen eta eskaintzen laguntzea proiektua burutu ahal izateko eta irakasle-talde, batzorde eta abarren gogoetan eta eztabaidan oinarrituta erantzun zehatzak garatzeko.

- ✓ Aldaketak esparru batean izango duen eragina islatuko duten aukera eta ibilbide osoak aztertzea. Aldaketa hauek beste esparruetan eragin ditzaketen aldaketak eta berregokitzapenak jasoko dituzten aukera eta ibilbide osoak aztertzea.

✓ Irakasle-taldeen, senitartekoen eta komunitateko beste eragile batzuen prestakuntza-aldiak egokitzea eta prestakuntza-aldi hauek ezartzen laguntzea, taldeak abiaraziko dituen berrikuntzen aurrean segurtasuna ematearren eta eguneratzearren.

✓ Irakasle-taldeari prozesuan laguntzea, ekintzak behatzea eta hezkuntza-baliabide egokiak eta baliabide material egokiak bilatzea eta aztertzea.

✓ Abiarazitako elementu berritzaileak baliozkotzeko, ziurtatzeko eta sendotzeko komunikazio eta koordinazioko bideak ahalbidetzea eta indartzea.

Kontsekuente izan behar dugu eta konturatu behar dugu hezkuntza-arloan esku hartzeko ohiko espazioek (ikasgelak, zikloak, etapak eta ikastetxeak) esku hartzeko bide berriak sorrarazten dituztela (familiak, elkarteak, auzoa eta komunitatea, oro har). Horrenbestez, proiektuak espazioak eskaini behar dizkie esku hartzeko bide hauei.

Ikastetxeen ohiko funtzionamendu-egituretan aintzat hartzen ez den atal berritzaile honek ikastetxeetan asko eztabaidatu den puntu bat jorratzen du: “botere-egituren aldaketa”. Orain arte irakasle-taldeen soilik egin dutena hemendik aurrera komunitateko beste kideekin partekatu behar da.

Esku hartzeko espazio hauek diseinatzea eta planifikatzea proiektuko koordinatzaileek, batzordeek, aholkulariek eta abar batera egin beharreko lan bihurtu da berriro ere. Zeregin honen garapena hainbat alderdiren arabera da: ikastetxe bakoitzak bere harreman-dinamikan jarraitutako ibilbide-motaren arabera, prozesuaren faseetan ezarritako erlazioen arabera eta, azken finean, hezkuntza-komunitate bakoitzaren osotasunaren ezaugarrien arabera. Batzuk lan-batzorde batzuei hasiera emateko moduan zirenen arren, beste batzuek komunikaziorako eta harremanetarako hasierako bitartekoak finkatzeko urrats sendoak ezarri behar zituzten.

Gainera ikastetxe guztiek jakin bazekiten ez zeudela bakarrik eta beste ikastetxe batzuk ere esperientzia bera egiten ari zirela. Hurbilen ikusten zituztenekin modu informalean harremanetan jarri ziren fase jakin batean nola antolatu ziren jakiteko, arazo jakin bat nola ebatzi zuten jakiteko edo orain beren ikastetxean burutu behar zuten ekintza bat planteatzerakoan zein zailtasun suertatu zitzaizkien jakiteko eta, hala, zailtasunak aurreikusi ahal izateko eta, hala badagokio, aurrea hartu ahal izateko.

Gauza bera gertatu zitzaigun aholkulariei. Hasiera batean harreman formalak ikastetxearen, dagokion Pedagogi Aholkuterako aholkulariaren eta CREA taldearen artekoak ziren. Nolanahi ere, egoera berean zeuden beste pertsona batzuekin partekatuzko, trukatzeko eta koordinatzeko beharra antzematen genuen, hau da, zeregin bera (ikastetxeaz kanpoko eta hurbileko aholkularitza) antzeko testuinguruan (Ikaskuntza Komunitate bihurtzeko prozesuan dauden ikastetxeak) egiten ari ziren beste pertsonekin harremanetan jarri behar genuen. Hasiera batean harreman hauek modu informalean bilatzen hasi ginen eta bigarren urtean jada ikastetxe desberdinetako aholkularien bilerak antolatu ziren. Bilera formalizatu hauetan Eusko Jaurlaritzako Curriculum Eratzeko Institutuko (CEI) aholkulari bat zen koordinatzailea eta bilera hauetako askotan CREA taldeko pertsonak ere hartzen zuten parte. Hirugarren urtean bilera hauetako batzuetan ikastetxeetako ordezkariak ere hartzen zuten parte.

Prozesu honekin batera Euskadiko Komunitateen Proiektua sendotzea garrantzi handikoa zela ikusi zen eta, horretarako, ezinbestekoa zen gure komunitatearen

aholkulari-koordinatzaileen taldea eratzea. Euskadiren barruan eta kanpo gero eta ikastetxe gehiago zeuden proiektuarekin interesatuta. Bestalde, esperientziari hasiera eman zioten ikastetxeen beharrak gero eta konplexuagoak ziren, gero eta esku hartzeko maila gehiago hartzen baitzituzten. CREA taldeak hasiera-hasieratik planteatu zuen bere aholkularitza ez zela mugagabea izango eta ezinbestekoa zela gure komunitatearen aholkulari-koordinatzaileen talde hori eratzea. Hori dela-eta, prestakuntza-ekintzak egin ahal izan dira proiektua ezagutarazteko, proiektua beste ikastetxe batzuetara zabal dadin eskaintzeko, ikastetxe berrietan proiektuaren garapenari buruzko aholkularitza eskaintzeko, ikastetxe hauetako bakoitzean gai zehatzak jorrazteko, gogoetarako eta klaustroaren eta familien prestakuntzarako materialak lantzeko eta jarduera batzuk esperimentatzeko eta abiarazteko. Hori guztia aholkularien eta ikastetxeen baterako lanaren bitartez.

Proiektu hauen benetako protagonista Ikaskuntza Komunitate bakoitza dela kontuan izanik, koordinazio formala zein informala proiektu hauek sendotzeko eta sustatzeko garrantzi handikoa izan dela ikusi dugu. Ikastetxeetan lantzen ari ziren gaiak sakontzeko lagungarria izan da koordinazioa eta, gainera, ikastetxe batzuek zein besteek jarraitzen zituzten ibilbideekin aberasteko aukera eman du. Hala, ikastetxe jakin batean gertatzen diren zailtasunak aztertzeko eta beste ikastetxe batzuetan zailtasun horiek nola ebatzi diren jakiteko aukera ematen du, baita proiektu orokor komunak lantzeko ere.

Gaur egun behar-beharrezkoa da proiektuaren koordinazioa garatzen jarraitzea eta prestakuntza, jarraipen, ebaluazio eta ikerketa funtzioak betetzen jarraitzea. Eta hori guztia jardun jakin batzuen bitartez bideratuko da, jardun hauen artean ondokoak nabarmen ditzakegu:

1. *Prestakuntzari* dagokionez

- Sentsibilizazioa ikastetxe berrietan.
- Ikaskuntza Komunitateen Mintegia, une batzuetan teoria sakontzeko helburua izango du –ikastetxe bakoitzeko gogoeta elikatuko du– eta beste une batzuetan proposamen praktikoak garatzeko helburua izango du. Guztia ikastetxeen premien arabera.
- Esperientzia jardunaldietan, hitzaldietan eta abar hedatzeko jarduerak.
- Ikastetxe bakoitzean sor daitezkeen prestakuntza-eskaerak burutzea edo kudeatzea.
- Jarraipenaren eta ikerketaren bitartez gertatzen diren prestakuntza-ekintzak sistematizatzea (dagozkien batzordeen lankidetzarekin).
- Materialak egitea (batzuetan gaien edo prozesuen arabera eta beste batzordeekin lankidetzan).

2. *Jarraipenari* dagokionez:


- Ikastetxe bakoitzean prozesuaren jarraipena egitea dagokion ikuskariarekin lankidetzan. Komunitate bakoitzaren banakako jarraipenaz gain, garrantzi handikoa da proiektuaren jarraipena egitea, premia eta prozesu komunak dituzten ikastetxeen multzo gisa.
- Aholkulariei eta ikastetxe berriei laguntza ematea.

3. *Ikerketari* dagokionez:

- Barne-ebaluaziorako eta prozesuaren azterketarako tresnak lantzea.

- Sortzen diren arazoei eta ikastetxeetako bakoitzean abiarazten diren ekintzei buruzko azterketa, analisisia eta ikerketa. Ondokoak dira ikastetxe bakoitzean zein ikastetxeen osotasunean lanaren oinarri izan diren eta oraindik ere oinarri diren gai komunak:
 - * Ikaskuntza dialogikoa eta ikaskuntza honek ikastetxearen eta ikasgelaren mailan gertatu beharreko aldaketa metodologikorako duen aplikazioa.
 - * Familien parte-hartzea eta prestakuntza.

Funtzio hauek guztiak elkarrekin lotuta daude eta Komunitateetako Aholkulari Taldearen koordinaziopean daude, ondoko eskeman jasotzen den bezalaxe



Amaitzeko aditzera eman behar dugu orain arte azaldutakoa Ikaskuntza Komunitateen proiektuetako aholkularitza-lanei buruzko ideia eta adierazpen orokorrak baino askoz ere gehiago direla. Gure urratsak bideratu behar dituen eta gure prestakuntzako eta aholkularitzako ibilbideak ezarri behar dituen etorkizunerako proiektzioa da eta proiektzio honen bidez XXI. menderako amestu dugun eskolarantz, hau da, guztiok benetan baldintza berdinetan partaide izango garen eskolarantz aurrera egingo dugu.

BIBLIOGRAFIA

BECK, U.1997: *La sociedad del riesgo: Hacia una nueva modernidad*. Bartzelona: Paidos.

BECK, U; GIDDENS, A eta LASH, S. 1997: *Modernización reflexiva. Política, tradición y estética en el orden social moderno*. Madril: Alianza Universidad.

BECK, U.; BECK-GERNSHEIM, E. 1998. *El normal caos del amor*. Bartzelona: El Roure (1990).

BRUNER, J. 1997: *La educación, puerta de la cultura*. Madril: Aprendizaje Visor.

CASTELLS, M. 1997-98. *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. Vol. 1: La sociedad red. Vol. 2: El poder de la identidad. Vol. 3: El fin del milenio*. Madril: Alianza (1996-98).

ARTATSE LHI. 1998. *La participación de los padres y las madres en una comunidad de aprendizaje*. Aula de Innovación Educativa, 1998ko ekaina, 72 zk., 57 or. Bartzelona: Graó.

RAMÓN BAJO LHI. 1998. *Comunidad de Aprendizaje Ramón Bajo*. Aula de Innovación Educativa, 1998ko ekaina, 72 zk., 58 or. Bartzelona: Graó.

RUPERTO MEDINA LHI. 1998. *El voluntariado en la comunidad de Ruperto Medina*. Aula de Innovación Educativa, 1998ko ekaina, 72 zk., 56 or. Bartzelona: Graó.

VIRGEN DEL CARMEN LHI. 1998. *Las comisiones de trabajo en una comunidad de aprendizaje*. Aula de Innovación Educativa, 1998ko ekaina, 72 zk., 58-59 orr. Bartzelona: Graó.

CREA. 2000. *Habilidades Comunicativas*. Bartzelona: El Roure.

COMER, J.P. (Ed.) 1999. *Child by child. The Comer process for change in Education*. New York: Teachers College Press.

DELORS, J.1996: *La educación encierra un tesoro*. Madril: Santillana Ediciones UNESCO

FLECHA, R.; GIROUX, H. 1992. *Igualdad educativa y diferencia cultural*. Bartzelona: El Roure.

FLECHA, R. 1997. *Compartiendo palabras*. Bartzelona: Paidós.

FREIRE, P. 1970. *Pedagogía del oprimido*. Madril: Siglo XXI.

- FREIRE, P. 1997. *A la sombra de este árbol*. Bartzelona: El Roure (1995).
- FREIRE, P. 1999. *Autonomiaren pedagogia. Hezkuntzan jarduteko beharrezko jakiteak*. Ikastaria. Hezkuntza Koadernoak 10. zk. Donostia: Eusko Ikaskuntza
- GIDDENS, A. 1995. *Modernidad e Identidad del Yo*. Bartzelona: Península. (1991).
- GORZ, A. 1983. *Les chemins du paradis*. Paris: Galilée (Laia, Bartzelona, 1986).
- HABERMAS, J. 1987. *Teoría de la acción comunicativa*. Madril: Taurus. (1981).
- IMBERNÓN, F. (koord.).1999. *La educación en el siglo XXI. Los retos del futuro inmediato*. Graó: Bartzelona.
- LEVIN, H. M.; CARNOY, M. 1985. *Schooling and work in the democratic state*. Stanford, California: Stanford University Press.
- Bartzelonako Parc Científic-eko I. Hezkuntza Jardunaldiak: *Cambio educativo. Teorías y prácticas que superan las desigualdades*. Azaroa. Bartzelona. Dok. polikopiatua
- LUNA, F.; JAUSSI, M.L. 1998. CP “Ramón Bajo” de Vitoria-Gasteiz. *Una comunidad de aprendizaje. Cuadernos de Pedagogía*, 1998ko ekaina.
- STENHOUSE, L. 1984. *Investigación y desarrollo del currículo*. Madril: Morata
- TOURAINÉ, A. 1997. *¿Podremos vivir juntos?. Iguales y diferentes*. Madril: PPC.
- Hainbat egile. 1998 *Comunidades de Aprendizaje* Aula de Innovación Educativa, 1998ko ekaina, 72 zk., 55-59 orr. Bartzelona: Graó.
- VYGOTSKY, L.S. 1979. *Desarrollo de los procesos psicológicos superiores*. Bartzelona: Crítica.